

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-03-17  
ASTELEHENA  
446. ZENBAKIA  
11. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



"Lehen normaltzat genituen gauza asko dagoeneko ez dira finantzatzen"

**Imanol Ormazabal**  
Enpresa-lizentziaduna | 7

Arrasateko azokako babarrun lehiaketako irabazlea, Danok Bat | 12



Axtrokiak erabiltzeko lehen aldia izan da Eskoriatzan | 13



Aretxabaletak eta Mondrak, irabazi; Aloña Mendik, berdindu | 24

## Atleta asko eta onak duatloian

Maila handiko proba izan zen Oñatin; txapeldunak, Guillaume Ducasse eta Maider Gaztañaga | 22



Oñatiko plazako irteeran, 259 atleta; 247k bukatu zuten proba. Beste 13 ez ziren aurkeztu.

IMANOL SORIANO

### SINADURAK

	ENEIDA ITURBE   8
	8   XABIER URZELAI
	GAIZKA ERAÑA   14
	17   JON SUINAGA
	JOSE LUIS MADINAGOITIA   18
	19   AITOR AGIRIANO
	OIHAN VEGA   37
	40   XABIER ZUBIZARRETA

## Epeleko konpostatze planta, gertuago

Laster hasiko dira eraikitzen; GHK-k, Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak proiektua aurkeztu dute | 6

Epeleko konpostatze-plantako obra zibila aste gutxi barru hasiko dute, eta egubakoitzean berau aurkeztu zuten, Bergarako obra eremuan, GHK-ko, Foru Aldundiko eta Udaleko ordezkariak; "egun pozgarria" zen, euren esanetan, izan ere, Martin Garitano diputatu nagusiaren esanetan, Epeleko planta "aurrerapauso itzela" izango da oraindik zabalik eta martxan dauden zaborteziak itxeko.

Bi azpiegitura egongo dira Epelen: konpostatze plantak eta transferentzia estazioak. | 6

2. FASEA



[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

Zoaz 4. orrialdera.



# Beharra sortzean ahalik eta ondoen erantzuteko, baliabide berriak

- ▶ Kamioi berria dute Zubillagako suhiltzaile parkean
- ▶ Kamera termikoa ere bai, iluntasunean ikusteko
- ▶ Lehengoan aldean abantailak dituzte oraingoek



Suhiltzaileak, parkean duten kamioi berrian. | JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO | OÑATI

Suhiltzaileen beharrik ez izatea hobe, esan gabe doa; haien laguntza premia sortuko balitzateke, baina, ahalik eta baliabide egokienak izan ditzatela, euren lana era eraginkorrenean egin ahal izateko –baita eurentzako modu seguruenan ere–, eta dena delako gertaera edo ezbeharraren ondorioak ahal bezain txikiak izan daitezten.

Zentzu honetan, Zubillagako parkera iritsi dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio eta Zerbitzu zuzendaritzak herrialdeko suhiltzaileen esku jarri dituen baliabide berrietako batzuk. Autoeskailera, kale estuetan sartzeko moduko ibilgailu bat, bi kamioi autotanke eta hamabi kamera termiko ekarri ditu Aldundiak, eta, horietatik, kamioi autotanke bat eta kamera termiko bat izan dira Debagoieneko parkerako. Mikel Larrañaga sarjentuak kontatu dizkigu material berriaren ezaugarrien gainekoak.

## 28 urteko kamioiaren ordez

1986an Zubillagako parkea mar-txan jarri zenetik lanean ari zen kamioia kendu dute, berria erosi-ta. Lehenengo ekintzetarako kamioi deritzotenak dira biak, sute eta istripu guztietara joaten direnetakoak. Hiru hamarkada ez dira alferrik pasatzen, eta kamioi berriak baditu zaharrak ez zituen hainbat ezaugarri.

Hala azaldu digu Larrañagak: "Abantailaketa bat da ura botatzeko punpa. Lehengoak bi ur irteera zituen, eta presio alturik [punpa berriaren aparteko funtzio bat] ez zuen". Presio altua eta lau ur irteera ditu berriak, eta azaldu digu zer dakarren horrek: "Etxebizitzetako suteetan presio altuarekin lan egiten da azken urteetan; horrek esan nahi du ur

gutxiago botatzen dugula, eta mangera mugitzailekoan pisu gutxiago darabilgula". Irteera gehiago edukitzeak, berriz, mangera gehiago konektatzeko aukera ematen du, sute batean azalera handiagora batera iristeko modua, beraz.

Baina presio altuarenari helduta, nola ur gutxiago botatzea? Ez, ez baita kontraesana: "Jendeak pentsa dezake gure helburua izaten dela ahalik eta ur gehien botatzea; ez, ez, gure helburua izaten da ahalik eta ur gutxien

botatzea, batez ere, gu lanean ari garen bitartean ur horrek sortzen duen lurrinagatik. Guk botatzen dugun ur dena lurrin bihurtzen da, eta hori kaltegarria da guretzako, lurrin horrek tenperatura altua duelako; busti egiten gaitu eta erredurak izateko aukera asko edukitzen dugu. Beraz, guri komeni zaigu ahalik eta ur gutxien botatzea, geure segurtasunagatik, batetik, eta baita ahalik eta kalte gutxien eragiteko ere. Lehen bai, ura bota eta bota egiten zen, eta, orduan, suak eta botatako

urak eragiten zituzten kalteak".

Punparekin bukatzeko, Mikel Larrañagaren arabera, lehengo kamioiaren mugak muga, ondo moldatu ziren harekin, "baina kamioi eta punpa berriarekin aukerak handiagoak dira".

Kamioiaren beste berezitasun bat da elektronikoki nahasketa eragin eta, botoi batzuk sakatu soilarekin, aparra automatikoki sortzen duen gailua; ura botatzen egotetik, berehala pasa daitezke aparra botatzera: "Apar bustia

edo lehorra bota ditzake. Lehorra da asmakizun berri bat, probatzen ari gara. Sua itzaltzeko baino gehiago da ez handitzeko; sua itzaltzen ari zaren inguruan botatzen da, itsatsita geratzen da, eta eragotzen du su hori zabaltea".

Apar bustia erabiltzea aspal-ditik da ohikoa: "Urari eragin-kortasuna eransten dio aparrek; urak eragiten du tenperatura jaistea, eta aparrek oxigenoa ere bai. Batez ere su handietan asko igartzen da. Edukiontzietan ere asko erabiltzen dugu; aparrez bete eta, oxigenoa kentzen diogunez, itzali egiten da sua.

Lehengo kamioiarekin, ez lehorrik ez bustirik, ezin zitekeen punpan bertan aparrik sortu, eta aparra erabiltzeko esku manipulatua behar izaten zen. Mangera tartean aparra sortzen duen gaia sartu eta punta ere aldatu egin behar izaten zitzaion. Gainera, kamioi zaharrak bi ur irteera bakarrik zituenez, aparretarako bat erabiltza, bakarra geratzen zen urarentzat. Berriak, ostera, aparteko bi irteera ditu aparretarako, eta eraginik ez du, beraz, uraren erabileran.

Eta soilik gidatzeari dagokionez ere ekarri du aldaketarik kamioi berriak Zubillagako suhiltzaileentzat. Motor indartsuagoa du eta martxa aldagailu automatikoa, horiek dakartenarekin, segurtasun eta gidatzeko erosotasun aldetik: "Badakit lehen bazela ardura puntu bat, aldagailu automatikoak zekarrelako une batez indarra galtzea kamioiak, baina hauek oso aurreratuak dira eta horrelako galerarik ez dute". Aldaketarekin gustura daudela dio Larrañagak.

Bestela, askotariko beharri-zanetarako guztiz hornituta dago kamioia: 2.500 litroko ur depositua du; lau aire ekipo autonomo,

## Asiako liztarrari aurre egitera sarri

Suak itzaltzeaz gain, askoz lan gehiago –askotarikoak– egiten dituzte suhiltzaileek. Adibidez, Gipuzkoako Suhiltzaileek iaz egindako esku-hartzeetatik –1.882–, Asiako liztarraren habiak kentzeko egindakoak izan ziren kopuruz gehienak. Gisa horretako 258 irteera egin zituzten, eta eraikinetako suteak itzaltzeko, esaterako, 245.

Suhiltzaileek egokitu egin behar izan dituzte euren baliabideak Asiatik iritsitako mehatxu berriaren aurrean. Erlezainen ohiko jantzia erabiltzen dute erlauntzak –erleenak– kentzeko, baina ohartu ziren hark ez duela balio Asiako liztarrarentzat: "Istripu batzuk izan genituen, ziztada batzuk, jantziaren gainetik, handiagoak direlako eta eztena ere handiagoa dutelako".

Jantzi sendoagoak egin zituzten orduan –argazkian ageri ez den beste bat–, baina deserosoa izateagatik eta



Erlezainen jantzia eta Asiako liztarrarentzat darabiltena. | J.I.

aurpegirako babesa lurrundu egiten zitzaizela–eta, beste bat sortzeko enkargua egin zioten hornitzaile bati. Beraz, Asiako liztarraren habiak kentzeko euren propio egindako jantziak dituzte suhiltzaileek.

Berriaren abantaila ei da erabiltzeko erosagoa izatea, eta ez dela lurruntzen, aireztapen sistema duelako.

Suhiltzaileekin elkarlanean egindako jantzia "oso arrakastatsua" izaten ari dela dio Mikel Larrañagak; "Espainia osotik" eskatzen dutela.

Orain, dena den, protokoloan aldaketa izan da, eta udalen esku utzi du Aldundiak liztarraren gaia; behar bereziak daudenean soilik joango dira suhiltzaileak habiak kentzera.



**MIKEL LARRAÑAGA**  
SARJENTUA

## "Baliabide aldetik nahikoa puntakoa izan da beti gure zerbitzua"

Baliabide materialez gain, pertsonalez ere mintzo da.



**Nola ikusten duzu Zubillagako parkea baliabide aldetik? Ondo hornituta dago?**

Oso ondo dagoela uste dut; guk ditugun interbentzioetarako nahikoa baliabide dugu.

**Beti izan da horrela?**

Bai. Zubillagako suhiltzaile zerbitzuak 28 urte ditu, berria da. Beraz, baliabide teknologiko aldetik, bai ibilgailu edo bai material aldetik, nahikoa puntakoa izan da beti zerbitzua.

**Eta baliabide pertsonal aldetik?**

Bere garaian jende gehiago behar zela eskatu genuen. Inon ez da ikusten sute batera lau suhiltzaile joaten direnik. Diputazioak esan zigun ezin zela suhiltzaile kopurua handitu. Baina proposatu zigun sute bat zegoenean bi parketatik joatea suhiltzaileak. Onartu genuen; 10 minutuko tartean zortzi suhiltzaile batzen gara.

**Irtenbide ona izan da?**

Bai. Irteeren %70ean beharrik ez da egoten agian, baina komeni izan denean oso ondo funtzionatu du.

kea dagoen lekuetan lan egiteko; auto istripuetan batez ere, harrapatuta geratzen diren pertsonak ateratzeko ekipo hidraulikoa; 200 litro espumogeno; erreskateetarako soka, arnes eta bestelakoak; kanpoko ur-iturri batetik ura punpatzeko moto-pumpa; sua itzali osteko kea desegiteko haizagailua; argindar sorgailua;...

Kamioi berria lanerako prest dago, beraz; zaharrak, dena den, han jarraituko du oraindik, ordezko moduan erabiltzeko prest, "besteren batek kolperen bat edo izan eta konpontzen den bitartean erabiltzeko": "Oso emaitza ona eman du kamioi horrek eta, adibidez ke gehiago botatzen duen arren eta mantenu behar handiagoa edukita ere, ondo funtzionatzen du oraindik", diosku Mikel Larrañagak.

### Irudia, tenperaturaren arabera

Aldundiak Gipuzkoako suhiltzaileen esku jarri dituen baliabide berrien artean daude baita ere, esan bezala, kamera termikoak, parke bakoitzeko bat: "Tenperaturaren arabera irudia ematen dute. Gauza, pertsona, objektua izan, tenperatura desberdina du

zer horrek; beraz, ilunpetan edo ke artean sartzen bagara, aurrean ditugunen tenperaturaren arabera irudia ematen digu. Zuri-beltzean izango litzateke, baina ikusteko gai izango ginatke han mahai bat, aulki bat, pertsona bat edo zer dagoen, kamera gabe ikusi ezingo genukeena".

Lehendik bazuten beste kamera bat: "Ekarri zenean aurrerapen handia izan zen guretzat. Berria txikiagoa da, eta teknologikoki aurrerapena ekarri du: argazkiak ateratzen ditu, punturik beroena

## 'Satorra', Zubillagako asmakizuna

Baliabide berriak erositakoak edo kanpotik heldutakoak izaten dira sarri, baina Zubillagako suhiltzaileek esan dezakete asmakizun erabilgarri bat egina badutela, beste hainbat parketara esportatu dutena gero: *satorra*. Larrañagak azaldu digu tximinia bateko sua itzali osteko hausnarketatik sortu zela pieza. Sua itzali bai baina sukaldeak urez lepo uzten zituztela eta, hari soluzioren bat jarri behar ziotela pentsatu zuten. Mangerari eransteko metalezko pieza sortu zuten, zulo txiki-txikiak: "Urari ahalik eta presio handiena ematen diogu, eta lurrun eran ateratzen da zuloetatik. Goitik behera sartzen dugu tximinian; tximinia hozten joaten da, eta sua sortu den lekura iristean itzali egiten du. Behera ez da basokada ur ere iristen. Gure helburua da sua itzaltzea, ahalik eta kalte txikiena eraginez".



Suhiltzaileen *satorra*. | J.I.



Kamera termikoarekin iluntasunean nola ikusten den. | J.I.

eta hotzera adierazten ditu irudian, eta erabilgarriagoa ere bada tamainagatik. Egin kontu gu sute batera sartzen garela kaskoarekin, txamarretarekin, arnas ekipoa-rekin, mangerari tiraka...".

Puntu beroena adieraztearena baliagarri izan daiteke, bestalde, suaren fokua non dagoen jakiteko, adibidez. Argazkia ateratzeko duen abantaila da, berriz, gertaera lekutik apur bat alden du eta azter daitekeela, argazki bidez, egoera zein den, eta jarduteko modu egokiena hautatu.

### 24 suhiltzaile Zubillagan

Eta material hau erabiltzeko -eta gainerakoa- 24 suhiltzaile daude Oñatiko parkean, lau laguneko sei taldetan banatuta. Berriki eman ditu Diputazioak Gipuzkoako Suhiltzaileen 2013ko esku-hartzeen datuak, tartean Zubillagakoena, nola ez; 271 esku-hartze egin zituzten iaz: suteak izan ziren 111 eta salbamendukoak 151, besteren artean; gainerako parkeetako datuekin alderatuta badago aldea alarma faltsu kopuruan, sei besterik ez zituzten eta izan 2013an.

Denborei dagokienez, abiatetik gertaeraren lekura iristeko 12,3 minutu behar izan zituzten Zubillagako suhiltzaileek batez beste. Abisua jasotzetik, berriz, 15 minututik behera izan ziren kasu gehienetan. Eta esku-hartzeen batez besteko iraupena 74,3 minutukoa izan zen.

Amaitzeko, suhiltzaileek eurek jendeari eman nahi dioten mezua; beharra sortzen denean beldurrik gabe eskatzeko laguntza. Eta, zenbait lekutan esku-hartze motaren arabera kobratu egiten dutela eta, nabardura: "Guk ez diogu herritarrari ezer kobratzen".

si, ya estoy en casa con Jokin...

si, ya estoy en casa con Jokin...

...que si puedes traer algo para cenar, ¿vale?

...afaria erostea zure kontu, ados?

Zer ikusi hura egin

# EREDU IZAN


DEBAGOIENEKO UDALAK

**2.**  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herritarrekin**  
martxan en marcha



**Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU**  
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

**Gipuzkoa**  
BERRIA

### GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu.

Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

### DEBAGOIENeko HERRIETAN EGINGO DIREN BILERAK

HERRIA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Oñati	Martxoak 24	18:30	Udalbatza aretoa
Bergara	Martxoak 25	18:30	Irizar Jauregia
Elgeta	Martxoak 26	18:30	Udalbatza aretoa
Arrasate	Martxoak 27	18:30	Kulturate
Leintz Gatzaga	Martxoak 28	18:30	Udalbatza aretoa
Aretxabaleta	Martxoak 31	18:30	Arkupe
Eskoriatza	Apirilak 1	18:30	Ibarraundi Museoa
Antzuola	Apirilak 2	18:30	Olaran



AHTren aurkako kale-bilkura, zapatu goizean Bergarako biaduktuaren inguruan. | AITZIBER ARANBURUZABALA

# "Gezurra da AHTren zati handiena eginda dagoela", diote aurkakoeak

## Abiadura Handiko Trenaren "despilfarroa" salatu zuten kale-bilkuran

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

"Gezurra da AHTren zati handiena eginda dagoela; oraindik lanen herena ere ez dute egin". Hitz horiekin gogorarazi nahi izan du gaur AHT! Gelditu Elkarlaneko Mila Elortzak abiadura handiko trena gelditzeko aukera dagoela oraindik. Kontzentrazioa egin dute hainbat lagunek Bergarako sarreran eraikitzen dabilzan AHTren biaduktuaren azpian. Bergarako, Aramaio, Oñatiko...

jendeak hartu du parte, adin askotakoak. Bukaeran, jan-edanak banatu dituzte.

### 900.000 milioiko zuloa

Eguerdin inguruan hasi da kale-bilkura, Biltokiko pabilioiaren ondoan. *Despilfarroa gelditu. AHT ez!* leloa zuen pankarta erakutsi dute han batutako lagunek. Kale-bilkura isila eta lasaia izan da, eta, hasierako uneetan, Ertzaintzak begiratu du ekitaldia, baina

handik pixka batera, joan egin dira ertzainak.

AHT Gelditu! Elkarlaneko Mila Elortza angiozartarrak AHTn erakundeek dirutza inbertitzen jarraitzea salatu du, "osasunetik, kulturatik eta hezkuntzatik" herritarroi kenduta.

Mila Elortzak dioenez, "Eusko Jaurlaritzak tranpa ikaragarria egin behar" dio gizaritari: "Berriz proposatzen ari zaio Madrili berak bere kabuz egitea Angiozarko

lotura, eta berak aurreratzea dirua, mailegua eskatuta. Nork ordaintzen ditu interesak? Bueltatzen diote dirua? Nola dago kupoarena? Jaurlaritzak esaten ari da 900.000 milioi euroko zuloa dutela. Noiz kobratu behar ditu? Gu gure gauzetik kentzen gabilta, honetara bideratzeko, Madrili aurreratzeke?"

AHTren aurkakoeak argi dute: "AHT bertan bera utzi behar da orain bertan. Nahikoa da!"

MILA ELORTZA

AHT GELDITU! ELKARL.

## "Angiozarren, proiektua ere ez dago eginda"

Zer dela eta kale-bilkura hau?

Nahiko ikusgarria da leku honetan egi-



A.A.

ten ari diren astakeria, eta eskualdean ez dago inongo mugimendurik; kalean sarriago egon beharra genuela pentsatu genuen. Oraindik zeresan handia daukagu. Hau ezin da onartu, gainera jakinda ez daukala inongo etorkizunik, ez Frantziara ez Espainiara ez dagoelako AHTrekin jarraitzeke asmorik. Gainera, diru horren premia handia dago, osasunean, kulturean, benetako lana sortzeko... eta ez hemen egi-ten ari direnerako.

**Baina obra handiena eginda dago Debagoiengan...**

Ez, oraindik heren bat ere ez dago eginda. Angiozarren elkartuko dira Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko tramua, eta oraindik ez dago proiekturik ere. Eta Bergaran ikusten dugunaren gainean azpiegitura, elektrifikazioa, obra kolateral guztia... asko falta da, baina dena eginda dagoela sinestarazi diote jendeari, ez dakit nola.

**Zergatik isildu da herritarren protesta?**

Herritarren artean beldur handia dagoelako, langabeziaren -eta beldur dira, eta hori da AHTren bultzatzaileek duten erreminta onena.

## Erantzun ona izan du Bergarako umeen aisiaren inguruko lehen saioak

Azoka Bergaraten prozesuaren barruan, aisialdiaren gaineko lan-ildoak jorratzen hasi dira

L.K. | BERGARA

Gurasoak baino gehiago, hezitzaileak eta aisialdiko profesionalak joan ziren zapatuan Bergarako Zabalotegin egin zuten aisialdiaren gaineko jardunaldira; dena dela, jende asko joan zelako eta parte-hartze handia egon zelako, "oso balorazio ona" egin zuten Udaleko Hezkuntza arduradunek.

Azoka Bergaraten prozesuaren barruan, hezkuntzari eta, zehazki, umeen eta nerabeen aisialdiari eskainitako saioa izan zen zapatukoa. Hain zuzen, Oxirondoko azokako 1. solairuan guraso eta seme-alabendako aisialdigunea egin nahi da, eta parte-hartze prozesua ireki da.

### Protagonismoa, umeei

Zapatuan, zenbait hitzaldi izan ziren adituen eskutik eta, segidan, taldeka, jendeak eztabaida saioa egin zuen. Nagore Narbaizak, Uda-

leko Hezkuntza teknikariak, honako esan zuen: "Kezka badago, eta hori oso positiboa da; galderak egitea eta mahai gainean jartzea, gauzak ondo egiten gabiltzan galdetzeko. Ondorioetako bat da umei protagonismo handiagoa eman behar diegula. Joera daukagu gure ustez umei gehien gustatzen zaiena antolatzeke, eta ez diegu berbarik ematen, eta, niretako, ondorio nagusietako bat hori da: umeen aisialdia antolatu behar bada, umei berba ematek abiatu beharko genukeela".

Beste bi batzar egingo dira eta lantaldeak sortuko dira, zapatuko ideietan sakontzeko.



Taldeka, hausnarketa egin zuten parte-hartzaileek. | AITZIBER ARANBURUZABALA

**UXUE ZABALETA**  
GURASOA



"Oxirondoko aisialdi gune horretan guraso topagunea sortu nahiko nuke, gauzak dudatan jartzeko, sortzeko, herrigintza sustatzeko..."

**AMAIA BALDA**  
GURASOA



"Ni librezalea naiz; aisialdia umeek sortzea eta eraikitzea nahi izaten dut, eta nik era horretako proposamenak egin ditut".

**BLANKA JAUREGI**  
GAZTE TEKNIKARIA



"Oso interesgarria izan da, batez ere azken zatia. Planteamendu batzuk abstraktuak ziren, beste batzuk idealistak... Polita izan da".

**ENEKO BARBERENA**  
TXATXILIPURDIKOA



"Guk Arrasaten martxan dagoen Berramesten egitasmoa azaldu dugu. Saio interesgarria izan da, eta zapatu goiz baten hainbeste jende egotea pozgarria da".



Ordezkariek egubakoitzean, Bergarako obra eremuan, landatu zuten pagoa alboan dutela. | AITZIBER ARANBURUZABALA

# Epeleko konpostatze planta eraikitzen hasteko prest

9.000 tona organiko tratatuko dira bertan eta azpiegituraren kostua zortzi milioi euro izango da

IRATI GOITIA | ARRASATE

Aste gutxi barru hasiko dute Epeleko konposta plantako obra zibila eta egubakoitzean aurkezpen ekitaldia egin zuten, Bergarako obra eremuan. Bertan izan ziren: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko lehendakari Ainhoa Intxaurrendieta, Diputatu Nagusi Martin Garitano, Ingurumen eta Lurralde Antolaketaarako diputatu Iñaki Errazkin eta Bergarako alkate Jaione Isazelaia.

## "Egun pozgarria"

"Egun pozgarria dugu gaurkoa, izan ere, Epeleko konpostatze plantako lanen amaiera eta eraikitze faseari ongi etorria emango diogu", esanez eman zion hasiera

aurkezpen ekitaldiari Intxaurrendietak. Ildo beretik mintzatu zen Diputatu Nagusia: "Hemen eraikiko den planta honekin aurrerapauso itzela emango dugu zabortegiak ixteko. Guk zabortegirik eta errauskailurik gabeko Gipuzkoa behar dugu. Gipuzkoa garbia nahi dugu. Gipuzkoa arduratsua, non herritarrok ardura hartuko dugun hondakin gutxiago sortzeko eta sortzen duguna birziklatzeko. Bide onetik goaz".

## Bi azpiegitura

Bergaran kokatzen den Epeleko plantan, bi azpiegitura eraikiko dituzte: konpostatze plantak eta transferentzia estazioak. Konpostatze plantak urtean 9.000 tona

bio-hondakin konpost bihurtzeko ahalmena izango du eta 9.000 tona organiko horiekin, urtean 2.300 tona inguru konpost lortzeko aurreikuspena dago.

Transferentzia estazioak, berriz, Debagoienako errefusa, papera eta ontzi-arinak elkartzeko funtzioa izango du; gero, dagokion tratamendu plantara eramateko.

Horretaz gain, beste gune batzuk ere egingo dira: bio-hondakina eta material egituratzailea deskargatzeko gunea, biofiltroa, baskula, kamioien garbiketa gunea eta langileen aldagelak.

Epelen ez da ur-sareko hornikuntzarik izango, hau da, euri urak aprobetxatuko dituzte funtzionamendurako.



Epelekoarekin eta dagoeneko martxan dagoen Lapatxeko konpostatze plantarekin, Gipuzkoan gaur egun sortzen den bio-hondakin guztia tratatzeko aukera izango dela adierazi zuten.

## "Kalitatezko konposta"

Goi mailako konposta izango omen da bertan sortuko dena, lau ziurtagirirekin: A+ kalitatekoa, SANDACH baimena, zigilu ekologikoa eta ECNren Quality labela. Ziurtagiri hauek bermatuko dute konposta nekazaritza ekologikoan ere erabili ahal izatea. "Gipuzkoako Konposta" izen komertziala izango du.

## Errefusa %30 murriztu da

Aurkezpen ekitaldian izan zen Isazelaia esan zuen Epeleko konpostatze planta honek Debagoienean eginiko esfortzuar osootasuna ematen diola. "Eskualdean hausnarketa sakona egin da hondakinen kudeaketaren inguruan eta ez da bide erraza izan. Argi dago, baina, ez dela alferrikakoa izan".

Gipuzkoako mankomunitateen esfortzua datutara ekarri zuen Errazkinek: "Urte gutxian %30 murriztu da Gipuzkoako errefus kopurua eta 2013an ia %40ko birziklapen mailara iritsi gara Gipuzkoa osoa kontuan hartuta". Hala, ordezkariek guztiek adierazi zuten "Gipuzkoa bide onetik doala".

## 2015ean martxan

2013ko abuztuan ekin zieten konpostatze plantarako lurra prestatzeko lanei. Dagoeneko lurra prestatzeko daude eta obra zibila aste gutxi barru hasiko dute. 2015eko urtarrilerako planta martxan egotea aurreikusten dute.

# Autobus zerbitzua herritarrekin hobetzen

ENeko AZKARATE | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzua berrituko du, emakidak iraungita dardelako. Eta gipuzkoarrek batera adostu nahi izan du zerbitzu berria. Zehazki, Foru Aldundiak 2013ko urrian jarri zuen martxan zerbitzua hobetzeko prozesua. Aldunditik adierazi dute 3.000tik gora herritarrek egindako "ekarpenen %75 baino gehiago" onartu dituztela zerbitzua hobetzeko. Orain, prozesu horretako bigarren itzuliko parte hartze prozesua hastera doaz. Hala, 56 herritara joango dira herritarrei proposamena zer iruditzen zaien jakiteko, "inoiz Gipuzkoan egin den parte hartze prozesu zabalenetakoan", Diputaziotik adierazi dutenez.

Izan ere, proiektuak bost fase ditu: herritarren parte-hartzea (lehen itzulia), idazketa teknikoa, herritarren parte-hartzea (bigarren itzulia), prozesuaren amaiera eta prozesua martxan jartzea.

Herritarrekin lehen fasean Debagoienean eginiko parte-hartze prozesutik onartutako eskaerak honakoak dira: ordu-tegiak zabaldu eta langile eta ikasleen beharretara egokitzea; bi linea zirkular sortzea eskualdea lotzeko eta Urola Garaiarekin lotura bermatzeko; Bergara eta Arrasate arteko lotura areagotzea; kostaldearekin konexioak ezarriko dira...

Herritarrei hainbat bide emango zaizkie prozesuaren hirugarren fase honetan iritzia eman ahal izateko, besteak beste: bilerak, webgunea ([www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)), sare sozialak, postontziak eta kanpaina.

# Artzain Eskolako makila jaso zuten 13 profesional berrik egubakoitzean

XVII. ikasturtea izan da aurtengoa; dagoeneko 233 ikasle pasa dira eskolatik

I.G. | OÑATI

Egubakoitzean egin zuten Arantzazuko Gandiaga Topagunean Artzain Eskolakoek ikasturte amaierako ekitaldia eta makila banaketa.

Aurten, 13 pertsona prestatu dira eskolan: bederatzigizon eta lau emakume. Euskal Herrikoak ez ezik, beste lau autonomia erkidegotatik etorritako ikasleak ere izan dira. "Batzuei familiatik datorkie artzaintzarekiko zaletasuna. Beste batzuei, berriz, ez. Euren bizitza estiloak aldatzeko

etorritakoak dira", adierazi zuen Batis Otaegi, Artzain Eskolako zuzendariak. Hain zuzen, Zaira Gomez, Madrildik etorritako ikasleak hauxe adierazi zuen: "Beti egin izan dut lan bulegoetan eta bezeroenganako harretan. Bizitza estilo horrekin nekatu egin nintzen eta hala amaitu nuen Artzain Eskolan. Esperientzia aberasgarria izan da".

## Omenduak

Artzain Eskolako ikasturte amaieraren ekitaldian ikasleei diplomak

eta makilak emateaz gain, Juan Joxe Aranguren eta Arantza Segurola artzainei, eta Labayru Ikastegiari omenaldia egin zieten, artzaintza sustatzen eta balioesten egin duten lanagatik.

## XVII. ikasturtea

1997an zentroa martxan jarri zenetik, Arantzazuko Gomiztegi baserrian dagoen eskolatik 233 ikasle pasa dira eta horietatik 110 dabilta sektorean lanean. Zentroko arduradunen iritziz: "Zifra oso ona da".



Artzain Eskolako ikasleak, jasotako makilarekin eskuan. | AMAIA TXINTXURRETA



Setalde eta Schneiderrek makina-erremintako enpresek in egin zuten tailerra. | COMUNICAMELO

## ESANAK

**"Setaldeko profesional guztion lorpena izan da"**

RAUL JIMENEZ | ARDURADUNA

## DATUA

**32**

URTE

Orain 32 urte sortutako enpresa da Setalde, eta Eskoriatzan, Lasarte-Orian, Azkoitian eta Donostian ditu egoitzak.

# Setalde, Euskal Herriko eta Espainiako 16 banatzaile onenen artean

Industria-elektrikako Schneider enpresa liderrak Expert partner edo Lankide aditu kategoria eman dio

**LEIRE KORTABARRIA** | ESKORIATZA  
Eskoriatzako Setalde enpresa Hego Euskal Herriko eta Espainiako 16. enpresa bihurtu da Schneider etxearen Expert Partner edo lankide aditu kategoria lortzen. Elektrizitate-materialaren enpresa banatzaileek lordezaketan kategoriatuena da hori.

Schneider Electric liderra da munduan, industriako sekto-

re elektrikoan. Expert partner ziguarekin, Setalderen zenbait kompetentzia aitortzen eta saritzen ditu, hala nola prestakuntza, produktua ondo ezagutzea eta laguntzeko eta aholkuak emateko gaitasuna. Raul Jimenez eskoriatzarren, Setaldeko Garapen arduradunaren esanetan, zigilu hori lortu izana lantaldearen lorpena da: "Gure lantaldea osatzen duten profesional guztion

lorpena da, eta kalitatearekin eta zerbitzua emateko profesionaltasunarekin daukagun konpromisoa frogatzen da".

#### Edozein automatizazioan

Arduradunek azpimarratzen dutenez, Setaldeko bezeroei askotariko sistemen inguruan ematen dien aholkularitzarekiko konpromisoak bereziki eragin du Schneiderren erabakian. Izan ere,

Expert partner ziguilauek industriako edozein automatizazioan aholkularitza emateko eta bezeroari laguntzeko gaitasun-profila aitortzen du.

#### Makina-erremintako enpresak

Ziurtagiria lortu dela ospatzeko, Setalde eta Schneiderrek tailerra egin zuten, otsailaren 27an, Gipuzkoako makina-erreminta sektoreko enpresa garrantzitsue-

nekin. Sektoreko teknologia berrienak ikusteko eta probatzeko aukera izan zuten enpresa horiek.

Setaldeko Lasarte-Oriako egoitzan egin zuten aurkezpen hori. Benetako hainbat programazio motaren bitartez, makinek lehiakortasun handiagoa hartzeko duten aukera guztiak erakutsi zituzten prozesuetan espezializatutako Setaldeko teknikariek.

Raul Jimenezek honakoa dio: "Aurten egutegi aberatsa antolatzeko asmoa dugu, Gipuzkoako industria-elektrika sektoreari formakuntza eta aurkezpenak eskaintzeko, aholkularitzarekin daukagun konpromisoa sendotzeko".

1982an sortutako enpresa da Setalde. Eskoriatzaz gain, Lasarte-Orian, Donostian eta Azkoitian ditu egoitzak.

## Languneko enpresek 51,3 milioi fakturatu zituzten iaz

Euskadiko hizkuntza-industriako 40 enpresa eta erakunde batzen dituen aurreklusterra da Langune

**L.K.** | ARRASATE  
Euskadiko hizkuntza-industriak 277.692.571 euro fakturatu zituen iaz, aurreko ekitaldian baino %0,5 gehiago, eta 5.058 langile ditu, 2013an baino %1,26 gehiago. Langune elkarteko enpresek fakturazio horren %19 inguru egin zuten (51 milioi pasa). Joan den eguaztanean Langunek egin duen batzar orokorrean emandako datu batzuk dira.

Euskal Herriko Hizkuntz Industriaren Elkarte (Langune) 40 erakunde batzen dituen aurreklusterra da. Bere 5.058 langileak Euskadik lanean dituen biztanleen %0,63 dira. Esandako 277.692.571 euro haieetatik 51.300.000 baino gehiago Languneko kideek fakturatu zituzten, eta sektoreko enplegu osoaren %24 hartzen dute Euskadin. Itzulpenean, hizkuntzak erakusten, eleaniztasu-

na kudeatzen eta hizkuntza-teknologietan lan egiten duten 40 erakunde biltzen dira Langunen: enpresak, zentro teknologikoak, erakundeak eta unibertsitateko ikerketa-taldeak. Euskadiko hizkuntza-industriako establezimenduen %10 dira.

#### Sektore estrategiko izatea

2014-2017 Plan Estrategikoa ere aurkeztu zen, eta erronka nagusiztat dauka hizkuntza-industriak Euskadiko sektore estrategiko bihurtzea. Helburua da hiru erronka handiri erantzutea: enpresetan eleaniztasunaren kudeaketa sustatzea, hizkuntza-teknologiak bultzatzea espezializazioa lortzeko eta Euskadi beste hizkuntza gutxitu batzuentzako eredu izatea.

Plan Estrategikoa 27 proiektu garatuko ditu, eta horietatik, 19k sektoreko enpresen arteko



Dani Larrea. | LANGUNE

elkarlana eta sektoreko enpresen eta inguruko beste eragile batzuen arteko aurrekusten dute. Aipatutako epearen proiektuak garatzeko, 4,6 milioi euroko aurrekontua kalkulatu da.

#### MondragonLingua eta Emun

Zuzendaritza Batzordearen zati bat ere berri du. Elhuyar fundazioko Josu Waliñok lehendakari izaten jarraitzen du, eta MondragonLinguako Begoña Garciak, lehendakariorde. Emuneko Dani Larrea ere kide da.

## Ekonomiaren gainerako bi hitzaldi, EHBildurekin

Permach, Urizar, Rodriguez eta Urkaregik EHBilduren proposamenak azalduko dituzte

**L.K.** | ARRASATE  
Krisiaren gordintasuna Debagoienara ere iritsi dela salatu du Debagoieneko EH Bilduk. Bailarako biztanleen bizi baldintzak kaskartu egin direla azaldu dute eta gaineratu dute horren aurrean ez direla isilik eta geldirik geldituko. Tokiko garapena eta eraldaketa soziala bultzatzen ari direla adierazi dute eta elkarlanean Debagoiena eraldatzen ari direla gaineratu.

Hainbat hitzaldi eta mobilizazio ekitaldi bat egin dituzte dagoeneko, eta gehiago izango dira datozen egunotan.

#### Bi hitzaldi

Hauek dira datozen egunotarako antolatutako hitzaldiak:

EHBilduren proposamen sozioekonomikoa. Joseba Permach eta Pello Urizar, EHBilduko kideak. Martxoaren 20an, eguena, 19:00etan Bergarako Irizar jauregian.

*Balioen krisia eta politika sozialak Gipuzkoan.* Arantxa Urkaregi eta Ander Rodriguez. Martxoaren 26an, 19:00etan Aretxabaletan.



Joseba Permach. | GOIENA

## ZABALIK

**ENEIDA ITURBE**  
goiena.net/komunitatea/



## Modaren alde iluna

**D**uela ia urtebete munduari buelta eman zion hormigoi azpian harrapatutako elkar besarkatzen zuen bikote baten irudiak. Taslima Akhter argazkilariak Rana Plaza erakinen hondakinen artean ateratako argazkia zen. Bikote horrez gain, beste 1.136 pertsonak galdu zuten bizia istripu hartan eta 2.000 lagun baino gehiago zauritu ziren.

Rana Plaza Bangladeshko Dhaka hiriburutik gertu zegoen eta bederatzi solairu eta bost ehungintza fabrika zituen bere baitan. 3.122 lagun ari ziren bertan lanean, gehienak emakumeak, eraikina behera erori zenean. 2013ko apirilaren 24a zen.

Hurrengo egunetan, komunikabideak ehungintza sektoreko langileen lan baldintza negargarriari buruz eta multinazionalen erantzukizunaz aritu ziren. Laster ahaztu zituzten, baina.

Orain, *Arropa garbia* kanpainak ezbehar hura denon ahotara ekarri nahi du berriro, mundu mailako arropa markek beren ardura onartu dezaten. *Pay up!* (Ordaindu!) ekimenarekin Benetton, Carrefour eta Primark bezalako enpresei presioa egin nahi die, hildakoen familiek eta zaurituek kalte-ordainak jaso ahal izateko ekarpen ekonomikoak egin ditzaten.

Hedabideetan ez agertu arren, Bangladeshen, Indian, Pakistanen eta Kanbodian, besteak beste, hutsaren truke 12 eta 14 orduko lanaldiak egiten jarraitzen dute milaka pertsonak. Egutero aurre egin behar izaten diote errealitate honi: lan baldintza eskasak, sindikatuetan antolatzeko zailtasunak eta oinarritzko beharrak asetzeko nahikoa ez diren soldatak. Horixe da kami-setak 5 eurotan erostean benetako prezioa.

Ez da erraza giza eskubideen urraketa honen konplize ez izatea; hala ere, badira kontsumo arduratsuagoa egiteko eman ditzakegun zenbait pauso. Esaterako, arropa "erabili eta botatzeko" dela pentsatzeari laga eta hobeto aprobetxatzea, edo *Pay up!* bezalako ekimenetan parte hartzea. Animatzen?

## USTEAK USTE

**XABIER URZELAI** | xurzelai@goiena.com

## Frustrazio fabrikarik ez

**F**utboleko neurritz kanpoko erabakiak hartzen dira. Berehalakoan emaitza onak lortu behar izateak dakar, sarritan, azken orduan milioi askotako fitxaketak egin behar izatea.

Baina harrobia sendotzeko asmoaz askok dirutza xahutu izan dute 10 urte inguruko jokalariek fitxatzen. Haurra futbol merkantzia bihurtuta. Realak itsaso berean borrokatu behar du, baina helburuak lortzeko modu ezberdinak daude, eta aurrekoan, Eskoriatzan *Erreal*a, *formazioaren balioak* leloaz egindako berbaldian erakutsi zuten talde txuri-urdinak baduela proiektu propioa; ondo dakitela futbol jokalariek sortzea dela helburua, baina Zubieta gazteendako frustrazio fabrika bilakatu barik.

## KALE INKESTA

Zer moduzko esperientziak dira udalekuak?



**IBAN GOMEZ**  
ARRASATE

"Zuhatzan egon naiz ni. Oso ondo pasa nuen, ekintza eta lagun berri asko egiteko aukera da. Berriro joango naiz, aurtengoan Oriora".



**MAITE URIBESALGO**  
ARRASATE

"Ni Orion egon nintzen. Txikia zara eta ondo pasatzera zoaz. Herri desberdinetako lagun berriak egiten dituzu eta esperientzia berriak bizi".



**AITANA FERNANDEZ**  
ARRASATE

"Askotan joan naiz udalekuek. Niretzat esperientzia onena lagunekin denbora pasatzea eta beraiekin gaua pasatzea da".



**ESTI ITURBE**  
ARRASATE

"Ikastolarekin joan naiz udalekuek. Lagunekin momentu onak pasatzea eta gauzak zure kabuz egiten ikastea da esperientzia onena".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Hankabikorik ere ez

**Aritz Galarraga**  
berria.info/blogak/ekografiak/

Gizajendea da, noski, harri berarekin bi aldiz estropezu egiten duen animalia bakarra. Bai, bederen, *El Conquistador del fin del mundo*-ko gizajendea. Estropezu egin baino gehiago, badirudi gainera nahita jotzen dutela oinarekin harria, erortzeraino. [...] Hemen ere aipatu genuen, hilabete ez da joan ordutik: Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko elkarteak *El conquis*-ek animaliak gaizki tratatzen dituela salatzen.

[...] Eta oraingoa oraindik ez dut inolako salaketaren berririk, baina aipatzeko modukoak iruditu zaizkit joan den asteburukoak. Larunbatean, proba batean, bi idi pare erabili behar izan zituzten lehiakideek, aurretik batere esperientziarik gabe, eta animaliek, normala den bezala, alferreko lanetarako batere gogorik ez zutela. "Ezin dira animaliak jo, ez ostikadatxorik ez ezer; abisatu Korta", ohartarazi zuen Julian Iantzi aurkezleak. Eskerrak esan zuten Korta abisatzeko: ez

zitzen ukitu, baina telebistako une gorenen edozein bildumatan egotea merezi duen esaldia utzi zigun: "Vete pa'lli, que te saco el ojo si no, hijodeputa", mintzatu zitzaion idi bati. [...] Minero, Tostado, Hercules, Sanson idi gizajoak; zer egin ote dute gaizki ETBko adiskideekin gurutzatu behar izateko. Ederki pasatu zuen idi bikote batek: ihes egin nahi zuten, heriosuhar, sokak korapilatuta; horrekin aski ez, eta, irudiak muntatzean, pertsekuzio musika bat jarri zieten, Benny Hillen haren antzerakoa. Eta larunbateko gutxi balitz bezala, igandean krokodilotxo batzuk harrapatu behar izan zituzten eskuetara zingira batetik. Hala moduz.

Noski, aitzakia izango da dena aspaldian grabatuta dagoela, lehiaketaren garapenean eragin zuzena dutela proba horiek, derrigorrean eman behar zirela ikus-entzuleek ezer ulertzeko. Ados.

Baina hasteko, egin zezaketen muntaketa beste modu batera, animaliak erakusten zituzten irudiak gutxienez ekarri. Eta gero har zezaketen serio hurrengo ediziorako animaliak ez erabiltzea. Hankabikorik ere ez, ahal dela.

## Hiri eredu ideal bi

**Oier Gorosabel Larrañaga**  
eibar.org/blogak/orakulua/

(VERNE, Jules. 1879. *Los quinientos millones de la Begún*. Ed. Circulo de Lectores, Barcelona 1993).

Kontatzen denez, idazle honen azken epokia illuna da, gizakixan suntsipen-ahalmekin erreta edo. Liburu hau ordukua izango dok kontzitu. Ameriketako kolonizaziñuan azken bultzakadan (indigenei azken eremu librik kentiakiñ batera) *brand new* hirixak sortzeko aukeria egon zan, bai Iraultza Industrialan osteko planifikaziñuakin eta higieni neurrixekin sortu be. Hala eregitzen France-Ville eta Stahlstadt EEBBtako *far westian*. Lehelengua gizaterixian aldeko zientzixiana eta latindar izaeriana; bigarren gerrara aplikautako zientzixiana, eta izaera germanikuana.

PD: ba ez ba. Vernen "helduarokua" kontsideratzen da liburu hau, epoka illunan aurrekua.

Badirudi, halan be, modu atipikuan idatzitakua dala (aurreko idazle baten eskuizkribua berriidatzitza).

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Ubane Madera

**Sailkatu arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**

Leire Kortabarria

**Maketaria** Inaki Iturbe, Kepa Martelo

**Argazkilariak** Imanol Soriano

**Publizitatea** Mireia Larrañaga,

Amaia Mundifano, Zierza Martin,

Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**

ARRASATE 20500:

Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**

ARETXABALETA 20550:

E05 Basabe Poligonoa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550

E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

**Legu Gordinak:** SS-0088/04

ISSN: 2173-707X

**Tirada:** 5.000 ale

**Difusioa:** 4.383 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñati Udala, Aretxabaleko Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritza diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ormazabal | 'Gipuzkoako udalak krisialdian' lanaren egilea

# "Krisiaren ondorioz, lehen normaltzat genituen gauza asko dagoeneko ez dira finantzatzen"

- ▶ Imanol Ormazabal gazteak Gipuzkoako udalen ekonomia krisia aztertu du
- ▶ Haren esanetan, une txarrean pasa dute udalek, baina egoerari buelta ematea falta zaie

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

EHUn Enpresa ikasketak egin eta gero, gradu-amaierako lana egiteko, *Gipuzkoako udalak krisialdian* gaia aukeratu zuen Imanol Ormazabal 23 urteko donostiarrak. Eta, hain gaztea izan arren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean argitaratzeko moduko lan mardul eta osoa egin du.

**Zergatik aukeratu zenuen Gipuzkoako udalen egoera krisialdian gradu-bukaerako lanaren gai gisa?**

Ikasketen azken urtean, Kontabilitate Publikoa delako ikasgaia izan nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Irakaslearekin harremanetan, hurrengo urtean proiektua egin beharko nuela eta hori gustuko gaia izango litzatekeela planteatu genuen.

**Zenbat lan eta denbora eskaini diozu proiektu horri?**

Ofizialki, urtarrilean hasi nintzen lan horrekin; txostena ekainean aurkeztu nuen eta lana bera, uztailean; baina, ikasgaiaren oinarria hartuta, gutxi gorabehera, urtebeteko lana izan da.

**Zelan konpondu zara informazioa lortzeko?**

Gipuzkoan oso erraz daukagu, Udalgida webgunean udal guztien aurrekontuak eta adierazleak publikatzen direlako. Lanaren helburuetako bat informazio publikoarekin noraino iritsi zitekeen jakitea zen. Zenbait informazio eskatu beharra izan nuen; baina, oro har, zortea izan dut, webgunea antolatzen dutenekin harremanetan jarri nintzelako eta argitaratutako zerbait esku izaten, gaizki zegoen loturaren baten arazoa zuzentzen... lagundu zidatelako. Baina publikatuta zegoen informazioa zen.

**Erakundeen aldetik ere erraztasunak izan zenituen?**

Zenbait gauzatan, bai. Nik arlo ekonomia aztertu dut. Gero, arlo funtzionala dago: udal bakoitzak, adibidez, hondakinak ateratzen zenbat gastatzen duen jakitea, informazio hori ateratzea eta garaiz lortzea lana da, eta alde hori ez dago hain garatuta.

**Zure lanaren ondorioak labor azalduko dizkiguzu?**

Alde batetik, Gipuzkoako udalen egitura xelebrea edo nahiko berezia da: Gipuzkoako Diputazioak eskumen asko ditu; kontzertu ekonomikoarekin-eta, Eusko Jaurlaritzak badu bere garrantzia; eta Espainiaren eta Europaren bitartez gauza asko egiten dira. Hortaz, gai zehatz batzuetan bost erakunde konpetente daude, eta batak

besteara errespetatu behar du. Nahiko bitxia da egunerokotasunean hori kudeatzen jakitea.

Beste arlo baten, krisialdia bera dago. Hor, Udal Finantzaketa Foru Fondoan zentratu naiz, udalendako oso garrantzitsua delako eta egitura konplexu horretan sortzen den zerbait delako.

**Ondorioetan diozu zuk aztertutako 12 udalak ez zirela "bere ohiko jarduerari aurre egiteko gai". Benetan hain txarra izan da egoera?**

2009an, UFFFren diru-sarrerak murriztu egin ziren, eta urte bukaera aldera udalei jakinarazi zieten UFFFren bidez eurei aurreratutakoaren %15 edo %20 itzuli egin behar zutela; eta hori, denek aurrekontua eginda zuten. Urte hartan izan zituzten sarrerekin, ohiko jarduerari aurre eramateko ez ziren gai izan. Egoera hori errepikatu izango balitz, oso larria izango zitekeen. Udal asko ez ziren gastuei aurre egiteko gai izan.

**Ze alderdi murriztu dituzte udalek, krisiarengatik?**

Orokorrean, inbertsioak. Debagoiengan, Aretxabaletan, ez da hori pasatu, seguru asko planifikatuta zeuzkatelako inbertsio batzuk. Pentsatzen dut horrek zorpetze handia sortuko ziela eta orain zorpetze hori murrizten zentratu direla gehiago.

**Gipuzkoako udalek ze zorpetze maila dute?**

Norekin konparatzen ditugun... baina ez dut uste gaizki daudenik. Lege aldaketa bat egon zen, Europatik hiru helburu markatu zitzaizkien, eta bat zorpetze maila zen, diru-sarrerekin lotuta. 2013an, %95ean kokatu behar zenuen eta 2020rako, %75ean. Egun, Gipuzkoako batez bestekoak bete egiten du hori; %56ko zorpetze maila dute. Aretxabaletaren kasuan, 2011n hori ez zuen betetzen, baina helburua 2013rako zen. Orokorrean, aztertu ditudan udaletatik, Elgeta eta Aretxabaleta pixka bat zorpetuagoak daude, baina Foru Aldundiak arri-kuspen bat egin zuen eta, bospasei udalek izan ezik, helburuak betetzeko arazorik ez dutela izango ondorioztatu zuen.

**Zein izan da krisialdiko momentu txarrean udalendak?**

2009a eta 2011. 2009an, UFFFk nabarmen egin zuen behera. Lehendik UFFFri dirua itzuli beharra egon izan zen, eta urteka itzuli behar izatea erabaki zen; urtero kopuru bat, 2014ra arte. 2011n, berriz, beherakada izan zenean, diru hori urte berean bueltatu behar izan zuten, eta ez



Imanol Ormazabal donostiarrak. | IMANOL ORMAZABAL

**"2009a eta 2011 izan ziren udalendako urte txarrenak"**

**"Udalen lege berriarekin, kostu batzuk estandarrak izango dira"**

da gauza bera diru bat krisi hasieran itzuli behar izatea edo 2011n, krisiak urte batzuk iraun duenean. Konplexua izan zen.

**Krisia ez dago gaindituta, ezta?**

Azkenean, hainbeste zerga ordaindu herritarrek, hainbeste diru dute udalek; ez da beste sektore batzuetan bezala. Nik uste dut txarrean pasa dela, beharbada, baina orain berriro buelta eman behar diote egoerari; adibidez, zorpetze handia badute, kendu egin behar dute; erreserbak erabili badituzte, berriro bete behar

diutze; eta hori, jakinda gizaratek eskaera handiagoak egingo dituela, adibidez gizarate zerbitzuetan. Beste egoera bat sortuko da.

**Oro har, esango zenuke, krisiaren ondorioz, Gipuzkoako herrietako ongizate maila okertu egin dela?**

Hori gehiago lotuko nuke urte tarte batekin. Esango nuke azkenean lehen oso normaltzat jotzen genituen gauza batzuk dagoeneko ez direla ematen, gauza batzuk ez direla gehiago finantzatzen... baina ez da bakarrik udaletan gertatu; adibidez, berrordainketarekin: bere arrazoia ere izango du neurri horrek, baina arrotza egiten zaigu farmaziara joan eta horrela ordaindu behar izatea. Aldaketa horiek bai igartzen ari gara, eta gero eta gehiago.

**Krisiaren ze alderdik egin die kalte handiena Gipuzkoako udalei? Adibidez, eraikuntzaren gainbeherak ze eragin izan du?**

Eraikuntzarengatik badago zerga konkretu bat, edo jarduerari ekonomikoarengatik; hori murriztean, udalen zergak ere murriztu egin dira; eta garbi dago, datua publiko delako, kreditua garestiagoa dela gaur egun udalendak: 2008an, Euriborrarekiko batez besteko diferentziala 0,5 ordaintzen zen, eta 2012an, 4,14. Eta kreditu kopurua herenera edo laurdenera murriztu da. Zailtasun handiagoak badituzte, bai. Baina ze faktore izan den garrantzitsuagoa, hori ez dakit.

**Administrazio lokalen lege berriak udal finantzetan izango du eraginik?**

Bai. Erreforma horren helburu bat kostu batzuk estandarrak, kalkulatuak izatea da: adibidez, hondakinak kudeatzearen kostua hainbeste izatea. Eta akaso udal batena garestiegia dela esaten badute, planteatzen da zerbitzu hori Diputazioak edo beste erakunderen batek hartzea. Nik uste hori izan daitekeela erreformaren aldaketa handia. Baina ez dakit nola egingo duten, udalen artean gastuak konparatzea oso zaila eta, gauza batzuetan, sinplista izan daitekeela iruditzen zaidalako.

**Udalak fusionatzeko aukera ere hizpide izan zen. Gipuzkoan hori egitea errealista litzateke?**

Udalak bat egin, ez dakit, baina zerbitzu batzuk konpartitzea ideia ona litzatekeela iruditzen zait, eta, azkenean, erreforma horrek dio batzuetan edo konpartitze hori bilatuko duela. Badago Gipuzkoan erosketa bateratu zerbitzu bat, eta hori garatzea ona litzateke, nire iritziz.

# Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara  
Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50



# HERRIAK

## Irakurketa erraza: denok ulertzeko, denok gozatzeko

- ▶ Oñatiko Udal Liburutegian jarri dute martxan Euskal Herrian aitzindaria den egitasmoa
- ▶ Irakurtzeko zailtasunak dituztenendako da; adibidez, etorkinendako eta urritasunak dituztenendako

T. MADINA / I.GOITIA | OÑATI

Oñatiko Udal Liburutegian, gutxi gorabehera, 80 liburu berri dituzte, liburu bereziak, irakurketa errazean daude eta oinarrituta. Etorkinendako eta adineko pertsonendako aproposak dira liburuok, eta gehienak klasiko handien moldaketak dira.

### "Guztion eskubidea"

"Era honetako liburuetan esaldi motzak erabiltzen dira; aditzak orainaldian eta lehenaldian daude; hitzak ahalik eta apalenak eta xumeenak dira... Irakurtzera ohituta ez dagoen irakurle batek oso erraz irakurtzeko moduko dokumentuak dira", azaldu du Arantzazu Ibarrondok, Oñatiko Udal Liburutegiko teknikaria. Eta honakoa gaineratu: "Irakurtzeko printzipio demokratiko bati erantzuten dio irakurketa errazak. Guztion eskubidea da irakurtzea eta formatu honek hori bermatzen du". Hain zuzen ere, horregatik egin dute irakurketa errazaren aldeko apustua.

### Klasikoak

Momentu honetan idatzita dauden merkatuko liburu guztiak, 80 inguru, erosi dituzte. Gaztelerazkoak dira; izan ere, oraingoz, ez dago euskaraz modu horretan idatzitakorik. Klasiko handien moldaketak dira liburu gehienak; adibidez: Homero-ren *Odisea*, *Anne Franken Egunkaria*, Herman



Melville-ren *Moby Dick*, Bram Stoker-en *Dracula*... "Literatura unibertsalean oso ezagunak diren tituluak dira", zehazten du Ibarrondok. Hala ere, bestelakorik ere bada; esaterako, gazteendako propio idatzitakoak eta etxeko ekonomiari buruzkoak.

Bestalde, irakurketa erraza administratibotik jasotzen ditugun eskutitzetan ere aplikatu daitekeela dio Ibarrondok. "Europako iparraldeko herrialdeetan, adibidez, konstituzioa bera ere hizkuntza eredu horretan dute idatzia".

### Behar bereziak dituztenendako

Edozeinek har ditzake mailegu moduan nobelok, baina era horretako liburuak gizarte talde konkretuei begira eginda daude. "Batetik, etorkinendako dira egokiak, hizkuntzara hurbiltzeko eta integrazio bide moduan; bestetik, adinekoendako ere balio dezakete, baita alfabetatze ara-

zoak dituztenendako eta urritasun psikikoa dutenendako ere", dio Ibarrondok. Bilboko Alhondiga ere jarri du adibide bezala. Han, down syndromea dutenekin erabili zuten teknika hori. "Autoestimurako, garepenerako edo integratzerako oso baliagarria izan daiteke", zehaztu du teknikariak.

### Dinamizazio taldeak

Oñatiko liburutegia era horretako liburuak eskaintzen aitzindarietakoa da Euskal Herrian. Ekimena, baina, ez da liburuak erostera mugatzen. Izan ere, asmoa da irakurketa dinamizatze talde bat sortzea. "Liburuak batera irakurtzen da, ozenki; hitz bat edo ideia bat ez bada ulertzen, momentuan lantzen da", azaldu du Ibarrondok. Horretaz gain, dinamizatzaileak irakurtzeko nobela historikoki edo geografikoki kokatzeko laguntza ere eskainiko du, adibidez. "Irakurketa zentzu zabalean ulertu behar da. Alfabetatze prozesua izango da eta kontzeptu kulturalak ere landuko dira", zehazten du Ibarrondok.

Taldeko kide egiteko, liburutegian bertan eman daiteke izena. Bestalde, Helduendako Hezkuntzako Iraunkorreko eskolarekin ere jarri dira harremanetan liburutegitik.

Dinamizazio talde horiekin harremanak sortzea eta sendotzea da helburua. "Zerbitzu publiko garen heinean, gure erronka da herritar guztiei irekitzea liburutegia. Gure lana liburutegian izatea baino askoz gehiago izan behar da. Horregatik, beste urrats bat eman eta harremanak sortu nahi ditugu talde hauekin. Etorkinen kasuan, adibidez, integratzerako hizkuntza oso garrantzitsua izan ohi da. Bada, liburutegia hori jorrazteko eremu egokia izan daitekeela uste dugu".



Irakurketa errazeko liburuak, bata bestearen gainean. | TXOMIN MADINA

## Herrialde eskandinaviarretan du sorrera

Herrialde eskandinaviarretan du sorrera irakurketa errazak 70eko hamarkadan, eta IFLAK (The International Federation of Library Associations and Institutions) 1997an zehaztu zituen irakurketa errazarako testuak idazteko jarraitu beharreko ildoak. Gure artean, baina, oso berria da oraindik. 2012an eratu zen Euskadiko Irakurketa Erraza Elkarte. Poliki-poliki badoa hedatuz. Elkartearen arabera, herritarren %30 inguruk dituzte irakurtzeko zailtasunak.

### ESANAK

"Irakurtzeko printzipio demokratikoari erantzuten dio"

"Baliagarria da autoestimua, garapen eta integratzerako"

## ARRASATE

# Hamar elkarte gastronomiko lehiatu ziren babarrun lehiaketan

Babarrun onenak Danok Bat elkartearen egindakoak izan ziren; baseritarren azokan egin zen lehiaketa

MIREN ARREGI | ARRASATE

Hilabetero Seber Altuben egiten den baserriko produktuen azoka ezohiko lehiaketa baten lekuko izan zen zapatuan: izan ere, lehenengo zuten han elkarte gastronomikoen arteko babarrun lehiaketa. Jardunaldi gastronomikoen baitan antolatutako ekimenak Deba Garaia Landa Garapenerako elkarteak, Debagoieneko Turismo Bulegoa eta Arrasateko Udala izan ditu bultzatzaile. Lehiaketan parte hartu duten elkarteak izan ziren Alkartu, Hamaika Gazte, Ziorla, Danok Bat, Meatzerreka, Casino, Bidegain, Udalpe, Txalaparta eta SUDC.

## Onenak, Danok Bat elkarteak

Ikutixo baserriko babarrunak erabili zituzten sukaldean, eta onenak izan ziren Danok Bat elkarteak Juan Luis Lasak eta Roberto Zazok egindakoak. Hala ebatzi zuen Hilarion jatetxeko Gabino Iarzak, Santa Anako Iñaki Pildainek eta baserritarren azokan euren produktuak saltzen egoten diren Eduardo Valeronek eta Juan Mari Zuazubizkarrek osatutako epaimahaiak. "Hartu ditugu kontutan hainbat gauza: itxura, azala, alea, salda eta zaporea, eta onenak irabazi du", zioen Juan Mari Zuazubizkarrek.

Goizeko hamaiketarako, babarrunak gertu. Seberren egoteko agindua zuten elkartetako kideek, eta ez zuten hutsik egin. Epaimahaiak banaka-banaka hamar lapikoak probatu zituzten eta erabakiaren berri eman zuten ondoren. Saria Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek eman zuen.

Euro eta erdiren truke babarrunak dastatzeko aukera ere izan zen eta herritarrek aprobetxatu zuten aukera. AEK-koak egon ziren horiek zerbitzatzen.



Danok Bat elkarteak Roberto Zazo eta Eugenio Bergaretxe pozik, saria jaso ondoren. | MIREN ARREGI



FELIPE RICO GONZALEZ  
ARRASATE

"Gustura nabil baba platerkada eder hau jaten. Irabazleenak dira eta puntuazio bat eman beharko banieke, duda barik, hamarrekoa emango nieke. Giro polita ipini du lehiaketak gaurko azokan".



MAIALEN TERRAZAS ETA  
JESUS MARI URIBE  
ARRASATE

"Hamaika Gazte elkartearen egindako babarrunak jaten dihardugu. Ederrak daude, benetan. Tripa beteta, siestara joateko moduan gara".

## ElkarTruke Azoka, ezagunagoa

Azoka Plazan egiten dute hilabeteko hirugarren zapatuan Bagararen ElkarTruke Azoka. Zapatuan ere egin zuten, eta han, erabiltzen ez ditugun arropak eta bestelakoak eraman eta behar dugun hori hartzeko aukera izan zen. Zapatukoa gai zehatz bati lotu bako azoka izan zen; bereziki arropak trukatzeko aukera izan zen, baina baita liburu, CD edota jostailuak. Berrerabilpenaren aldeko ElkarTruke Azokak, hilabetetik hilabetera, jende gehiago erakartzen du.



Bagararen ElkarTruke Azokan, herritarrek begira. | IMANOL SORIANO



XABI BETZUEN  
ARRASATE

"AEK-kook dihardugu zerbitzatzen eta badabil jendea hurbiltzen. Goxoak daude benetan babarrunak, baina nik, aukeran, nahiago ditut patatekin".

## LEINTZ GATZAGA

## Zazpi haritz berri Leintz Gatzagako Pagoederren



Zuhaitzak landatu zituen koadrila, lanak bukatu ostean. | JOSETXO ARANTZABAL

M.A | LEINTZ GATZAGA

Udalak eta Gurelek antolatuta, Leintz Gatzagako Pagoederren, zazpi haritz landatu zituzten atzo. Goizeko hamaiketan iritsi zen gurasoz eta umez osatutako 14 lagunek koadrila Pagoederrena. Aitzurraz zuhaitzendako zuloak egin ondoren, haritzak landatu zituzten. Leintz Gatzagako gatzetxoak oso gustura ibili ziren lan horretan.

### Aurrez landatutako tokian

Urtean hainbatetan egiten dituzte zuhaitz landaketak Leintz Gatzagan, eta atzo, aurrez landatutako eremu baten egin zuten hori. Hain zuzen ere, dagoeneko landatuta zeuden haritzak ihar-tuta zeuden eta horien tokia hartu zuten atzo landatutako zazpi haritz berriek. Txoriendako lau kabi ere ipini zituzten.



Haritzak landatzen hasteko gertu. | JOSETXO ARANTZABAL



Eskoriatzako gaztelekuan, lan-taldea lanean. | IBONE AREJOLALEIBA



Gulak eta piper berdeak frijitzen. | IBONE AREJOLALEIBA



Patata tortilla, gulekin. | IBONE AREJOLALEIBA

## ESKORIATZA

# Parte-hartze handia eta lan onak Eskoriatzako Gaztetzef lehiaketan

Antolatzaileek emandako osagaiekin, ordu bete izan zuten gaztetzef platerak prestatzeko

M.A | ESKORIATZA

Eskoriatzako gaztetzef lehiaketaren antolatutako Gaztetzef lehiaketaren lehenengo saioa arrakastatsua izan zen inondik inora. Zapatuan egin zuten hori eta antolatzaileak pozik dira saioak emandakoekin. Izan ere, hiru eta lau pertsonaz osatutako zazpi taldek hartu zuten parte. Bi txanda egin zituzten. Lehenengoan lau talde aritu ziren eta bigarrenean hiru: "Parte-hartzeak harritu gaitu, ez genuen-eta horrelakorik espero. Eta ez hori bakarrik, izan ere, nahiko maila ona erakutsi dute", zioen Ibone Arejolaleiba gaztetzefeko hezitzaileak.

Antolatzaileek hainbat osagai eman zizkieten: arrautzak,

patatak, gulak, urdaiazpikoa, gazta, piper berdeak eta kipula. "10 minutu eman dizkiegu zer egin pentsatzeko. Interneten begiratzeko aukera ere izan dute. Gero, ordu bete izan dute platera prestatu eta dena txukun-txukun uzteko", zioen Arejolaleibak. Hala, denetarik platerak egin zituzten: patata tortillak, gula tortillak, arrautzak patata eta piperrekin...

### Datorren zapatuan, berriz

Gaztetzef lehiaketako lehenengo saioa eginda, beste hiru gelditzen zaizkie parte-hartzaileei. Hurrengo datorren zapatuan izango da: lau saiotako puntuak batuta jakingo dugu talde irabazlearen izena.



Eskoriatzako harakinak, okela erretzen. | IMANOL SORIANO

## ESKORIATZA

# Zapatuko azokan, herritar askok erabili zituzten axtrokiak

Eskoriatzan ez ezik, Aretxabaletan ere kalera atera ziren hainbat denda

MIREN ARREGI | ESKORIATZA

Axtroki merkatarien elkartearen eguna ospatu zuten zapatuan Eskoriatzan. Herriko bederatzi merkatarik euren eskaintzak kalera atera zituzten eta horrek jendea batu zuen plazan. Hori bakarrik ez, izan ere, umeendako puzgarritz eta bestelako jolasez bete zen Eskoriatza. Arratsaldean herriko harakinek parrillada egin zuten eta horrek ere jende mardoa erakarri zuen: 24 kilo okela erre zituzten eta guztia saldu zen. Elkarteko kideen produktuz osatutako saskia ere zozketatu zuten, aurrez ia txartel guztiak saldu ondoren.

### Axtrokiak zirkulazioan

Bestetik, herriko merkataritza bultzatzeko ahaleginean 50 euroren truke 55 axtroki eskuratzeko aukera izan zuten joan den astean eskoriatzarrek. Guztira 5.000 axtroki atera dituzte eta guztiak saldu



Herritarrek begira, Aretxabaletako Ixadebalde azokan. | IMANOL SORIANO

dira. Zapatuko azokan hasi ziren herritarrek horiek erabiltzen, gainera. Udala, bestetik, maiatzean hasiko da hobarien bidez axtrokiak banatzen.

### Aretxabaletan, Ixadebalde

Aretxabaletan ere merkatariek euren eskaintzak atera zituzten

kalera zapatuan. Aretxarteko 12 komertzio atera ziren kalera: arropa eta oinetako dendak eta lentzeriak. "Egun ona izaten da guretzat, asko saltzen da-eta. Jende asko ibili da, bai goizean eta baita arratsaldean ere", zioen pozik Aretxarteko Idoia Elexpurrak, egunaren bukeran.



**SORKUNDE PAGALDAI**  
ESKORIATZA

"Geroz eta joera handiagoa dugu erosketak egitera herri handiagoetara joateko eta bultzada bat eman behar zaie herriko komertzioei. Axtrokien horretarako egitasmo ona da".



**JUANJO LETE**  
ESKORIATZA

"Jakin ere ez nekien azoka zegoenik eta sorpresa polita hartu dut. Horrelako ekintzak oso ondo daude. Axtrokiak ateratzearena ere bikain ikusten dut. Herrian kontsumitza garrantzitsua da".



**BEA ETXABE**  
ARETXABALETA

"Eman dugu bueltatxo. Eguraldiak ere lagundu du eta oso ondo egon da. Uste dut oso azoka ona izaten dela, eskaintza oso onak egoten dira-eta. Nik aprobetxatu dut erosketak egiteko".

## NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA



## Tipo normala

Alberto tipo normala da, gizarte honetako klase erdiko prototipue. Ikasketak Arrasaten egin eta gero biharra topatu euen herrixan bertan. Solterotan etxe txiki bat erosi euen hemengo banku bati eskatutako maille guaz. Gure gizartien pertsona arrunt batek egitten dauena egitten euen beti: lanera egunero fan, parrandan ibilli, mendire igo, amangana bazkaltzen fan, arrakasta barik nesketan egin... bere bizitzako Magali ezagutu euen arte.

Arrezkero bi logelako etxe txiki eta igogailu bakoan Amaia alaba nagusixaz eta atzetik etorri dien hirukixekin bizi die. Familixia aurrera atarateko

Magalik 4 orduko murrizketie lortu dau eta Alberto hiru errelebotan hasi da.

Urtietan kotizatu eta zergak ordaindu dittuen klase ertaineko Alberto herriko udaletxera fan da laguntasun billa. Hiru logelako etxie erosteko nahiko dirurik ez eta berak aukeratu-tako alderdiko zinegotzi xangana irtenbide bat topetan fan da. Dana alperrik: bixok biharra daukienez ez dau balixo dauen laguntasunik.

Hirukiekin eskilleran gora eta behera dabillen bittartien ideia arraruek etorten jako sarrittan: biharra itxi, izena aldatu eta buruen palestinue jartie, emaztiagandik banatzie, eta danetan arraruena, eskaileretan behera istripuxo bat izatia eta bixkarra milla zatitxan apurketie da.

**"Solterotan etxe txiki bat erosi euen Albertok"**

## Omer Arregik uko egin die udal gobernuan dituen ardurei

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Arrazoi pertsonalak medio, Omer Arregik uko egin die orain arte Udal gobernuan zituen ardurei. Arrasateko Udalak egubakoitzean bidali zuen oharrak dionez, Arregik "gobernu taldean dituen ardurei uko egin" dien arren, zinegotzi moduan korporazioko kide izaten jarraituko du aurrerantzean.

Gaurtik aurrera, Tokiko Gobernu eta Hirigintza Batzordeetako kide eta lehendakari izateari utziko die Omerrek; baita hirigintza zinegotzi eskuordetu izateari ere.

Udalean dituen karguez gain, Mankomunitatean dauzkanak ere utziko ditu Omer Arregik. Arrasateko Udaleko ordezkari moduan, Suradesa enpresako kide zen orain arte Arregi, eta hemendik aurrera kargu hau izateari utziko dio.

## Ordezko zinegotziak

Omer Arregiren dimisioa jakinaraztearekin batera, Arrasateko Udalak utzik geratu diren karguak zeinen eskutan gera-

tuko diren azaldu zuen. Juan Antonio Barriocanal izango da tokiko gobernu batzordean Arregiren lekua hartuko duena; eta Joxe Etxeberriak berriz, hirigintza zinegotzi kargua hartuko du.

Suradesan udaleko ordezkari berria nor izango den, eguzten arratsaldean egingo den plenoak erabakiko du.



Omer Arregi. | ARTXIBOA

## Gazta Zati Bat dokumentala emango dute gaur Kulturaten Gure Esku Dago ekimena aurkezteko

Arrasateko Gure Esku Dago taldeak antolatuta, Gazta Zati Bat dokumentala emango dute gaur astelehena arratsaldeko 18:30ean Kulturateko areto nagusian. Filmea eman aurretik, Arrasateko Gure Esku Dago taldeak bere aurkezpena egingo du. Herriko sentsibilitate desberdineko pertsonak osatuta, erabakitze esku-bidearen aldeko aldarria zabaltzea du helburu moduan gaur aurkeztuko den taldeak. Datozen egun eta astetan Arrasaten egingo dituen ekimenen berri emango du lantaldeak.

Rafael Gomez | Al-Andalus kultura zentroko presidente ohia

## "Gazteek ez dute helduen lekua hartzen, erreleboa falta zaigu"

► 24 urteren ondoren zuzendaritza batzordea utzi du Rafael Gomezek

► Gipuzkoako andaluziarren elkarte zaharrena da Arrasateko Al-Andal

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Arrasateko Al-Andalus kultura zentro andaluziarreko presidentea izan da Rafael Gomez, elkarteak dituen urte gehienetan. Presidente kargua utzi eta zuzendaritzan ez jarraitzea erabaki du orain. Zentroan bertan hartu gaitu eta bere erabakiari eta urte guzti hauei erreposoa eman diogu.

## Nondik etorri zen andaluziarrek elkartzeko gune bat sortzearen ideia?

Helburua andaluziarrak eta, bereziki, herrian hainbeste ginen Montillakoak (Kordoba), elkartzeko leku bat izateko asmoarekin sortu zen elkarte. Hasiera batean elkarte gastronomiko bat egin nahi genuen, baina Gasteizen izandako bilera baten ostean, 4-5 lagunek zentro andaluziar bat sortzea erabaki genuen, beste herri batzuetakoak ere hartuta. Andaluziaren eguna eta aste kulturala ospatu nahi genituen, euskaldunen eta andaluziarren kulturen elkartruketa egitearekin batera.

## Zenbat bazkide zarete gaur egun? Belaunaldi berriek lanean jarraitzeko gogoarekin jarraitzen al dute?


320 inguru gara, egun. Bere garaian 450 bazkideetik gora izatera iritsi ginen, inauguratu genuenean. Kopurua jaisten joan da. Jende helduena hil edo erretiratu egin da, baina gazteenek ez dute erreleboa hartu, elkarte ia guztietan gertatzen ari den bezala. Ekintza jakin batzuetan parte hartzeko prest dauden arren, ez dute zuzendaritzan edo elkartearen kudeaketan sartzeko interes handirik erakusten.

## Herrian oihartzunik ba al du elkarteak? Asteburuetan, esaterako, jende asko biltzen al da?

Ekintza berezirik ez dagoenean larunbat arratsalde-gauak eta igande goizak dira jendetsuenak. Momentu batzuetan ia ezinezkoa izaten da lekua aurkitzea. Hala ere, ekintzaren bat antolatuta dagoenean etortzen da jende gehien. Uztailean egiten dugun "El Rocío" jaia da arrakastatsuen. Euskal Herriko txoko eta estatuko txoko desberdinetatik etortzen da jendea.

## Emilio Martínez-Lázaro zuzendariaren 8 apellidos vascos filmaren eszenatoki ere bihurtu zen elkarte egun batzuetan. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Hiru egun iraun zituen grabaketak. Zuzendaria Andaluziaren antza izan zezakeen lokal baten bila zebilen, hara joan gabe. Horregatik jo zuen guregana. Elkarte kide askok filmean agertzeko aukera ere izan zuten eta oso esperientzia polita izan zen, baina egunerokotasuna hankaz gora jarri zuen eta pilotutako jende kopuruarekin momentu batzuetan beldurtu ginela onartu



Rafael Gomez, Al-Andalus zentroan. | JA

**"Udalarekin oso erlazio ona izan dugu beti, ezin gaitetzke kexatu"**

**"Nire agintaldia amaitu da eta beste erritmo bat behar dut orain"**

**"Zuzendaritzan edo ez, Al-Andalusen inguruan lanean jarraituko dut"**

beharra daukat. Kontuak kontu, giro ederra izan genuen.

## Gainontzeko herrietako elkarteekin nolako harremana duzue?

Euskadiko etxe andaluziarren federazioan (FARAE) eta Gipuzkoako Etxe Erregionalen federazioan integraturik gaude. Bigarren honekin hitzarmen bat sinatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Diru laguntza bat jaso dugu ekintzak antolatzearen truke. Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen ditugu, bai Arrasaten, baita bi federazioekin elkarlanean ere.

## Zer nolako erlazioa izan duzue udalarekin urte hauetan zehar?

Erlazio oso ona izan dugu uda-

letxean indarrean egon diren alderdi politikoeekin, edozein izanda ere. "Rocío"aren festan, adibidez, karpa muntatzen digute. Musakolako alkatetzarekin ere hartu-eman estua izan dugu eta jarraitzen dugu izaten. Horren erakusgarri da orain hiru urte Zigarrolako jaietan gurea parte hartze gehien duen elkarte izendatu izana. 24 urtean ez dugu kexatzeko arrazoirik izan, beraien lankidetzan izan dugu guk, eta beraiek gurea.

## Zerk eraman zaitu presidente kargua uzteko erabakia hartzera?

Elkarte sortu zenean presidentea nintzen eta kargu bera dut orain ere, uztea erabaki dudana momentuan. 24 urte hauetan bi urtean soilik ez naiz zuzendari batzordean egon eta presidente karguan 19-20 urte egon naiz. Nire lana egin dudala uste dut, eta orain beste eginbehar batzuk ditudala, orain arteko erritmoarekin jarraitzeko oztopo izango liritekeenak. Erretiratu egin naiz eta baita aitona egin ere. Ez dago inolako arrazoi arrarorik nire erabakiaren atzean, nire agintaldia amaitu da, eta beste erritmo bat behar dut orain bizitzeko.

## Karguan ez egotea faltan botako duzula uste duzu?

Ez dut uste. Dena den, gure estatutuek diote kargua utzi eta hiru urtean ezin izango naizela kargura itzuli. Ikusiko dugu denbora tarte hori pasata nola egongo den elkarte. Hala ere, zuzendaritzan egon edo ez, garbi dut Al-Andalusen inguruan jarraituko dudala aurrerantzean ere.

# Keu Agirretxea eta Mikel Arakistain, Kooltur-erako gonbidatuak eguenean

## Popa, folk amerikarra, countrya eta bestelako doinuak entzuteko aukera egongo da gaztetxean, 22:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kooltur Ekintza taldearen Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan goi mailako musikariak izango ditugu aste honetan ere. Psychophony, Etsaiak, Zain, Fjord, Uek, Governors eta beste hainbat proiektutan ibilitako Keu Agirretxea gitarra jotzaile ezagunak gaztetxera ekarriko ditu bere azken doinuak. Eguenean, Mikel Arakistain aspaldiko laguna eta bidelagun leiala izango du ondoan.



Keu Agirretxea musikari beterranoa gaztetxean izango da eguenean. | HOTSAK.COM

### Abesti biluziak, benetakoak

Keu Agirretxea musikari beterranoa popa zentzu zabalean lantzen dihardu azken proiektuan. Horregatik esan daiteke Ondarroako musikariaren kantuek bakarrik defendatzen direla, abestiak biluziak bezain benetakoak direlako. Musikaz gain, ahotsa ere asko landu eta zaintzen du eta hori igartzen da zuzenekoetan.

Agirretxeak 2013ko azaroan kaleratu zuen *Behe presioaren erdigunean* diskoan nabardura zehatzak gehitu dituzte Ondarroako musikariak eta haren bidelagunek, inoiz baino gehiago, kantuek eskatzen duten tamaina

justuan: popa, folk amerikarra, countrya, bossa, latinoa... Hori eta askoz ere gehiago ekarriko dute gaztetxera, izan ere, hitz ederrak biltzen ditu lanak.

Gaien artean daude hutsunea, oroimenak eta elkartasuna eta, besteak beste, Leire Bilbao, Mikel Etxaburu eta Aiert Goenaga ondarrutarren hitzek jantzi dituzte abestiak. Beraz, eguenekoa goi mailako emanaldia izango da; 22.00etan puntuan hasiko da kontzertua eta, ohi moduan, bost euro ordaindu beharko da sarrera.

### Hurrengoa, Sonido Vegetal

Martxoko Kooltur Ostegunak Sonido Vegetal taldeak itxiko ditu, hilaren 27an. *Las bases del razonamiento* izeneko azken diskoa aurkeztuko dute gurean Gypsy punka egiten dute, ondo landutako musika dantzagarria.

Pello Garai | Ingurumen teknikaria

## "Ea oraingoan eguraldiak laguntzen digun auzolanerako"

J.B. | ARRASATE

Hilaren 29an Kurtzetxikin egingo diren auzolanen gainean galdetu diogu Ingurumen teknikari Pello Garairi. Izena emateko modurik eraginkorrena da 943 79 68 48 telefonora deitzea. **Zer egingo da auzolanerako?**

Zapatu goiz horretarako lau lan izango ditugu batez ere. Batetik, goiko larrean dauden zuhaitz gazte batzuk babestuko ditugu, banan-banan, itxitura txiki batzuk jarritz. Bigarrenik, artadi batetik doan bide zahar bat berreskuratuko dugu. Hirugarrenik, konturatu gara goiko zelai horretan egin dugun itxitura bat nahiko gogorra dela eta pasabide batzuk irekiko ditugu animaliek bertatik igarotzeko aukera izan dezaten. Azkenik, umeei begira batez ere, artelan bat egingo dugu naturako elementuekin.



Pello Garai. | J.B.

### Ez da lehen saiakera Kurtzetxikin auzolana egingo dena, ezta?

Ez. Gabonen aurretik egitea zen asmoa baina oso eguraldi txarra egin zigun eta bertan behera uztea erabaki genuen. Ea oraingoan eguraldiak laguntzen digun auzolanerako, goiz-pasa eder bat pasatzeko.

## OHARRAK

### 1937AN JAIOTAKOAK

1937an jaiotako arrasatearrak hilaren 29an elkartuko dira. Izena emateko deitu 943 79 10 57 edo 943 79 66 11 telefonoeta

ra (Jose Riviere), 20 euro aldeztu aurretik ordainduta. Meza 12:30ean izango dute parrokiaren eta gero Hilarion jatetxean bazkalduko dute, 14:30ean.

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | [blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/](http://blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/) | [twitter.com/arrasatepress](https://twitter.com/arrasatepress)

## Mikel Otxoa: "Herriko jendea oso ondo portatu da gurekin"

1987xen akzidentie euki euen Mikel Otxoa mondrauetarrak Atotxa futbol zelaixen.

Ba, 1989ko martxuen 19reko omenaldixe organizau euen lagun talde batek. Ekitaldi nagusie futbol partidu bat zan: Real-Osasuna.

Herriko jentiekien oso pozik eta eskertute euen, baiñe Realakin... "Herriko jendeak laguntza handia eskaini digu... Errealak hemen jendea mugitzen hasi arte ez du ezer egin, beren aldetik ez da ezer irten".

Omenaldireko animaute euen, baitte urduri be, eta istripuen ostien zelan bizi zan kontau euen: "Etxean gimnasia egiten dut, kalera joaten naiz, txanponak kolezionatu... Lehen futboleantzen nintzen; hasieran oso gogorra egin bazitzauden, ohitu egin behar, istripua izan duzula eta horrela geratu zarela onartu behar, ez dago besterik".

Etorkizunerako ez euen plan haundirik, ez euen gure planik egin: "Datorrena hartuko dugu".

### Mondraue, XX. mende hasieran

Holakotxie zan herrixe 1910. urte inguruen. Santa Barbararen babespeien agerketan da Mondraue historikue. Harresixen kanpokaldetik, barriz, San Frantzisko konbentue, Ugaran errekan erztien. Errekan gora juen ezkerre, ezkerretara Olarte kale dau eta eskumakaldien, Zarugalde; erdialdetik ezkerretutze, Portaloittik hurrien, Madalenako errebal zaharra eta Biteri eskolak. Eta ezkerrien, Zerrajerak Zaldibar inguruen jasotako lantegi haundixek. Indalezio Ojanguren eibartarrak atara euen argazkixe.

15. zenbakixe 1989-03-17



## PSE-EE: "Hondakinen inguruan Bilduren inposizioari babesa ematen ari da EAJ"

J.B. | ARRASATE

"Hondakinen gaiaren inguruan EAJk babesa ematen dio Bilduk duen jarrera inposatzaileari. Inposizioa herri honetako praktika politikoa izan dadin laguntzen ari da EAJ". Hitz horiek izan ditu, besteak beste, Arrasateko sozialisten ordezkari Paco Gartzia. Gainera, Bildu eta EAJk

organikoarendako bosgarren edukiontzia bederatzi hilabetez ezarri eta %70ko kopurua lortu ezean atez atekoarengatik ordezkatzeko dela salatu du Gartzia. Era berean, Bilduk instituzioetan eginiko lana kritikatu du Gartzia: "Bilduk ez du ezer egin instituzioetatik birziklatzeko kontzientzia sustatzeko", dio.

## Etorkinei eta baztertzee arriskuan daudenei laguntzeko proiektua

Udaleko Ongizate Zerbitzuak eta Ekin elkarteak *Arrasateetik mundura eta mundutik Arrasatera* izeneko proiektua aurkeztuko dute bihar Kulturategi areto nagusian (11:00). Etorkinen eta baztertzee arriskuan dauden personendako harrera, orientazio eta formazio moduluaren eta Auzoko programaren arteko proiektua da.

## Dragoi Txuriurdinak Realeko lagunartea aurkeztuko dute etzi

Arrasateko Dragoi Txuriurdinak Realeko lagunartea aurkeztuko dute etzi Santa Marina kaleko Bar Donostin, 19:30ean. Mikel Gonzalez *Gontxa* jokalaria arrasatearra eta Jose Angel Valdes *Cote* izango dira besteak beste, ekitaldi horretan. Iazko irailean sortu zen Dragoi Txuriurdinak lagunartea, baina etzi egingo dute aurkezpen ofiziala.

## Azken egunak Autoa Garajejan programan izena emateko

M.B. | BERGARA

Martxoaren 31n bukatuko da Autoa Garajejan programan izena emateko epea eta, beraz, autoaren kontribuzioan %75eko hobaria eskuratzeko. Dagoeneko 587 pertsonak eman dute izena. Eskaera hauek jaso dira, guneka: Osintxun, bi; Angiozarren, hiru; hegoaldean, 55; iparraldean, 66; erdialdean, 367; eta Bolun, 94, hain zuzen ere.

Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko, jo Udaltzaingora -08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara-. Txanda hartzeko 943 77 91 06 telefono zenbakira ere dei egin daiteke.



Pegatina itsatsita auto batean. | M.B.



Autokarabanen gunean dagoen moduko panelak jarriko dituzte autobus geltokian eta hilerri kanpoan. | MONIKA BELASTEGI

# Eraikin gehiagotan jarriko dituzte informazio plakak

Herriko sarreretan dauden panelak aldatu egingo dituzte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Duela bi urte hasitako lanari jarraipena eman eta herriko zenbait guneri eta eraikini buruzko informazio-seinaleak jartzten dihardu Udalak.

### 30 seinale eta sei panel

Aurretik hogeita plaka eta lau panel jarri zituzten eta oraingo honetan beste hamar plaka eta bi panel jarriko dituzte. Horrekin batera,

aurreko aldian jarri barik geratu ziren San Pedro eta Santa Marina parrokiak eta Aroztegi etxeko plakak ere jarriko dituzte.

Honako eraikinetan jarriko dituzte seinaleak edo plakak:

epaitegian, Mizpildiko harategi-arrangegi publiko zaharrean, Iturbe etxean, Errotalde jauregian, Errekalde jauregian, Azedo Loiolan, Trinitateko komentuan, Bereterion, Iturritxon eta Sequera-Gerendainen.

Eta bi panel jarriko dituzte: Angiolillori buruzkoa eta alde zaharrari buruzkoa.

Horrez gain, autokarabanen dako gunean jarrita dagoenaren moduko panela jarriko dute autobus geltokian eta kanposantuko sarreran.

Bestalde, herriko sarrera-irteera nagusietan ongiatorria ematen duten panel zaharrak kendu eta berriak jarriko dituzte.

Seinaleok bi helburu betetzen laguntzen dute: alde batetik, herriko monumentalitatearen gaineko oinarriko informazioa herritarren artean hedatzea. Horrek, azken batean, herria hobeto ezagutzen, maitatzen eta baloratzen laguntzen du. Bestetik, herrira bisitan etortzen direnei herrian kokatzen lagunduko die. Are gehiago, nor bere bisita antolatzeko eta egiteko erraztasuna ere ematen dute panelok.

### Jolastu eta irabazi

Esandako etxeetako asko oso eza-gunak dira; ez, ordea, haien ize-nak. Bada, etxe horien argazkiren bat [turismoa@bergara.net](mailto:turismoa@bergara.net) helbidera bidaliz gero, Bergara Pass deskontu txartela eta erreileoak eskuratzeko zozketan parte har daiteke, hilaren 31ra arte.



Ioldi, finalaurreko partiduan. | JAGOBA DOMINGO

## Ioldik eta Artolak Soralueko finalean neurtuko dituzte indarrak

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Duela bi aste Ioldik finalerako txartela lortu eta gero, aurrekoan Artolak lortu du pasea. Dударik gabe, gazte mailan dabilen Altuna izan da sorpresa txapelketan. Azpiriren kontra ere partidu bikaina jokatu eta gero, martitzenean bere mailarik onena erakutsi zuen.

Pilotari beteranoak hasieratik partidua kontrolpean izan zuen. Ia ordubete iraun zuen partidua final itxura izan zuen eta puntu bakoitza oso borrokatua izan zen. Ea bihar, martitzena, Ioldiren eta Artolaren arteko norgehiagokan ikusleek horrelako lehia biziarekin gozatzeko aukera duten.

Hain zuzen ere, bihar, 19:30ean, jokatuko dira nagusi eta promes mailako Soralue txapelketaren finalak, Udaltzaingotik.

### Promes maila

Promes mailako pilotariak ere ikuskizun galanta eskaini zuten aurreko astean.

Izan ere, Arteagaren nagusitasuna nabarmena izan zen arren, sufritu ere egin zuen: hain zuzen, seigarren tantoa egin zuen arte, atzetik joan zen markagailuan, bere akatsengatik. Edozelan ere, partidua galdutzat eman beharrean, egorri buelta eman eta 22-17 irabazi zuen Udaltzaingotik.

## Dendariekin bat, azoka biziberritzeko

Azoka Bergaratzeko ekimenaren barruan, udal ordezkariak herriko dendariei azoka biziberritzeko egitasmoaren xehetasunen eta helburuen berri eman diete. Batzarra egun arratsaldean, martxoaren 13an, egin zuten, Bagara elkarteak eta Udaltzaingotik. Martxoaren 19an herri eragileekin egingo dute bilera.



GOIENA

### Pol-Poleko beteranoen eta eski sailekoen irteera asteburuan

Pol-Poleko beteranoek Berrotatik Berastegira egingo dute irteera hilaren 23an. Egun osoko irteera da eta txartelak 20 eurotan daude salgai. Asteburu berean mendiko eski sailekoak Val d'Aranera joango dira. 18a da izena emateko azken eguna eta egun horretan, 19:00etan, bilera egingo dute irteera prestatzeko.

### San Joxepe elkarteak Kataluniara txangoa antolatu du

San Joxepeko erretiratuek irteera antolatu dute Kataluniara. Irailaren 17tik 23ra. Eta, besteak beste, Bartzelona, Montserrat, La Garrotxa eta Roses txoko esanguratsuak bisitatu dituzte. Gauzak ahalik eta ondoan antolatzeko, komeni da izena ahalik eta azkarren ematea. Horretarako, eta informazio gehiago jasotzeko, jo elkartearen bulegora.

### Poltsa konpostagarriak erosteko denden kopurua hazten doa

Denda hauetan eros daitezke: Aliprox Mintegi, Autoservicio Zapaterikua, Ekilur, Gaztelu, Mujika eta Gisasola burdindegia, Gorosti eta Ninika loradendak, Igaro, Ikasbi liburu denda, Imaz harategia, Imprespal, Mgusta fruta denda, Mujika gozotegia, Tripontzi-Ogiberri, Txikuri belar denda eta Xuxu arropa denda.



Aitor Arantzabal | Jarduneko lehendakaria

## "Gaztetxearekin elkarlanean, helduen bertso eskola abian da"

- ▶ 2013a oparoa izan dela jaso du Jardunek egindako urteko batzarrean
- ▶ Euskara elkarteak aurtengo egitasmo berriak ere aurkeztu ditu

MAIDER ARREGI | BERGARA

Aitor Arantzabal iaz aukeratu zuten Jardun euskara elkartearen lehendakaria. Egun, 584 bazkide ditu euskara elkarteak. Arantzabalek parte-hartzea azpimarratu gura izan du. Jarduneko lehendakariak egitasmo eta erronka berrien gainean dihardu ondorengo lehenetan.

**Urteko batzarra egin duzue eta, besteak beste, iazko erreposoa egin duzue. Nolakoa izan da 2013a? Ze balorazio egiten duzue?**

Jarduera edo egitasmoei dago kienez, urte oparoa izan zela esan genezake. Egitasmo ugari, askotarikoak eta parte-hartzaileak egin genituen. Urteroko egitasmoekin segitzeaz gain, ekintza berriak ere jarri ditugu martxan. Adibidez, urte batzuetako etenaren ostean eta gaztetxearekin elkarlanean, helduen bertso eskola martxan jarri da eta webgune berria sortu dugu.

**Egitasmoen helburuak bete direla esan dezakezue?**

Egitasmo guztiak daude hizkuntzaren ezagutzan, erabileran eta motibazioan eragiteko norabidean antolatuta eta helburu hau betetzen dela uste dugu. 2013ko egitasmo berrien inguruan bertso eskolarekin ahozkoasuna lantzea eta bertsozaletasuna eta haren transmisioa bultzatzea izan dira helburuak; eta helburuak arrakastaz betetzen ari dira. Webgune berriak dinamikoak eta parte-hartzaileak izatea du helburu, bazkideekin eta herritarrekin

harremana izan eta egonkortzeko. Egitasmoa gorpuzten ari da eta helburuak poliki-poliki beteiko direla espero dugu.

**Krisiak gogor jo du eta igarriko zenuten. Nola eragin dizue?**

Egoera ekonomikoaren krisiak elkarlanean eragina izan du, gizarte alor guztietan izan duen moduan. Elkarlanean ekintzak aurrera ateratzeko diru laguntza txikiagoarekin moldatu behar izan dugu. Egoera honek finantzazioaren inguruko hausnarketa egitera eraman gaitu. Argi dagoena zera da, autofinantzaketaren sistema berriak aurkitu behar direla. Ezin gara diru laguntzen eta nork aginduko duen menpe egon. Eta alor honetan ere elkarlanean badauka lan bat egiteko.

**Zuzendaritzako kideen artean aldaketak izan dira. Zeintzuk?**

Zuzendaritza talde berak jarraituko du, baina kide bat gutxiagorekin.

**2014rako ze asmo berri dituzue esku artean?**

2014ari begira, antzerki eskolan helduen taldea sortu dugu. Hizkuntza eta ahozkoasuna lantzeko eta aberasteko oso baliagarria

**"Webgune berria dinamikoak eta parte-hartzaileak izatea gura dugu"**

den ekintza da eta herritarrak bertan parte hartzea animatzen ditugu. Bestalde, 2013ko urrian eta azaroan Udalarekin eta Uemarekin elkarlanean euskararen arnaguneen tailerrak egin ziren. Bertatik atera zen ondorioetako bat izan zen herriko eta, bereziki, merkataritzako, hizkuntza paisaian azken urteetan euskararen presentzia murriztu egin dela. Udalarekin eta herritar talde batekin batera, egoera honi buelta emateko proiektu berri bat sortu eta garatzen ari gara.

**Ohiko jarduerekin jarraitzeko asmoa ere izango duzue, dena den.**

Bai, urteroko egitasmoetan ez dago aldaketa nabarmenik.

**Azken urteetan herriko aisialdia gero eta gehiago kudeatzen ari zarete –gazteleku dela, udaleku irekiak...–. Jardun hori zabaltzeko asmorik bai?**

Jardun azken urteetan aisialdiko zerbitzuak eskaintzen aritezaren arrazoi nagusia da aisialdia haur eta gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko modu eta esparru eraginkorra dela uste dugula. Ez da aisialdi zerbitzu soila. Jardun Bergarako euskara elkarte izanik, bere eragin esparrua Bergarara mugatzen da.

**Etorkizunaren gaineko hausnarketa prozesua ere abiarazi duzue zuzendaritzan. Zergatik eta ze helbururekin?**

Euskara elkarteok egungo egoerara moldatu behar dugu, ezin dugu orain dela 30 urteko, eus-



Aitor Arantzabal, Jardun euskara elkartearen lehendakaria. | MONIKA BELASTEGI

kara elkarteak sortu ziren garai-ko, moldeekin jarraitu. XXI. mendeko euskara elkarte erabe-

rritu bat nahi dugu, bazkide eta herritar guztien parte-hartzearekin. Eta horretarako, hausnarketa prozesu baten beharra ikusi genuen. Etorkizunari begira, garai bateko ilusioa sortu behar da herrian. Euskaraz bizi izateko gogoa eta beharra berpiztuta. Euskara denen ahotan egon dadin, ez euskarari buruz hitz egiteko, baizik eta euskaraz hitz egin eta euskaraz bizi izateko.

**"Autofinantzaketan bide berriak bilatu behar ditugu aurrera egin ahal izateko"**

## Erretiratuek aukera izan dute Aldundia barrutik ezagutzeko

Ekimenaren helburua herritarren arteko harremana gertukoagoa izatea da

E.A./M.A | BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundia barrutik ezagutzeko aukera izango dute herritarrek aurrerantzean. Dagoeneko hasi dituzte bisita horiek, eta bergararrak izan dira ekimena estreinatzen lehenengoak; zehazki, Bergarako erretiratuak.

Aldundiak herritarren eta erakunde publikoaren arteko harremana gertuagoa izatea nahi du, eta helburu horrekin jarri du martxan ekimen berria. Hala, Donostian duen jauregia bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute herritarrek eta jauregiaren historia, aretoak eta bertan gordetzen den ondareaz gain, eguneroko funtzionamendua ezagutzeko aukera ere izango dute.



Herriko erretiratuak, Aldundian egindako bisitan. | GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Begarako erretiratuak izan dira bisita egiten lehenak. Bi autobus joan dira, eta, bisita gidatuarekin batera, Martin Garitano ahaldu-

nagusiarekin berba egiteko aukera ere izan dute. Erretiratuek euren esperientzia kontatu diete agintariei.

### NIRE USTEZ



JON SUINAGA

'Gurea' da 'Nirearen' bermea

Ez gara santuak, ez... baina ezta hain gaiztoak ere. Fagor-Etxetresnaren jaietsieraren ondorioz, batzuk adarrak eta buztana jarri digute kooperatibistei. Akaso, ez dira erabaki egokienak hartu; eta elkartasuna, taldetik emandako laguntza handia eta esfortzu guztiak ez dute balio kooperatibismoren Bandera-Untzia salbatzeko. Gertatutakoarekin ikasi, hausnartu eta neurriak hartu behar dugu.

Errentagarria izatea beharrezko helburua da; etekinak ez badaude ez dago ezer egiterik. Zelan lortu eta zer egin irabaziekina da Taldeko Kooperatibak

bereizten duena. Antolaketa eta parte-hartzaile demokratikoa baino gehiago dira Kooperatibak. Inguruan aberastasuna sortu, hezkuntza bultzatu, lanpostu duinak sortu, euskara sustatu edo elkartasuna gure eredu batzuk dira gizarte eraldatzeko.

Galera indibidual handiak izan ditugu; baina kezagarriagoa da galera kolektiboa. Ez badugu lehenesten eta indartzen "Gurea", aurrerago ez dugu izango "Nirea". Lan tinko eta gogor egin behar dugu eta behar diren akzioak eta esfortzu indibidualak egiteko prest egon behar gara gure enpresak eraginkorrak, errentagarriak eta sendoak izan daitezten.

Oztopo guztien arren, Talde Kooperatiboa osasun oso ona du eta printzipio eta balore kooperatiboak inoiz baino beharrezkoak dira. Horregatik, zenbat ikaskuntza hitz egiten dudana galdetzen didatenean, 3 eta erdi erantzuten dut: ingelesa –erdi–, euskara, gaztelania eta musika.



Gure Arbola Zaharra elkarteko antzerki taldeko lagunak. | PAKE LEKU

## Udaberriari ongiatorria egiteko, ekintzak Pake Lekun gaur hasita

Poloniarako bidaiarako izena eman daiteke, gaur eta eguaztenean

JULEN IRIONDO | OÑATI

Udaberria hemen da, eta, ohi bezala, Pake Leku elkarteko lagunak ongiatorria egingo diote; hainbat ekintza antolatuta dituzte aste honetarako: antzerkia, abesbatzak, hitzaldia, bingoa eta baita irteera bat ere.

Gaur –astelehena– bertan hasiko da egitaraua. 18:00etan hasita, emanaldia egingo dute agustindarren elizan Pake Leku-ko Aloña abesbatzak eta Donostiako Kantuz Bizik.

Martitzenean, berriz, diabetesaren gaineko hitzaldia izango

da erretiratuen elkartearen egutzan. Isabel Arenatza eta Kiskitza Alustitza izango dira hizlari, anbulatorioko erizainak biak. 17:30ean izango da.

Antzerkiaren txanda eguaztenean izango da. Gure Arbola Zaharra erretiratu eta pentsio-

dunen elkarteko taldeak *Vaya lio de padres* izeneko lana ekarriko du Gernikatik. Lehenago ere Oñatin egondako taldea da Bizkaikoa, Pake Lekuko antzerki taldearekin trukea egiten dute eta –Ikusi Makusikoak iaz izan ziren han–. Santa Anan izango da emankizuna, 17:00etan hasita, eta sarrera doan izango da.

Eguenean eta egubakoitzean izango dira egitarauko azken bi ekintzak. Opari zozketa eta guzti eguenean egingo duten bingo bereziaren ostean –Pake Lekun, 17:00etan–, egubakoitzean irteera egingo dute Arantzazura. Aizkorri-Aratzeko parketxea eta santutegiko klaustroko argazki bilduma ikusiko dituzte bertan.

### Bidaia eta batzarra

Aste honetarako, kontuan hartu beharreko beste batzuk ere badituzte Pake Lekun. Honela, gaur eta etzi –18:00etatik 20:00etara– eman ahal izango da izena elkarteko bulegoan ekain bukaeran Poloniara egingo duten bidaiarako. Ekainaren 30etik uztailearen 7ra izango da bidaia, eta Polonia-ko hiri eta bestelako leku esanguratsuak bisitatuko dituzte. Izena emateko 1.130 euro ordaindu beharko dituzte bazkideek; eta 70 gehiago, ez direnek.

Bidaiarako izena emateko aukera, beraz, aste honetan, eta baita Pake Lekuren batzar orokorra ere: egubakoitzean izango da –Arantzazutik bueltan–, 17:00etan lehen deialdian eta 17:30ean bigarrenetan.



Langile bat sarbidea zabaltzeko lanak egiten. | O.E.

## Santa Anako sarbidea zabaldu dute larrialdi zerbitzuak pasatzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Foruen plazatik Santa Ana antzokira doan bidearen sarrera handitu, zabaldu, egin dute. Horretantxe ibili dira langileak aste honetan.

### Larrialdi zerbitzuak

Larrialdi zerbitzua pasa ahal izateko egin dituzte zabaltze lan horiek.

Santa Anan ezbeharren bat gertatuz gero eta larrialdi zerbitzuen beharra izanez gero, orain arteko bidea estuegia zen ibilgailu konkretu batzuk bertatik pasatzeko. Suhiltzaileen beharra izanez gero, adibidez, kamioi horiek ezingo lukete

pasatu sarbide horretatik. Gauza bera gertatzen zen saneamendu lanak egiteko kamioi handi baten edo garabi baten premia zegoenean, adibidez.

Hemendik aurrera, ordea, ibilgailu handi horiek ere ondo pasa ahal izango dira plazatik antzokira.

Joan den astelehenean hasi zituzten zabaltze lanak, eta herriko enpresa batek egin ditu. Alde banako paretak apurtu eta berriak egin dituzte. Metro bat txikiagoak dira egun, luzeran. Albo bietako zutabeak, gainera, desplazatu egin dituzte. Itxura bera izango du, beraz, sarbide horrek.

## Moneta sozialaren gaineko bilerak deitu ditu Udalak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Jakinekkoa da Udalak ahalegina egin gura duela Oñatin bertan kontsumitzera animatzeko herritarrak, eta, horren bidetik, moneta soziala izeneko proiektua lantzen dabilela. Bada, jakinarazi berri dute arduradunek proiektua jendaurrean noiz aurkeztuko duten: eguenean, hilak 20, proiektua azaltzeko eta, bide batez, herritarren iritzia jasotzeko, batzar irekia egingo dute.

Bi deialdi izango dira: bat 10:00etan eta bestea 15:00etan. Biak kultur etxean izango dira.

Udalak "garrantzia" eman gura dio gaiari eta, hori dela eta, ahalik eta jende gehiena animatu gura du bertara joatera. Izan ere, honakoa dio Udalak: "Ezinbestekoa ikusten dugu herriko merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzuetakoen partaidetza eta inplikazioa".

### Enplegu ikastaroak

Bestalde, azken egunak dira Udalak antolatu dituen enplegu ikastaroetan izena emateko. Martxoan eta maiatzean egingo dituzte. Argibideak: 943 03 77 00.

## Herri mailako ehiza txapelketarako izen-ematea zabalik eguenera arte

O.E. | OÑATI

Datorren zapatuan, martxoak 22, jokatu dute, Zanbranan, herri mailako ehiza txapelketa. Interesa duenak eguna aurretik eman behar du izena Alzu dendan.

### Baldintzak

Ehiza txapelketa horretan parte hartzeko bete behar diren bal-

dintzak hauexek dira: ehiza baimena eguneratua izatea, federazio txartela edukitzea eta txaleko islatzailea jantzita eramatea txapelketa egunean.

Prezioei dagokienez, Pago Usoko bazkide denak 35 euro ordaindu beharko ditu eta bazkide ez den ehiztariak, berriz, bost euro gehiago, 40 euro.

## NIRE USTEZ

JOSE LUIS  
MADINAGOITIA



## Itsas bidesari gogorra

Euskal kostaldean era askotako lanak egin dira azken urteetan: itsas pasealekuak, kirol portuak, malekoiak, zubiak, eta abar. Baina giza-kiak eskatu zion baimena gune horien jabeari lan horiek egiteko? Litekeena da ezetz.

Jabe hori, baina, haserretu egiten da tarteka eta aurtengo neguan izan ditugun denbora-leak eta halako fakturak pasatzen dizkigu. Modu askotariko alarmekin abisatzen diguten zaindariak jarri arren, jabe horrek gogorarazi egiten digu egun eguzkitsu batean bere baimenik gabe berea zen zati bat kendu egin geniola.

Horrela, EAEn 40-50 milioi euroko aurrekontua duten kalteak berreraikitzea pentsatzen ari gara.

Eta zertarako? Lehen genuen bera eraikitzeko? Horrela bada, itsasoa berriro haserretuko da, bere baimenik gabe eraikiko dugulako berriro. Gainera, ez dira esaten ari itsasoaren maila jaitsi egingo denik, alderantzizkoa baizik, igotzen joango dela.

Ez litzateke gaizki egongo hausnarketa serio bat egitea pentsatzeko ea benetan merezi duen lehengo akats berean erortzea edo puntu hauek kontuan hartzea, etorkizunari begira: espazioak berriro diseinatu, eraiki behar diren lanen dimentsioak berriro neurtu, erabili behar diren materiala ondo aukeratu...

Zurriola-Sagües hegal-paseoaren proiektua oso gutxi aipatu da. Zer gertatuko litzateke egingo balitz? Ez dugu jakingo, baina hobe horrela.

## "Itsasoaren baimenik gabe eraikiz, berriz haserretuko da"

Apuntatzeko azken eguna martxoaren 20a da eta Alzun egin behar da, Arantzazuko Ama kalean dagoen ehiza eta arrantza denda, ohikoa den moduan.

### Iazko txapelketa

Javier Verak irabazi zuen iazko herri mailako ehiza txapelketa. Zazpi eper eta faisai bat ehizatu zituen. Bigarren postua Antonio Zurututzarendako izan zen eta hirugarrena, Eneko Arabaolatza-arendako. 33 ehiztarik hartu zuten parte iazko txapelketan.

## ESKORIATZA

Jose Mari Kortazar | Olazar erretiratuen elkarteko presidentea

## "Oso lantalde ona dago eta horiek egindakoari jarraituko diogu"

Eguaztenean egin zuen Olazarrek batzarra eta bi urterako hartu du kargua

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Joan den eguaztenean egin zuen Olazar erretiratuen elkarteak batzar orokorra eta Jose Mari Kortazar izendatu dute presidente datozen bi urteotarako.

**Hartu berri duzun karguari aurre egiteko animatuta?**

Bai horixe. Oso lantalde ona dago, eta orain sartu garenok aurrekoek egindako bideari jarraituko diogu; izan ere, urte guztirako ekin-tzak zehaztuta dituzte eta ezer berririk asmatu beharrik ez dago. Futbol taldeetan esaten den moduan ondo dabilenean zergatik aldatu.

**Zurekin batera zeintzuk osatuko duzue zuzendaritza batzordea?**

Nirekin batera sartu dira Pedro Bengoa eta Montse Masip; eta jarraitzen dutenak dira: Mari Verdejo; Mari Jose Salas (idazkaria); Manuel Mata; Marmolejo (presidenteordea); eta Jasone Orbegozo (diruzaina).

**Zenbat bazkide zarete?**

634 gara egun eta zabalik gaude herriko edozein erretiraturari. Urteko kuota 7 euro da, eta 85 urtetik gorakoek ez dute ordaintzen.

**Urterako zein egitarau duzue?**

Esandako moduan aurreko batzordeak zehaztuta utzi du guztia. Bidaiak ditugu: luzeak bi, maiztzean Portugalera eta urrian bigarrena, eta gero egun bakarrekoak asko; hitzaldiak: memoria lantzeko tailerra maiztzean... Mahai-joko txapelketetara joaten gara; eta ospakizunak ere badi-



Jose Mari Kortazar Olazar erretiratuen elkarteko atean. | M.A.

tugu: 80 urtetik gorakoen afaria uztailean... Gure helburua erretiratuei disfrutatzeko aukera ematea da, baina beti ere ahaztu barik aspektu soziala; krisi don-tsu hau dela-eta egoera larrian daude asko, eta orain arte lortutakoa ez dezagun galdu aldarrikatuko dugu.

**Zein ekintza da arrakastatsuen?**

**"Bidaiak izugarritzko arrakasta dute, Portugalera bi autobus doaz"**

Bidaiak, zalantza barik. Joan den astean zabaldu zuten Portugalgo bidaiarako izenematea eta bi egunetan bi autobus bete dira, 92 lagunek eman dute izena. Oso bidaia interesgarriak antolatu izan dituzte orain arteko batzordekideek, eta guk ere lan handia egin beharko dugu horretan.

**Bertako zerbitzuekin pozik daude bazkideak?**

Bai. Podologia zerbitzua dugu eta aholkularitza juridikoa ere bai. Eguenetan mahai-jokoak egiten dituzte tabernan eta dantzak ere baditugu. Erretiratuen egoitzara familiaritatekin etor daitezke bazkideak, bazkaltzera esaterako, eta ondo funtzionatzen du.

## NIRE USTEZ

AITOR AGIRIANO



Zer moduz?

**P**ertsona ezberdinekin topo egin eta protokolo bat jarraitu behar izango bagenu bezala, bi hitz ateratzen zaizkigu ahotik, "zer moduz?"

Benetan axola ote digu bestea nola dagoen jakiteak? Gehienetan bost axola zaigu. Galdezteagatik galdetzen dugu, eta erantzuteagatik erantzuten dugu ondo gaudela, baina, batez ere, hitz-egiteko gogorik ez dugunean egoten gara ondo.

Erantzuteko, ordea, hitz bakar horrekin ez da nahikoa izaten, "ondo, eta zu?" gaineratu behar izaten da. Ondoren

interesatzen ez zaigun beste "ondo" bat entzun, pozten garelako adieraziko duen zeinuren bat egin eta bakoitzak bere bidean segituko du aurrera. Hala ere, "gaizki" esan eta ingurukoak izorratzeko abilezia duten batzuekin ere egin izan dugu topo. Lan gehiegi, bihar-muna, aurpegian ateratako grano hori txoriak gainean egindako kaka eta... Edozerekin depresioari atea irekitzen diotenekin.

Mundua geuk gizendutako arazoz bete dago. Aspertuta bazaude, eman menditik buelta bat, pilates, kapoeira, spinning... bezalako ikastaroetan izena eman, baina, ez biktimis-moan murgildu. Denok izaten ditugu egun txarrak eta horregatik ez gara leihotik behera botako. Aurrera egiten lagunduko digun zerbait bilatzean dago gakoa. Bilatzen duenak aurkitzen du. Eta zu, zer moduz?

## Eskiatzera joango dira aste bukaeran kirol elkarteak antolatuta

Eskoriatza kirol elkarteko Mendi Sailak urteroko eski irteera antolatu du. Datorren aste bukaeran izango da, martxoaren 22a eta 23a, eta Pantikosa aldera joango dira. Izena emateko azken eguna bihar da, martitzena. Prezioa, 135 euro helduek eta 100 euro 6 urtetik beherakoek. Argibide gehiago gura dituenak deitu dezala Namaste dendara: 943 71 43 27.

## Olazarko erretiratuak sagardotegira joango dira apirilaren 12an

Usurbilgo Aginaga sagardotegira joango dira Olazarko erretiratuak datorren apirilaren 12an. Tolosako azoka bisitatu, Donostian paseatu eta bazkaltzera joango dira gero sagardotegira. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago apirilaren 3a arte eta martitzen eta eguenean joan behar da erretiratuen elkarteko bulegora (11:00-12:30); prezioa 34 euro da.

## ARETXABALETA

## Garaiko elikadurari buruz jardungo dute bihar

Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak garaiko produktuekin menuak gertatzen irakatsiko du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udaberrian sartzeaz gaude eta gero eta produktu gehiago ditugu ortuetan; baina ezagutzen ditugu? Eta zein menu gertatu? Kontu horien gainean jardungo du bihar, martitzena, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak Arkupen (19:00).

"Udaberrian zein produktu ditugun ezagutuko dugu, eta horiek zertarako diren egokiak jakin. Bakoitzari zein datorkion ondo jakinda menuak gertatzen ikasiko dugu", argitu du Diaz de Monasterioguren dietistak. Hala, hitzaldi praktikoa izango da, herritarren gogo eta galderetara moldatua. "Erosketa arduratsua- ren garrantzia azpimarratuko dugu, eta era berean elikadura arduratsua bultzatu. Hala, erositako produktuak zelan kozina-

tu pista batzuk ere emango ditut". Garaiko produktuekin batera urte guztian dauden produktuen kalitatearen gainean ere jardungo du dietistak, hala nola, ogiaren, olioaren eta esnearen gainean.



Ortuko produktuak. | DEBAGARIA

## Oroimenaren tailerra jarriko dute martxan eguenean, Basotxon

Joan den eguenean aurkeztu zuten oroimenaren gaineko tailerra Basotxoko erretiratuen elkarteak, Saroan enpresako kideek. 30 lagun elkartu ziren orduan, eta interesa dagoela jakinik datorren eguenean, hilak 20, martxan jarriko dute tailer hori (17:00). Izena emateko Basotxoko bulegotik pasatu behar da 11:00etatik 12:00etara.

## OHARRAK

## 'AGOSTO' FILMA GAUR ETA 'TODAS LAS MUJERES' EGUENEAN

Gaur, astelehena, *Agosto* filma emango dute Arkupen (16:00); sarrera, 2 euro. Eguenean, oster, zine klubaren barruan eta Emakumeen Egunaren bueltan antolatuta *Todas las mujeres* (Espainia, 2013) filma botako dute (19:30); sarrera, 4 euro.

## Ipuinak kontatzen ikasi eta orain umeei kontatu

M.A. | ARETXABALETA

Bihar bukatuko dute Loramendi elkarteak antolatutako ipuinak kontatzeko ikastaroa. 12 bat lagunek jardun dute Vanessa Gonzalez arrasatearraren gidaritzapean umeei zelan kontatu ipuinak ikasten, eta orain ikasitako hori praktikan jaritzeko ordua iritsi zaie. Hala,

ipuin kontaketa saioa antolatu dute umeendako, eta bihar egingo dute udaletxe zaharrean: 3 urtetik 6 urte bitartekoendako saioa izango da lehenengo, 18:00etatik 18:30era; eta 6 urtetik aurrerakoendako gero, 18:30etik 19:00etara. Herriko ume guztiak gonbidatu gura dituzte saioetara.



Vanessa Gonzalez ipuinak zelan kontatu erakusten. | LORAMENDI ELKARTEA

Yllana taldeak martxoaren 28an, barikua, egingo du *iMuu!2* ikuskizuna Elgetan. | YLLANA**ELGETA**

## Yllana, Zea Mays eta Golden Apple Quartet izango dira, udaberri hasieran, Elgetan

Kafe antzokiaren hamargarren urteurreneko ekitaldien barruan lehen lerroko hiru emanaldia iragarri dituzte Espaloitik, eta sarrerak salgai dituzte

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Ekain bukaeran egingo dituzte Espaloia kafe antzokian hamargarren urteurreneko ekitaldi nagusiak, baina bistan da lehen lerroko taldeekin emango diote-las hasiera udaberriari.

Martxoko egitaraua Yllana konpainia entzutetsuaren *iMuu!2* antzezlanaekin amaituko dute. Espaloiak 10 urte bete behar dituen moduan bete behar ditu 20 Yllanak. Hartu eman estua izan dute urteotan, eta esanahi berezia izango du martxoaren 28ko emanaldiak. Barreterapia ezin hobea izan da Yllana Elgetan, eta *iMuu!2* ikuskizuna ildo beretik joango da. Sarrerak salgai daude 12 euroan —leihatilan 15 euro—.

Zea Mays taldeak Anai Arrebak taldearekin batera egingo du emanaldia apirilaren 4an. Rock taldeak *Da* diskoa aurkeztuko du. Sarrerok ere salgai daude 8 euroan —leihatilan 10 euro—. Hurrengo egunean, apirilak 5, aurkezpenik behar ez duen Golden Apple Quartet taldeak *Bazen behin... Golden* ikuskizuna egingo du. Sarrerak salgai daude 15 euroan.



Zea Mays taldea apirilaren 4an, barikua, izango da Elgetan. | ZEA MAYS



Golden Apple Quartet apirilaren 5ean izango da Espaloian. | GOLDEN APPLE QUARTET

**ANTZUOLA**

## Independentzia Eguna ospatuko da hilaren 29an

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Aurtengo Independentzia Eguna martxoaren 29an ospatuko dute antzuolarrek.

Antolatzaileak festa aldarrikatzeko ekintzak prestatzen dihardute dagoeneko. Aurten ere base-ritar jantzita joateko deia egin dute. Urteroko bazkariak gain, egunean zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte: lehiaketak, jolasak, elektrotxar angarekin poteoa.

Gauean berriz, musika izango da protagonista gaztetxean. Hala, zuzenekoak eskainiko dituzte gauean Antzuolako eta Aiherrako bi taldek. Aukera aparta beraz, festaren aldarrikapena borobiltzeko.

Bazkarira joan nahi dutenek izena emateko aukera dute gaztetxean bertan. Tortilla txapelketan parte hartu gura dutenek ere izenematea zabalik dute. "Gaztetxeko paretan jarritako kortxoan bazkarirako, txandak egiteko eta tortilla

lehiaketarako izena emateko papera jarri dugu. Ea jendea animatzen den", azaldu digute antolatzaileek.

**Erretiratuen Bermeora**

Landatxopeko erretiratuek martxoaren 26an Bermeora egingo dute irteera. Bermeoko herria bisitatu eta ondoren Gatikara joango dira Lur jatetxean bazkaltzera.

Izena emateko ondorengo egunak jarri dituzte: martxoaren 18a eta 19a, 16:00etatik 18:00etara, ohiko tokian. Autobusak 60 lagunendako tokiak dauka. Prezioa 30 euro. Autobusa Antigua auzotik irtengo da eta bigarren geltokia Torresoroan izango da.

**ARAMAIO**

## Mugimendua sumatzeko kamerak plazara begira

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Udaletxeko horman, Bizente Goikoetxea plazara begira, kamerak jarri ditu Udalak. Kamera horiek plazako mugimendua bakarrik detektatzen dute, argiteria neurtzeko. Hau da, ez dute inolako grabaziorik eginen.

Ibarrako argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta merkatzeko, Udala 2013ko udazkenean hasi zen kaleko argiteria aldatzen. Horrekin batera, udaletxeko horman kamerak jarri dituzte: "Plazan mugimendurik ez badago, argi minimoa emango dute bertako farolek, baina, kamerak mugimendua sumatzen badute, argiaren intentsitatea handitu egingo da nabarmen. Oraingoan, probak eginen ari gara eta oraindik ez dira martxan jarri", adierazi du Udalak.

mendua sumatzen badute, argiaren intentsitatea handitu egingo da nabarmen. Oraingoan, probak eginen ari gara eta oraindik ez dira martxan jarri", adierazi du Udalak.

**Ekainerako sistema berria**

Led sistema jarri dute, intentsitate berbera askoz gutxiago kontsumituta eskaintzen duen sistema. Lehen fasean, Nardeaga kaleko eta Bizente Goikoetxea plazako argiak aldatu ziren, eta orain, bigarren fase baten, Ibargoia kaleari tokatzen zaio. Ekainerako sistema berria ezarrita egotea aurreikusten dute.



ARAMAIOKO UDALA

## Aldaik irabazi du kartel lehiaketa

Maidar Aldaik irabazi du Martxoaren 8ko kartel lehiaketa —argazkian haren ama ageri da kartela erakusten, Edurne Uribarren-Iturrieta zinegotziarekin batera—. Bigarren saria, berriz, Naia Bailezek irabazi du. 200 euro eta 100 euro irabazi dituzte, hurrenez hurren. Sari banaketa egiteaz gain, Berdintasun Planaren zirriborroa ere aurkeztu zuten.

**LEINTZ GATZAGA**

## Herritarren ekarpenak aztertzen hasiko dira

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Yoga ikastaroa tarteko, kultura etxean barik osoko bilkuren aretoan egin zuten joan den eguneko herri ekimena, aurtengo lehena. Bi lantalde antolatu, eta bertaratu ziren herritarrek aparkalekuekin eta txakur-kakekin herrian dauden arazoak gaineko azterketa egin eta ekarpenak bideratu zituzten. "Orain horiek aztertu beharko ditugu. Seguru aski biharko (martitzena) batzarrean hasiko gara hori

egiten", adierazi du Asier Ugartek, Hirigintza zinegotziak.

**Oraingo egunean, beste bat**

Eta ildo beretik egin dute oraingo asterako hitzordua, bigarren herri ekimenerakoa. 19:00etan hasiko da, kultura etxean edo osoko bilkuren aretoan (yogaren arabera). Eta proiektu estrategikoak izango dituzte berba-gaiak: aurrekontua, Gatzaga Gatzitzen, turismo bulego kontuak eta Gaztainuzketa gaurkotzen.



Eguneko herri ekimenean herritarrak berbetan. | IRATI GOITIA

# Goiena Klubeko martxoko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarra**  
**HARREMAN DENDARI** esker  
bidezko merkataritzako produktuez  
osaturiko otar bat zozketatuko dugu.  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Harreman



**argia**

**Jokoak**  
**Bizi Birzi eta Badakit**  
umeentzako joko pack bat  
Parte hartzeko sariaren izena:  
Jokoak



## Telebista

- 22 hazbeteko led telebista
- TDT eta Full HD
- USB HD Player eta HDMI

Parte hartzeko sariaren izena:  
Telebista

ARRASATEKO  
HIPERMERKATUA

**EROSKI**  
zurekin

### PARTE HARTZEKO:

**SMS:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**Telefonoz:** 943 25 05 05

**E-postaz:** kluba@goiena.com

**WhatsApp:** KLUBA [sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.  
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA



Guillaume Ducasse helmugara iritsi zen momentuan. | IMANOL SORIANO



Lourdes Oartzabal helmugara heltzen. | I.S.



Oñatiko Duatloian hainbat ikusle eta zale izan ziren probako parte-hartzaileei animoak ematen. | I.S.

## DUATLOIA

# Guillaume Ducasse eta Maider Gaztañaga irabazle

- ▶ 272 parte-hartzaile izan ziren eta horietatik 247k amaitu zuten proba
- ▶ Deskargako jaitsieran lokatza zegoen bidean eta erorketak izan ziren

IMANOL BELOKI | OÑATI

Guillaume Ducasse (Saltoki Tri-kideak) izan zen azkarrena zapatuko 23. Oñatiko Duatloian, 1:54:41eko denbora eginda. Emakumezkoetan, Maider Gaztañaga (Tolosaldeko TT) izan zen azkarrena, 2:08:12 markarekin. Taldekako klasifikazioan, Antxintxika taldekoak izan ziren lider,

denetara 5:52:00ko denbora behar izanda. Ander Agirre, Mikel Mujika eta Xabier Luis izan ziren talde horretako hiru parte-hartzaile azkarrenak.

Proba gogorra izan zen, baina maila bikaina erakutsi zuten irteeran izan ziren 259 parte-hartzaileek. Eguraldia lagun izan bazuten ere, Euskal Herriko pro-

ba zailenetakoa izan ohi da Oñatiko Duatloia eta 10 kilometro korrika, beste 40 bizikletan eta, bukatzeko, beste 5 korrika egin behar izan zituzten kirolariek.

Emakumezkoak hasi ziren aurrea, eta berehala aurreratatu zen 4-5 laguneko talde txikia. Hala ere, Maider Gaztañagak aldea hartu zuenean ezin izan

zuten harrapatu eta ihes egin ziren besteei lehenengo 10 kilometroetan.

Gizonezkoetan, berriz, maila orekatua izan zen, ez baitzegoen faboritorik. Gainera, ez zen inor nabarmen gailendu eta amaiera bikaina izan zen, emozioz betetakoa. Guillaume Ducasse izan zen garaile. Aurreko bi urteetan

hirugarren postuan sailkatu zen eta aurreko lehenengo postua eskuratu du.

### Erorketak Deskargan

Probako tramurrik arriskutsuena Deskargako portua jaitea izan zen. Obrak zirela eta, errepidea lokatzez zegoen, labainkor hainbat zatitan. Hori horrela, hainbat erorketa egon ziren, zorionez istripu larriak ez zirenak izan. Gurutze Gorriak bi duatleta atenditu zituen eta beste batzuek proba utzi behar izan zuten, kolpe eta kalanbreengatik.

### Antolakuntza bikain

Antolakuntzaren lana duatleta askok eskertu zuten, lan "bikaina" egin zutela esanez. Mikel Larrea antolatzailearen esanetan: "Oñati Triatloi taldeko kirolari asko daude laguntzen eta, horrez gain, 60-70 pertsonak ere kolaboratu dute; motorretan epaileak eramaten, bidegurutzetan seinaleztatzen... Eskerrak, denoi!"

**ANDER AGIRRE**  
ANTXINTXIKA




"Bigarren postuarekin korformatu behar, lehenengoaren bila joan arren. Frantsesa indartsuagoa izan da gaur. Dezente sufritu dut".

**LOURDES OIARTZABAL**  
ANTXINTXIKA



"Duatloi zirkuituetan Oñatikoa da gogorrena, baina gustukoena ere bai. Deskargan lokatza zegoen eta arriskutsua izan da, baina oso gustura nago".

**XABIER LUIS URZELAI**  
ANTXINTXIKA



"Espero baino hobeto sentitu naiz lasterketan eta gustura amaitu dut aurten. Aurkariak lagunak ditut eta dagoen giroa oso polita da, gainera".

**ITSASO LEUNDA**  
TOLOSALDEKO T.T.



"Berezia izan da; aspalditik egon naiz lehiatu gabe lesio larri baten ostean eta Oñatikoan bueltatu nahi nuen. Maila asko igo da urtez urte".

**EÑAUT FDEZ. DE LEZEA**  
SAIATUZ



"Urteko lehenengo lasterketa izan da niretzat. Hasieran indarrak gordetzen joan naiz eta bukaeran nahiko gogor sentitu naiz, egia esan".

## 24 | FUTBOLA | Aloña Mendik 2-2 berdindu du



**GUILLAUME DUCASSE**  
LEHEN GIZONEZKOA

**"Konfiantza  
nuen lasterketa  
ona egiteko gai  
izango  
nintzela"**

Guillaume Ducasse izan zen gizonzkoen artean lasterketa amaitzen azkarrena. Frantsesa da izatez eta Saloki taldearekin hartu du parte. Aurten hirugarren aldiz lehia-tu da Oñatiko lasterketan.

**Zer moduz sentitzen zara lasterketa amaitu ostean?**

Oso pozik nago azkenean Oñatiko duatloia irabaztea lortu dudalako. Nire hirugarren parte-hartzea da lasterketa honetan eta aurreko bi urteetan hirugarren sailkatu nintzen. Oraingoan, azkenean, irabaztea lortu dut. Nire ustez, gainera, Euskal Herriko duatloien artean onenatarikoa da Oñatiko hau. Horregatik, oso pozik nago hemen parte hartu eta batez ere irabazteagatik.

**Nola sentitu zara lasterketan?**

Aurten, nire ustez, hobeto prestatuta etorri naiz; nire buruarengan konfiantza nuen eta banekien lasterketa ona egiteko gai izango nintzela. Beraz, konfiantzaz etorri naitenez, hasieran tropelean ibili naiz beste parte-hartzaile batzuekin batera, eta azkeneko korrikako lasterketan indartsuena izan naiz eta irabaztea lortu dut.

**Nolako lasterketa iruditu zaizu?**

Lasterketa zaila iruditu zait. Parte-hartzaile askok bazekiten ondo prestatuta etorri naizela, eta kanpotik etorrira ere banaiz... Beraz, azkeneko zatira arte itxaron dut aurkariei aurrea hartzeko. Nire ustez, baneukan kalitatea besteak pixka bat atzean uzteko, eta horrela gertatu da. Oso pozik nago, eta datorren urtean berriro parte hartzea espero dut.

**"Euskal Herrikoen  
arte onenatarikoa  
da Oñatiko duatloia"**



**MAIDER GAZTAÑAGA**  
LEHEN EMAKUMEZKOA

**"Bizikletako  
zattia nahiko  
gogorra da eta  
niri asko  
gustatzen zait"**

Maider Gaztañaga izan zen lehenengo emakumea helmugara iristen. Tolosaldeko taldekidea da eta oso pozik zegoen lortutako emaitzarekin.

**Zer moduz joan zaizu lasterketa?**

Ondo. Egia esan, lasterketa hau beti da polita. Nahiko gogorra da, bizikletaren zattia gehienbat, eta niri asko gustatzen zait. Gainera, antolakuntza aldetik ere oso ondo egoten da eta gustura nago egin dudanarekin.

**Zeu nola sentitu zara? Espero zenuen irabaztea?**

Espero? Inoiz ez dago ezer sinatuta, edozein gauza pasa daiteke lasterketa bakoitzean. Espero, espero... ez dakit. Baina oso gustura nago egin dudanarekin.

**Lehenengo helmugara iristen zeu izan zara, baina nolako aurkariak izan dituzu?**

Oraintxe esan didate Estefania izeneko neska erori egin dela eta Estefania triatloietan behintzat oso-oso ondo ibiltzen da. Gero Lourdes Oartzabal ere badago, oso ona dena; Maite Arraiza ere korrikan oso ondo ibiltzen da normalean... Aurkari gogorrak dira, baina lasterketa polita izaten da.

**Aurrez ezagutzen duzun lasterketa da. Aurten zenbatgarren aldiz hartu duzu parte?**

Aurten hirugarren aldiz hartu dut parte lasterketan. Duela hiru urte lehiatu nintzen lehenengo lasterketa honetan eta duela bi urte ere hartu nuen parte. Iaz lesionatuta egon nintzen eta ez nintzen lehiatu. Beraz, aurtengoa hirugarrena izan da.

**"Emakumeetan ere  
aurkari gogorrak  
daude lasterketan"**

## SAILKAPENA

## SAILKAPEN OROKORRA

## GIZONEZKOA

1. Guillaume Ducasse 1:54:41
2. Ander Agirre 1:54:56
3. Imanol Larrañaga 1:55:24
4. Julen Larruzea 1:55:51
5. Hossain Kaanache 1:55:53
6. Ibai Alba 1:56:18
7. Aitor Regillaga 1:56:32
8. Gorka Bizkarra 1:56:43
9. Ivan Gil 1:56:65
10. Mikel Mujika 1:57:24

## EMAKUMEZKOA

1. Maider Gaztañaga 2:08:12
2. Lourdes Oartzabal 2:15:35
3. Maria Mendibe 2:16:31
4. Maite Arraiza 2:17:37
5. Leire Etxezarreta 2:22:55
6. Virginie Popieul 2:24:04
7. Itsaso Leunda 2:25:23
8. Mari Jose Sillaurren 2:25:45
9. Inmakulada Ruiz 2:27:21
10. Nerea Arregi 2:28:51

## GIPUZKOAKO ONENAK

## GIZONEZKOA

1. Ander Agirre 1:54:56
2. Imanol Larrañaga 1:55:24
3. Hossain Kaanache 1:55:53
4. Ibai Alba 1:56:18
5. Aitor Regillaga 1:56:32
6. Mikel Mujika 1:57:24
7. Andoni Illarramendi 1:59:28

## EMAKUMEZKOA

1. Maider Gaztañaga 2:08:12
2. Lourdes Oartzabal 2:15:35
3. Maria Mendibe 2:16:31
4. Leire Etxezarreta 2:22:55
5. Itsaso Leunda 2:25:23
6. Irati Etxaburu 2:35:12
7. Maite Murgia 2:35:39

## TALDE ONENAK

1. Antxintxika Servimasa T.T.
2. Urdaitri T.T.
3. Azkoitri GSPORT
4. Tolosaldeko T.T.
5. Trigo T.T.
6. Irrintzi-SMG



Lourdes Oartzabal, Maider Gaztañaga eta Maria Mendibe. | I.S.



Ander Agirre, Guillaume Ducasse eta Imanol Larrañaga. | I.S.

**IRATI  
ETXABURU**  
ZARAUZ T.E.



"Bukatzea zen gaurko helburua, eta bete dut. Luzea egin zait eta bizikletan gehiago sufritu dut, baina, bukatu dudanez, pozik nago".

**MIGUEL ANGEL  
IGARTUA**  
OÑATIKO T.T.



"Zirkuitua oso gogorra da, Euskal Herriko gogorrena agian, eta maila altua egon da. Gustura hartu dut parte beste urte batez".

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Partidu borrokatu eta tentsiodunaren ostean, Aloña 2-2 berdindu zuen Tolosaren aurka

- ▶ Aloña 2-0 hasi zen irabazten lehenengo zatian Garmendia eta Ugartek sartutako golei esker
- ▶ Epailleak bakarrik ikusi zuen penalti batekin okertu zen partidua etxeko jokalarientzako

## EMAITZA

ALOÑA  
**2-2**  
TOLOSA

J.A./A.T. | OÑATI

Lehen zatiko ordu erdian Aloña Mendiko jokalaria nagusitu ziren zelaian eta baloiaren kontrola izan zuten. Unai Uribetxeberriak 10. minutuan izandako aukera garbiaren ostean iritsi zen Aloñaen lehen gola. Tolosako atzelari batek baloia buruz ez zuen behar bezala alndu eta baloia bere aterantz bidali zuen. Aritz Garmendiak aurrea hartu zien atzelariari eta atezainari, eta baloia atean sartzeko angelu txikia bazuen ere, asmatu egin zuen eta lehen gola lortu zuen.

Lehen zatian tolosarrek izan zituzten aukerak area ertzean epailleak adierazi zituen bizpahiru faltetan geratu ziren. Lehen 45 minutuak bukatzean zeudela, Asier Ugartek lortu zuen bigarren gola. Gol bikaina, gainera: area



Ibai Moreno baloiarekin eta Unai Uribetxeberria lurrean, gol aukera baten aurrean, aurkarien atean. | JOSETXO ARANTZABAL

ertzean baloia eskuratu zuen, eta jaurtiketa loratu bidez, baloia eskudra-eskuadratik barrura bidali zuen.

Bigarren zatia tolosarren golarekin hasi zen. Izan ere, Loran

epailleak berak bakarrik ikusi zuen penaltia adierazi zuen, eta Avellanadak 2 eta 1ekoa lortu zuen *Panenka* erara sartutako golari esker. Golaren ostean urdinek gora egin zuten eta Julen

Agirreren atearen bila joan ziren. Presio horren ondorioz iritsi zen berdinketaren gola. Aloña atzelariak eta atezaina ez ziren area txikiaren barnean zegoen baloia urruntzeko gai izan eta Blancok

## FITXA TEKNIKO

**Aloña:** Julen, Olalde, Ruiz, Irizar, Garmendia, Palacios, Ugarte, Zubia, Moreno (Zelaia, 75. min.), Uribetxeberria (Lizarra, 68. min.) eta Markinez (Juaristi, 45. min.).

**Tolosa:** Garcia, Balerdi, Etxeberria, Gomez (Valor, 45. min.), Avellaneda, Zabaleta (Imaz, 60. min.), Zubelzu, Blanco (Fuentes, 78. min.), Seguroa, Diez (Martinez, 60. min.) eta Argiñano.

**Bestelakoak:** Azkoagainen tentsio une dezente izan ziren epailleak adierazitako falta eta txartelengatik.

baloia oñatiarren sareetara bidali zuen jokaldi nahasi baten ondoren. Une horretatik aurrera, talde biak garaipenaren golaren bila ibili ziren, baina ez zen berdinketa apurtu.

## Epaillearekin tirabirak

Partidua hasi bezain laster, tirabirak izan ziren Loran epaillearekin. Bi taldeetako jokalariei faltak eta txartelak adierazi zituzten eta horiek zalantzan jarri zituzten askotan bi aldeetako zaleek. Aloña prestatzailer fisikoak ere kaleratu zuen epailleak.

## Partiduan asko zegoen jokoan

Aloña partidua irabaziz gero, sailkapeneko bigarren posturako borroka egiteko aukera izango zukeen eta tolosarrek ere hiru puntuak eskuratu nahi izan zituzten. Beraz, tentsio handiko partidua izan zen domekakoa.

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Aretxabaleak, ondo jokatu eta irabazi

Nagusitasuna erakutsi zuten etxekoek norgehiagoka osoan, eta hiru gol egin zituzten

## EMAITZA

ARETXABALETA  
**3-0**  
GETARIAKO

L.K. | ARETXABALETA

Pozik daude aretxabalearrak domekan irabazita, eta ez hori bakarrik, ondo irabazita ere: joko ona erakutsi zuten partidua osoan zehar, eta merezimendu

osoz eskuratu dituzte puntuak.

Honela dio Gorka Valle entrenatzaileak: "Gehiago izan gara partidu osoan eta merezita irabazi dugu, nahiz eta eurak ere itxuroso ibili diren. Jokaldi asko sortu ditugu, batez ere bigarren zatian, eta aukera gehiago izan dugu".

Lehen gola 20. segundoan etorri zen, Sanchok markatuta; bigarrena Zaitegik egin zuen, eta hirugarrena, Julen Erañak.



ofizialtasuna alkatuz. | ANDER MONEDERO

## EMAKUMEZKOAK, IGOERA

# Arizmendik 1-0 irabazi zion Intxaurdiri

Lehenengo zatian sartu zuen garaipenaren gola Ane Bizentek. Atezainaren aurretik baloia loratuta sartu zuen baloia atera Haizea Arriaran taldekideak egindako pase bikainaren ostean. Lehenengo zatia Arizmendikoek dominatu zuten eta bigarrenean estuago ibili arren, partidua lasaia izan zen.



IMANOL SORIANO

## ERREGIONAL PREF.

# Goiko postuak ditu helburu Mondrak

Azpeitiako Ikasberri erraz menderatu zuen Mondrak lehenengo unetik, atzo Mojategin. Atsedenera 2-0 (Xabi Arrizabalaga eta Iker Lopez) joan ziren, eta 2. zatiko hasieran etorri zen 3. gola (Aitor Azkarate). Bukeraren euren atean egin zuten gol bat. Liderrak baino 5 puntu gutxiago bakarrik ditu Mondrak.



ARGAZKILARIAXXX





Eibarren kontrako partiduko une bat, Iturripen. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKUBALOIA

# Liderrari ezin irabazi Ford Mugarrik, duin ibili arren

Berdinketarekin amaituko zela zirudienean, Somos Eibar liderrak irabazi egin zuen domekan Arrasaten

## EMAITZA

FORD MUGARRI

26-27

SOMOS EIBAR

L.K. | ARRASATE

Interes handiko partidua zuten eskubaloien zaleek domeka eguerdian Iturripen: Ford Mugarrik sailkapeneko liderra, Somos Eibar, hartzen zuen bere kantxan. Azkenean, liderrak lider zergatik diren erakutsi zuen eta puntuak eroan zituen Arrasatetik.

**Bigarren zati erabakigarria**

Aste bukaerakoa 22. jardunaldia zen, eta arrasatearrak garaipen gose eta garaipenaren beharrean

zeuden, joan den astean galdu eta gero eta sailkapenean 5. egin eta gero. Animo horrekin irten ziren, eta, Pablo Gartzia entrenatzailearen esanetan, "partidu polita" eskaintzea lortu zuten, baina ez helburu nagusia.

Gartziaren esanetan, Eibar liderra "oso indartsu dabil" eta "denbora guztian goitik ibili ziren". Hala eta guztiz ere, lehenengo zatian, bi taldeon aldetik "defentsak pixka bat justu" ibili ziren, Pablo Gartzia iritiz, eta Ford Mugarrik alde ateratzeko aukera izan zuen. Bigarren zatian, ordea, Eibarkoak indartsuago hasi ziren eta "alde handia hartu zuten".

Ford Mugarrik paper duina egin zuen eta berdintzea lortu zuen azken minutuetan, baina

azkenean garaipena Eibarrek eroan zuen, bere postuan sendotzea lortuz. Lehenengo postuak eztabaidatik kanpo dirudi: jokatutako 22 partiduetatik 19 irabazi dituzte eibartarrek, eta 39 puntu dituzte, bigarrenak baino sei gehiago.

**Trapagararen aurka**

Honenbestez, Arrasateko taldeak seigarren postuan bukatu du jardunaldia, 24 punturekin, BM Corrales (5.) taldearekin puntuetan berdinduta. Hamar partidu irabazi dituzte arrasatearrek, zortzi galdu eta beste lau berdindu.

Datorren aste bukaeran, Trapagaran taldearen etxean jokatuko du Ford Mugarrik. Talde hori 9. da sailkapenean.

## SASKIBALOIA

## Natra Oñatik, beste porrot bat segidan

Natra Oñati ezinean dabil bolada txarrari buelta emateko. Domekan, 60-68 galdu zuen Mungiauren aurka, eta maldan gora ipintzen zaio liga bukaera. Oraingoan, partidu txarra egin zuten, baloi asko galduta eta joko garbirik egin gabe. Oñatiarrei ez zitzaizen ezer ondo irten zapatuan. Datorren astean, atsedean hartuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL




PILOTA

IMANOL SORIANO

## Rezustak, erakustaldi ederra

Beñat Rezustak, Apezetxearekin bikotea osatuta, Tainta eta Mendizabal II.a izan zituen aurkari egubakoitz gauean Bergarako pilota jaialdian, eta nagusitasun garbia erakutsita, 22-15 irabazi zuten Rezustak eta Apezetxeak. Erregularitasun handiagoa erakutsi zuten eta une guztietan joan ziren irabazten. Batez ere Rezustak egin zuten erakustaldi bikaina; herrikideei gozatua eman zien.



PILOTA

JOSETXO ARANTZABAL

## Mikel Goñik eta Gineak, irabazi

MUko ikasleak Ginean egiten dabilzan proiektu baterako dirua batzeko pilota jaialdi erakargarria egin zuten zapatuan Eskoriatzan. Lehenengo, Oier Urrutia eta Joseba Zubizarreta lehiatu ziren; Urrutiak irabazi zuen, 22-10, partidu azkar baten. Segidan, Mikel Goñi eta Eneko Zubizarretak Unai Iñurrategi eta Mikel Zubizarreta izan zituzten aurrez aurre. 22-17 bukatu zen Goñi eta Enekoren alde.



MOTORRA

JOSETXO ARANTZABAL

## Motor zaharrenak, Debagoiensean

Gipuzkoako Real Motor Club-eko Sekzio Klasikoko lagunek hilero motor ibilaldia egiten dute Gipuzkoan zehar, eta hilabete honetakoan Elgetan eta Bergaran ibili dira. Domekan izan zen hori. Motor guztiak 1973koak edo zaharragoak ziren, eta denetatik zaharrena, 1927ko modelo ikusgarri bat, Agustin Lazpiur bergararrak gidatu zuen.

TXIRRINDULARITZA

# 21 txirrindulariko taldea aurkeztu du Dorletako Amak

Alebin, infantil eta BTTko ziklistak izango dituzte denboraldi berrian

**AMAIA TXINTXURRETA** | LEINTZ GATZAGA  
Zapatu eguerdian aurkeztu zuen Dorletako Ama txirrindulari taldeak denboraldi berrian izango dituen ziklistak.

Guztira, 21 txirrindulariko taldea aurkeztu dute; zortzi alebin, bederatzita infantil eta BTTko lau ziklistak osatzen dute eta neska bakarra dago denboraldi berriko taldean; aurreko denboraldian baino neska bat gutxiago lehiatuko da, beraz, aurtengo taldean.

Hauek daude alebinen taldean: Julen Alkalde, Enaitz Arkauz, Enaitz Garai, Aner Uribesalgo, Unax Santxez, Garazi Estebez, Urko Retegi eta Jon Pozos. Entrenatzailea Gaizka Beloki da.

Infantiletan, ostera, ziklista hauek hartuko dute parte: Gari Arzuaga, Oihan Uroz, Liher Unzueta, Andoni Azkarate, Asier Azkarate, Joseba Rodriguez, Iñigo Rodriguez, Martin Abarrategi eta Koldo Zubia. Horien guztien gidaritzan dago Raul Blazquez entrenatzailea.

BTT edo mendi bizikletako taldea, bestetik, txirrindulari hauek osatzen dute: Mikel Iribekankosek, Beñat Burgik, Julen Axpek eta Markel Uriartek. Andoni Axpe izango da horien entrenatzailea.

Beste urte batzuetan baino txirrindulari gutxiago izango ditu taldeak aurtan, baina Junkal Perez Dorletako Ama taldeko zuzendaritza batzordeko kideak adierazi du lan egiteko gogoz daudela: "Aurtan gutxitxo gelditu gara taldean baina gauzak egiteko gogoz gatoz. Beste urte batzuetan eduki izan ditugu kade-



Dorletako Ama taldeko denboraldi berriko txirrindulariak aurkezpenean. | IMANOL SORIANO

teak, jubenilak, hiru urtetan afizionatuak ere bai... baina aurtan jendea jubeniletara pasa denean ez dute jarraitu, orduan txikiekin bakarrik gelditu gara".

## Aurkezpena, meza eta guzti

Leintz Gatzagako Dorletako Santutegian izan zen aurkezpena, urtero moduan. Baina aurtan, aurkezpenaren aurretik meza eta guzti izan zuten txirrindularien Ama Birjinaren santutegian. Ordu erdi inguru iraun zuen mezak eta apaizak mezu hau bidali zien

gaztetxoek: "Txirrindulariok bata bestearen lagun izan behar zarete". Aldarean Dorletako Ama taldeko bi kamiseta jarri zituzten meza garai horretarako.

## Aurtengo helburua, ikastea

Datorren asteburuan hasiko dira lasterketekin txirrindulariak, eta Oñatin izango da lehenengo lasterketa. MUko fakultatearen inguruan egingo dute eta horren ostean, astero-astero, zapatuetan San Juan jaien ingurua arte lasterketak izango dituzte hemen inguruan gaztetxoek.

Denboraldi berriko helburu nagusia, baina, ez da lasterketa horietan irabaztea edo goreneko postuetan sailkatzea. Txirrindularitza mundua gertutik ezagutu eta ikastea da garrantzitsuena, Perezen esanetan: "Bizikleta baten gainean ibiltzeko, bidean nola ibili behar den, taldea nolakoa den ikasi behar dute gazteek; bakoitza ezin da bere airera ibili, eta erakutsi behar zaie gauza asko".

Talde kide gaztetxoak gustura egon ziren aurkezpenean eta pozik hartuko dute denboraldi berria.

**JUNKAL PEREZ**  
ZUZ. BATZORDEKOA

"Aramaion ere antolatuko dugu lasterketa lehenengo aldiz aurtan"

Junkal Perez Dorletako Ama txirrindulari taldeko zuzendaritza batzordeko



kidea da eta aurtengo denboraldiari buruz hitz egin digu.

**Aurtan zenbat lasterketa antolatuko dituzte Dorletako Ama taldekoak?**

Urtero moduan, Eskoriatzan, Arrasaten eta Aretxabaletan antolatuko ditu lasterketak gure taldeak. Eta aurtan, gainera, Aramaion ere antolatuko dugu, lehenengo aldiz.

**Laguntzaile lanetan gurasoak ibiltzen zarete?**

Bai, gurasoak hor ibiltzen gara aurrera eta atzera umeekin. Bakoitzak bere umea eta bere bizikleta eraman behar izaten ditu lasterketara. Ez daukagu dirurik azpiegitura sendorik edukitzeko; orduan, ezin gara beste modu batean antolatu. Ea jende berria ere sartzen den laguntzera; ez da lan handia egoten, baina beti egoten da egitekoren bat eta jende beharra beti egoten da. Hala ere, umeak oso-oso gustura ibiltzen dira eta hori da garrantzitsuena.

**Ziklistak gertu daude lasterketarako?**

Bai, asteburu honetan izango dute lehenengo lasterketa. Normalean industrialdeetan egiten dituzte lasterketak gazteentek. Euren lasterketak normalean ez dira herri barruan egiten, zirkulazioa gelditu beharra egoten delako kasu horietan.



MENDIA

JOSETXO ARANTZABAL

## Finalista Egun ederra Elgetan

Domekan, Finalista Egunerako 250 lagun baino gehiago etorri ziren Elgetara, Euskal Mendizale Federazioak eta Elgetako Udalak antolatutako egunera. 26 kilometroko mendi ibilaldia egin ondoren, diplomak eta kamisetak banatu zizkieten 75 lagun ingururi, eta bazkaltzera batu ziren gero. Finalistaren Saria Jokin Espillari eman diote, eta ibilaldi baten hil zen Iñigo Alegrearen alabari, orogarria.

XAKEA

## Aitor Alcaide: "Harrituta gaude; ez genuen espero hain ondo amaitzea"



Arrasate eta Arlutz taldeetako kideak. | GOIENA

A.T. | ARRASATE

Joan zen zapatuan amaitu zen xakeko Ohorezko Ligako denboraldia eta Arrasate eta Aretxabaletako taldekideek osatzen duten Arrasate-Arlutz taldea laugarren gelditu zen sailkapenean. Gainera, orañdik ziurtasun osoz ez dakiten arren, posible da Espainiako txapelketara joateko sailkatzea.

Aitor Alcaide taldekidea oso pozik dago lortu dutenarekin: "Harrituta gaude, ez genuen espero horrelako emaitzak lortzea eta zorte pixka bat ere izan dugu. Oso pozik gaude eta gure aurtengo asmoak bete egin ditugu".

Sailkapenean Gros taldea gelditu da lehenengo (Espainiako txapelkunordea), bigarren postua Sestaok lortu du (Espainiako txapelketa) eta hirugarren Iruñeko San Juan taldea gelditu da.

**Renán Andrés** | Parapentelari akrobatikoa

# "Parapentean jauzi egitea nire bizio, nire droga, bihurtu da urte hauetan"

- ▶ Oñatin bizi den parapentelari argentinarrek munduko kopako probetan parte hartzen du
- ▶ Aloña edo Kurtzebarrin entrenatzen du Renánek eguraldiak uzten dion bakoitzean

MIKEL ARREGI | OÑATI

Duela urte pare batetik Oñatin bizi da Renán Andrés, parapentelari argentinarra. Akrobazietan espezializatua, munduko kopan parte hartzen dabil azkeneko urtetan. Euskal Herriko eguraldiak hegan egiteko aukera gutxi ematen dituen arren, Debagoieneko mendiengatik maiteminduta dagoela dio. Parapente denboraldia prestatzen dabilen honetan, berarekin hitz egin dugu.

## Kirol minoritarioen artean dago parapentea. Zergatik?

Bai, zoritxarrez parapenteak ez dauka hemen beste leku batzuetan duen indarra. Estatuan esaterako gero jende gehiagok egiten ditu akrobaziak, baina hala ere beste herrialde batzutan baino zaletasun gutxiago dago. Frantzia adibidez, 12 urteko mutikoak parapentean jauzi egiten ikusten dituzu. Hori hemen ezinezkoa da, jendeak kirol arriskutsu moduan ikusten du parapentea, eta hori ez da horrela. Zuk arriskuak hartzen badituzu, edo behar den zuhurtiaz ez bazara ibiltzen; istripuak izan ditzakezu. Parapente oso kirol segurua izan daiteke segurtasun neurriak errespetatzen diren neurrian. Esperientziak, eguraldiak... faktore askok dute eragina hegaldi baten segurtasunean.

## Noiz hasi zinen parapentean?

2005ean. Kanarietan bizi nintzen orduan, Hierro irlan. Txikitatik neukan hegan egiteko ametsa, eta han nengoela parapentea ezagutu nuen. Orduetik parapentea nire bizioa, nire droga bihurtu da. Hasierako sasoi hartan, egunean 8 edo 9 jauzi egiten nituen nire maila hobetzeko asmoarekin. Denborarekin akrobazietan espezializatzen joan naiz, oraingo maila eskuratu dudana arte.

## Nazioarteko probetan parte hartzea ere lortu duzu denbora honetan...

Bai ala da. Kanarietan, Juan Luis Morales ezagutu nuen. Sasoi hartan bera hasia zen jauzi akrobatiakoak egiten, eta haren eskutik akrobazien mundua ezagutu nuen. Denborarekin aurrera egin genuen biok, eta azkenean nazioarte mailan lehiatzeko txartela eskuratu genuen. Hau 2009an izan zen, eta orduetik munduko leku desberdinetan izan gara.

## Nolakoak dira parapente akrobazia lehiaketak?

Bi modutara lehiatzen gara: bi jauzilarirekin, modu sinkronizatuan; eta bakarka. 30 mugimen-



Renán Andrés parapentean salto egiteko prestatzen. | RENAN ANDRES



Ur gaineko mugimendu akrobatikoa egiten. | RENAN ANDRES

**"Parapentea oso kirol segurua da segurtasun neurriak errespetzen badira"**

**"Elgeako errotei begira hegan egiteko baldintzak ikusten ditut"**

du dauzkagu, eta zailtasunaren arabera, mugimendu bakoitzak puntu balio bat du. Jauzi egin aurretik, zerrendatik egin beharreko mugimenduak aukeratzen ditugu, eta epaileei esan ostean mugimenduok airean egiten saiatzen gara. Lekuen arabera, mugimendu gehiago edo gutxiago egin ditzakegu. Austrian adibidez bost mugimendu egin ditzakezu, Turkian berriz gehiago.

Lur hartzeek bestalde garrantzi handia daukate lehiaketetan. Batzuetan diana bat jartzen dute ur gainean, eta guk bertan bukatu behar dugu gure hegaldia.

## Noiz daukazu urrengo lehiaketa?

Datak zehaztu gabe daude oraindik, baina munduko kopako lehenengo hitzordua maiatzean izango da, Austrian seguruenik. Horren ostean Frantziara joango gara, eta denboraldia Turkian bukatuko dugu azaro aldera.

## Nola moldatzen zara entrenatzeko? Euskal Herrian daukagun eguraldi honekin ezingo zara nahi duzun bakoitzean irten...

Egi galanta! Kanarietan egunero entrenatzeko aukera neukan. Oñatin berriz desberdina da.

Orain, udaberria datorrenean hasiko gara inguruko mendieta-tik salto egiten. Eguraldia problema da hemen, baina onartu beharra daukat Aloñarekin maiteminduta nagoela.

## Aloña, Kurtzebarri, Udalatx... Asko dira parapenterako gure bailaran dauden mendiak

Kurtzebarrira Aloñara baino gutxiago joaten naiz, Oñatitik urrutiago daukadalako. Etxetik Elgeako haize errotak ikusten ditut, eta haien arabera hegan egiteko baldintzak zeintzuk diren jakiten ditut. Horren arabera, Aloñako zein magaletik, edo Kurtzeberritik salto egin dezakedan erabakitzen dut. Ostean, parapentea prestatu, eta abian jartzen naiz. Debagoiena egundoko lekua da parapentean hegan egiteko.

## Tandemean salto egiteko aukera ere eskaintzen duzu...

Bai. Nahi duenari Aloñatik salto egiteko aukera ematen diot, bertako jendeari zein Oñatira datozen turistei. Mendia gustoko duen edonori gomendatzen diot tandemean salto egitea. Etorkizun baten ikastaroak emateko asmoa ere badaukat.

## Otitisa sortzen duten germenak ahotik edo sudurretik sartzen dira umearen gorputzera

Jabier Agirre pediatrik dio hozturak eta marrantak saihestu behar direla

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Gaizki sendatutako katarro edo hozturaren bat izango da otitisaren arrazoi sortzailea kasurik gehienetan", azaltzen du Jabier Agirre pediatrik. "Erdiko belarriko infekzioa —edo neguko otitisa— izaten da hotz garaiko trastornorik usuenetakoa haurren artean. Bere jatorria, ordea, ez dago temperatura baxuetan, arnasbideetan egon ohi diren birus edo bakterioetan baizik".

Guraso.com atarirako Agirrek otitisari buruz idatzitako artikuluan irakur daiteke gaixotasuna sortzen duten germenak ahotik edo sudurretik sartzen direla umearen gorputzera: "Laringetik pasa eta Eustakioren tronpan barrera iristen dira erdiko belarriara bertan infekzioa eragiteko". Tinpanoaren haustura ere gerta daiteke: "Belarriaren barruan pilatutako mukia eta zornea gehiegizkoak direnean irits daiteke, eta horrek zornea kanpora ateratzen du. Zorne-jarioak sintoma kezagarria dirudien arren, ez



Neskatila baten belarria. | ADWRITER

dauka aparteko garrantzirik; aitzitik, behin zornea kanpora irteten denean, mina baretu eta sendaketa prozesua bizkortu egiten da, normalean. Gainera, tinpanoa bere kasa ixten da egun gutxiren buruan".

### Prebentzioa eta tratamendua

Pediatrik gomendatzen du sudurra serum fisiologikoarekin edo

salinoarekin garbitzea, tabakismo pasiboa saihestea, eta txupetea kentzea listua delako infekzioak transmititzeko bide garrantzitsua. Bularra emateko ere gomendatzen du defentsak gehitzen dituelako. Saihestu egin behar dira, baita ere, kotoizko makilatxoak. Artikuluak adinaren arabera tratamenduen gaineko informazioa ere ematen du.

## Emakume haurdunen erdia erretzaile pasiboa da, batez ere, bikotekidearen eraginez

Adituek diote osasun heziketa ezinbestekoa dela emakumeak zein umekiak babesteko

L.Z. | ARRASATE

Asturias, Gipuzkoa, Sabadell eta Valentziako 13 ikerketa zentrotako ikertzaileek egindako neurketa batek azaleratu du emakume ez-erretzaileen %55 erretzaile pasiboa dela. *Science of the Total Environment* aldizkarian argitaratu dituzte ikerketaren emaitzak: etxeko kideen batek, eta, bereziki, bikotekideak etxean erretzen duelako egoten dira emakume horiek tabako-kearen eraginpean maila handiengan. 1.783 emakume haurdunek hartu dute parte ikerketan, eta odolean zein gernuan zuten kotinina kontzentrazio maila neurtu diete.

"Frogatuta dago emakume haurdunak tabako-kearen eraginpean egoteak umekian kalteak eragiten dituela", azaldu

du EHUko Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa saileko ikertzaile Juanjo Aurrekoetxeak. "Eta tabako-kearen esposizio-iturri nagusia etxea da, hori jasan zuten emakumeek agertu baitute kotinina kontzentrazio handiena".

### Mezua ez da iristen

Tabakoak umekiari eragiten dion kalteez jabetuta —txikiagoak jaiotzea, garapen kognitibo txikiagoa, bat-bateko heriotza tasa handiagoa...— Aurrekoetxeak uste du mezua ez dela iristen. "Osasun heziketa ezinbestekoa da emakumeak eta, batez ere, umekiak babesteko", dio. Gipuzkoari dagokionean erretzaile pasiboak gutxiago dira, baina horiek eman dituzte neurketan kotinina mailarik handienak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



**guraso.com**

## JAKINGAI

## Eskizofrenia-erizaintza jardunaldiak

Josu Iriarte

Arizmendiko Erizaintza irakaslea

**E**skizofrenia buruko gaitz arruntenetako bat da, eta pertsonarengan inguruko errealitatea zein norberarena ulertzeko eta sentitzeko moduaren aldaketa dakar. Munduan 100 pertsonetatik bati eragiten dio eskizofreniak, gizon zein emakume izan, ezberdintasun sozio-ekonomiko edo kulturalik bereizi gabe. Batez beste, 25 urterekin diagnostikatzen da, eta, kasu gutxi batzuetan, 12 urtetik behe-rako umei ere diagnostikatu izan zaie. Espezialista kliniko batek egin behar du diagnostikoa, gaixoaren azterketan eta historia klinikoan oinarrituta.

### Eskizofrenia motak

Hainbat eskizofrenia mota daude, sintomatologiaren arabera sailkatzen direnak —paranoidea, hebefrenikoa, katatonikoa...—. Gaixotasun hori pairatzen dute

nek sintoma positiboak edo negatiboak izan ohi dituzte. Positiboak dira lehen agertzen ez ziren sintoma edo jokabideak eta negatiboak, aurretik zizutzen jokabideak baina gaixotasunak urritu dituenak. Positiboak delirioak edo eldarnioak dira, haluzinazioak... Negatiboak, berriz, isolamendua, geldotasuna, pentsamendu eta hizkera pobrea.

Nahiz eta sintoma positiboek gehiago ematen duten atentzioa, negatiboek izaten dute gaixotzeraren eraginik handiena.

### Faktore eragileak

Eskizofrenia pairatzeko faktoreak askotarikoak dira: genetika, burmuineko aldaketa biokimikoak, haurdunaldiko arazoak... Hala ere, oraindik asko dago ikertzeko. Bestetik, gaixotasun hori azaleratzen laguntzen duten zenbait faktore dituzte identifikatuta adituek, hala nola, toxikoen kontsumoa, bizitza arruntak sortzen duen estresa —bizileku aldaketa, unibertsitatean hastea,

lanetik kanporatzea...—. Eskizofrenia, tamalez, gaixotasun kronikoa da, eta gorabehera askokoa izan ohi da, ez baita erraza tratamendua behar den moduan jarraitzea.

### Tratamendua

Eskizofreniaren kasuan tratamendu farmakologikoa oso eraginkorra da gaixoaren oreka mantentzeko, baina bigarren mailako ondorioak izaten ditu. Beste terapia mota batzuk ere eraginkorrak dira, psikoterapia eta terapia psikosozialak, esaterako. Beste alde batetik jakinekoe da familiaren eta gertuko laguntza eta enpatia oso baliagarriak direla.

Arizmendi Ikastolak antolatuta *Erizaintzako laguntzaileak gaur* izeneko VI. jardunaldiak egon ziren egubakoitzean Kulturaren. Eskizofreniaren gaia jorratu zuten hainbat tokitatik ekarritako adituekin. Harrera ezin hobea izan zuten jardunaldiek, goraino bete baitzen aretoa.



Eskizofrenia irudikatzen duen argazkia. | JESSI RM

## Mendekotasuna eta buruko gaitza

Mendekotasun batengatik laguntza eske joan ohi direnen artean %70 buruko gaitz batengatik dira —Rosenthal, 2012—. Menpekotasunak jokoarenganakoak edo toxikoenganakoak —tabakoa, alkohola, drogak— izaten dira. Buruko gaitz arruntenak, aldiz, antsietatea, nahaste bipolarra, eskizofrenia eta depresioa dira. Bi gaitzak —menpekotasuna eta buruko gaitzak— banaka aspalditik dira ezagunak, baina bien arteko lotura defendatu dituztenen teoriak nahiko berriak dira. Mende hasieran hasi ziren *patologia duala* terminoa erabiltzen.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



**2.0 PROFESIONALAK**

# KULTURA



Ixilik taldearen emanaldia, *Oñati Bizirik* diskoaren aurkezpenean. | IMANOL SORIANO

## Herriko musika taldeen hirugarren bozgorailua

- ▶ Autoekoiztutako eta autofinantzatutako egitasmoa da Oñati Bizirik
- ▶ Aurreko lanen eskarmentuarekin, emaitza hobetu dute oraingoarekin

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Herriko musika talde berrien bozgorailu izatea helburu duen Oñati Bizirik egitasmoaren hirugarren atala kalean da.

Zapatuan, etxean, Antixeneko gaztetxean, aurkeztu zuten diskoa, azken bilduman batutakoaren emandiek. Elkarrekin giro onean bazkaldu ondoren, 18:00etan hasi ziren instrumentuak astintzen eta 00:30 bitartean, Gela Bereziak eta Ander Etxanizek izan ezik, ordubeteko saio bana egin zuten gainontzeko taldeek.

### 2006an sortutako egitasmoa

Iazko abenduaren 26an grabatu zuten Antixeneko gaztetxean *Oñati Bizirik*, aurreko bildumen helburu eta ezaugarri berberekin: autoekoiztuta eta autofinantzatua; hasieratik bukaera arteko prozesu guztia etxean eta etxekoekin egindakoa, beraz. "Herrian talde asko dauden arren, guztiek ez dute grabatzeko dirurik. Hori horrela, egun bat jarri eta bata bestearen segidan grabatu genuen, gaztetxeko asanbladak horretarako aukera emanda".

Patxi Catarro y los Vagueza Crónica, Krimen, Sospechosos, Triskantza, Drakes eta Kontralei taldeak batu zituzten 2006an kale-

### ESANAK

"Gutxirekin, talde berriei irtenbidea ematen diegu"

OÑATI BIZIRIK

ratutako lehenengo diskoan. "Kasablankako gaztetxearen etorkizuna kolokan zegoen, amorrua eta gorroto handiko garaiak ziren, gazteak oso haserre zeuden. Gaztelekuan grabatu genuen, ez genuen -eta beste tokirik. Euro baten, 500 ale saldu genituen Gaztegunean. Gastuak ordaintzea zen gure asmoa, eta lortu genuen", diote egitasmo musikariek.

Ez, KKK, Bits eta Galdu arte taldeek 2009an San Martingo gaztetxean grabatu zuten bigarrena, *Oñati Bizirik*. Bira ere egin zuten elkarrekin, besteak beste, Gasteiz, Ondarroa, Iturriaga, Azpeitia eta Arrasaten jo zuten. 500 ale argitaratu zituzten. Gaur egun [bandcamp.com](http://bandcamp.com) plataforman daude aurreko lanak eskuragarri.



Aran & Laket bikotearen emanaldia. | IMANOL SORIANO

### Oñati Bizirik diskoko taldeak



#### IXILIK

**Estiloa:** Punk-rock.

**Taldeakideak:** Aitor (gitarra), Ekhi (ahotsa), Urtzi (saxua), Julen (baxua), Iban (gitarra), Joseba (bateria).

**Noiz sortua:** 2012an.

#### BENEH (BELDURRA ETA NAZKA EUSKAL HERRIAN)

**Estiloa:** Punk.

**Taldeakideak:** Borja (ahotsa), Aitor (gitarra), Bartolo (baxua), Eñaut (gaita eta ahotsa), Rege (bateria).

**Noiz sortua:** 2012an.

#### BURU-HILKETA

**Estiloa:** Rock suizida.

**Taldeakideak:** Polloma (ahotsa), Aitor (gitarra), Andutx (gitarra eta ahotsa), Pepi (baxua eta ahotsa), Gorki (bateria).

**Noiz sortua:** 2012an.

#### ARAN & LAKET

**Estiloa:** Folk.

**Taldeakideak:** Aran (gitarra klasikoa eta ahotsa), Laket (gitarra elektrikoa eta ahotsa).

**Noiz:** 2013an.

#### OBHC (OBSTRUCCION NASAL)

**Estiloa:** Hardcore-punk.

**Taldeakideak:** Beñato (gitarra), Grasa (baxua), Diaz (bateria).

**Noiz sortua:** 2011n.

#### ZUEN AZKENA

**Estiloa:** Punk.

**Taldeakideak:** Regeiro (bateria), Borja (gitarra eta ahotsa), Ibai (baxua eta ahotsa).

**Noiz sortua:** 2011n.

#### ANDER ETXANIZ

**Estiloa:** Rock amerikarra.

**Kidea:** Ander Etxaniz (gitarra eta ahotsa).

**Noiz sortua:** 2012an.

#### GOMIZTEGIKO ARTZAINAK

**Estiloa:** Hardcore ekologikoa.

**Taldeakideak:** Danborrerotxo (bateria eta ahotsa), Xalbador (gitarra eta ahotsa), Eustakio (baxua eta ahotsa).

**Noiz sortua:** 2013an.

#### GELA BEREZIA

**Estiloa:** Post-rock.

**Taldeakideak:** Hern & Death (baxua), AstiSantua (gitarra), Satan Hussein (ahotsa), Wero (bateria).

**Noiz sortua:** 2011n.

Itzik Galiliren *Chameleon* delako koreografia, ikuskizuneko une bat. | IMANOL SORIANO

## KRONIKA

# Argitik iluntasunera, 'Kameleoia'

MIREN ARREGI | ARRASATE

Dantza garaikidea oinarri duen Dantzas Konpainiak *Kameleoia* ikuskizuna taularatu zuen zapatuan Arrasateko Amaia Antzokian. Dantzarien mugimenduak, euren arteko jolasak eta argi ilunak dira Dantzas Konpainiaren zigiluetako bat, eta *Kameleoia*-n ere horiek izan ziren nagusi.

Hiru koreografiak osatzen da *Kameleoia*; lehenengo biak, Itzik Galili israeldar koreografoaren lanak; hirugarrena, berriz, Jacek Przybylowicz poloniarrena. Galili Dantzas Konpainiaren ohiko kolaboratzaile bilakatu da azken urteetan.

Taula gainean bost aulki eta bost dantzari agertu ziren lehenik. Aulkien inguruan dantzan, dantzarien mugimenduak aulki horien luzapen bilakatzen ziren. Lurra-rikiko kontaktua zen koreografiaren beste elementu garrantzitsuetako bat. Gorputzaren espresio batetik kontrako beste baterako saltoaren adierazle garbiak. Dantza garaikidean erabakigarria izan zen John Cage musikagile estatubatuarren musika zen lan horren oinarria.

### Klasikoan ere, abangoardia

John Cagen musika garaikidetik, Haendel, Vivaldi, Mozart edota

Satieren musika klasikora egin zuen emanaldiak. Galiliren bigarren piezak, *Things I told nobody* izenekoak, argi diseinu eta iru-

dikapen bikainak eskaini zituen. Indar eta energia sinestezinez txunditu zuten dantzariak ikuslea, Galiliren maisutasunari ohore eginez.

### Ikuspegi historikoa

Musika barrokoaren melodietan dantzan jarraitu zuten Jacek Przybylowicz koreografo poloniarren *Few brief sequences* lanean

ere. Musika estilo horretara egokitu zuten dantza ere, ikuskizun garaikideari ikuspegi historiko bat emanaz. Jordi Savallen musika funtsezko bilakatu zen bide horretan.

Dotoreziaz eta sedukzio handiz, kalitate artistiko handiko ikuskizuna eskaini zuen Dantzas Konpainiak. Ikusleek txaloz zoriondu zuten taldearen lana.

## FITXA

DANTZA

DANTZAZ KONPAINIAREN  
'KAMELEOIA' IKUSKIZUNA

Estiloa: Garaikidea.

Non: Amaia Antzokian.

Eguna: Martxoak 15, zapatua.

Iraupena: Ordu bete.

## Konpainia Arizmendiko ikasleekin

Dantzas Konpainiak, dantzari gazteei profesional izateko bidean laguntzeko plataforma eskaintzeaz gain, baditu beste lan-ildo batzuk eta horietako bat da herritarren dantzarekiko sensibilizazioan lan egitea. Horretarako martxan du *Firi-Fari* egitasmoa. Proiektu horrekin, egubakoitzean, konpainiako dantzariak Arrasateko Amaia Antzokian izan ziren Arizmendiko LHko 4. mailako ikasleekin. Han, *Kameleoia* ikuskizunaren zati bat eskaini zuten eta ondoren ikasleen galderak erantzun zituzten.



IMANOL SORIANO

## Musikari handiak, formatu txikian

Joseba B. Lenoir beratarrak eta Niña Coyote bikoteak Bergarako gaztetxeko Txapajaiko antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituzten egubakoitzean. Ibarrean beste hainbat ekitaldi zeudela-eta jende gutxi hurbilduko zen susmoan formatu txikiko kontzertua antolatu zuten arren, 120 lagun elkartu ziren musika giro ederrean, beste behin, Txapa Irratiari diruz laguntzeko helburuz.

## Willis Drummond, Bagauda eta EH Sukarrak euren zaleak ase zituzten

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Lapurdikoa Willis Drummond taldeak gogor ekin zion egubakoitzean izan zen Oñatiko gaztelekuko emanaldiari. Dena eman zuten; gezurra zirudien, Oñatikoa bukatuta, Deustun zutenik segidan beste bat. Azken diskoko kantuekin hasi eta lan guztietako kantuak tartekatuta zituzten gero. Bero-bero zeuden jarraitzaileen egarrira asezteko, hiru kantu ezagunekin amaitu zuten.

Herriko Bagauda taldeak hartu zuen lekukoa eta, iaz kaleratutako izen bereko laneko kantuez gainera, hainbat bertsiorekin, tartean, Hellcopters-en *Soulseller* kantuarekin osatu zuten zegokien

zattia. Ezagun zen *etxean jokatzeko* zutela, zaleek ere gogotsu abesten zituzten-eta ondo ikasitako kantuak; izan zen, era berean, soinu teknikariengana bolumena igotzeko eskatzera joan zen gurasoa ere.

Eibarko EH Sukarra izan zen taula gainera igotzen hirugarrena. Iaz kaleratutako *Uhinak* disko kantuak jo zituzten gehienbat, baina baita hastapenetako abestiak ere; *10 urte kartzelan* eta *Kasko gorriak*, horien artean. Aurrez soinu-probak egin barik, emanaldian zehar joan ziren soinuari neurria hartzen; hala ere, audio-akatsak ez ziren zaleen gozamenerako trabarik izan.



EH Sukarrako Norton. | IMANOL SORIANO

### 180 lagun batu ziren

Nahasketa handia zegoen publikoan: jatorri eta adin askotakoak. Guztiak (180 bat), sekulako jai giroan; bitxikeria moduan, jakin garagardea ere bukatu zela.

# Bitter Honeyren arrimoan, lagun arteko metal gaua

- ▶ Baxu-jolea atzerrira doala-eta, taldeak agur kontzertua egin zuen
- ▶ Bitter Honeyko kideez gainera, musikari lagun asko igo ziren oholtzara

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Zapatuan Arrasateko gaztetxean Bitter Honey taldeak egin zuen emanaldia, kontzertu huts bat baino gehiago, oholtzako alde bietan batutako lagunek elkarrekin egindako jaia izan zen. Musikaren aitzakian, opari eta sorpresa ugari izan ziren, Bitter Honeyren agur kontzertuan.

Taularen gaineko protagonista nagusiak, Bitter Honey taldeko kideak baziren ere (Aitor *Danzing* abesten; *Ota* gitarran; Enaitz baterian eta Borja baxuan), gertuko musikari asko gonbidatu zituzten eurekin jotzera: *Garf*, Iñigo Zubizarreta (SA), Jago Gornaeta, (Ekon, Governors, Cool Circus...), Arkada Socialeko Brian eta Julio (azken hori, Bitter Honeyko Borjaren anaia) eta Xabi Fernandez, *Purito*.

## Lau ordutako musika maratona

Gauaren hasieratik nabari zen parrandarako asmoa zegoela gaztetxean. Atea zeharkatu orduko jaso zuten zaleek lehenengo oparia: borondatezko sarrera ordainduta, Bitter Honeyren aurrekaria izan zen Radio Wings taldearen diskoa. Aretora sartuta, musikariek zaleentzako gordetako likore botila zuten eskura.

Baina oparirik handiena, etortzeaz zegoen: kalitate handiko musikaz betetako lau ordutako kontzertu maratona. Bacon Maiden izenarekin, Iron Maiden kantuak joaz eta horiek imitatuaz ekin zioten emanaldiari, Bitter Honeyko Aitor, Borja eta Enaitzek, *Garf* eta Iñigorekin osatuz boskotea.

Aitor *Danzing* oholtzatik jaitsi eta Borjari pasatuta mikrofonoa, Fat Lizzy izena hartuta, jotzen jarraitu zuten gainontzekoek; oraingoan, Thin Lizzy taldearen bertsiok. Kontzertuko une hunkigarrietako bat etorri zen orduan, orain hiru aste moto-istripu larria



Taldekideak eta oholtzara igotako musikari lagunak atzean publikoa dutela emanaldia bukatuta. | I.MANOL SORIANO



Bitter Honeyko kideak, Black Sabbath taldeari egindako tributuan. | I.SORIANO

izan duen Radio Wings taldeko Danel abeslariari kantua eskaini ziotenean "Ospitalean dago baina nahiko ondo dago eta kantua grabatu eta momentuan bidali zioten", dio Borjak.

Bertsioak une batez alboratu eta Bitter Honeyren kantuek hartu zuten lekukoa. Ibilbidearen gainbegiratu egiten zuten bitartean, kontzertu askotan argazkilaria izan duten Xabi Rezabali ardo botila bat oparitzeko aprobetxatu zuten eta baita zaleei garagardo-kupela eskaini ere.

Gaua borobiltzeko, ileordeak jantzi eta Black Sabbatheko itxura eta kantuak hartuta, Bitter Sabbath bilakatu ziren. Argiak itsungi bitartean, une polit asko izan ziren; horien artean, Fase Terminali, Borja eta Enaitzen hastapenetako taldeari, omenaldia. Oholtza jendez beteta bertsiok ezagunak kantatuaz amaitu zuten kontzertu maratona.

BORJA HERNANDEZ  
BITTER HONEY

"Ezin hobeto atera zen dena, flipatzen nago oraindik!"

Tailandiarako hegazkina hartu du goizaldean, noiz itzuliko den jakin barik.



ARGAZKILARIAXXX

Herri-mina arintzen lagunduko dio, duda barik Borjari, zapatuan egin zuten kontzertuko oroitzapenek.

## Zer moduz zapatuan?

Ikaragarria izan zen gaua, kontzertua oso ondo atera zen, horrenbeste sorpresarekin asko luzatu bazen ere. Lau ordu pasa egin genituen jotzen, pentsa!

## Sorpresa asko. Zerk harritu zintuen gehien?

Gehien harritu ninduen horren kontzertu luzea izanda, ikusleak bukaeraraino hortxe egotea izan zen. Musikaria eta musika estilo horretako zalea izanda ere, ez dakit nik guztia irentsiko nuen-eta. Taldekideek oparitutako kamiseta ere asko gustatu zitaidan, baita zaleek egindakoak ere; Iron Maidenen garagardo kaxa bat eta aspaldiko kontzertu bateko DVDa, horien artean. Oso ondo portatu zen jendea, flipatzen nago oraindik!

## Oholtza gainean profesional asko batu zintzen.

Gutxinez 15 urte goaz jotzen eta hori igarri egiten da; lagun asko egin ditugu bidean eta horien artean, musikari oso onak daude; inor gutxietsi barik, baina, Iñigo zerbaitegatik dago orain SA taldean.

## Emozio askotako gaua.

Bai, horixe! Alde bietan gainera. Ikusleak gehien aztoratu zen unetako bat, Fase Terminal taldearen garaiki gogoratuz, RIPen kantua jo genuenean izan zen. Eztanda egin zuen gaztetxeak.

## Baxua eramango duzu?

Ez, etxean utziko dut; orain arteko guztiarekin apurten lagunduko didan bidaia da. Musikari oso lotua izan naiz beti, nire bizitzako zati handi bat da, eta *puntu eta aparte* bat egin gura badut... ezin baxuarekin joan.

## Arin-arin, fandango eta beste, Oñatin

Jose de Azpiazu Musika Eskolak udaberriko kontzertua egin zuen egubakoitzean Santa Ana Antzokian. Trikitixa eta pandero taldea, akordeoi taldea eta haizezko instrumentuz osatutako taldea aritu ziren taula gainean, bikain.



I.MANOL SORIANO



I.MANOL SORIANO

# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak. Abantaila ikusteko: [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

## ALZU

ALZU, S.L Ehiza eta arrantza  
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati  
Arropetan %10eko beherapena.

## ARGIA

ARGIA Aldizkaria  
[www.argia.com](http://www.argia.com)  
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

## ARRIKRUTZ

ARRIKRUTZ Kobak  
Araotz Auzoa | Oñati  
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

## caravanas Oñate

CARAVANAS OÑATE  
Galdaragintza. Bizikletak  
Oñate Zuhaitza, 25 | Oñati  
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

## Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda  
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza  
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

## ARRASATE AVIA

ESTACION SERVICIO ARRASATE  
Gasolindegia  
San Andres 7 | Arrasate  
% 2ko gasolindegian erregaia erositako.  
% 2ko dendako produktuetan.

## eureka! zientzia museoa

EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia  
Mikeletegi 43-45 | Donostia  
Sarrera bat erositako eta kupaia+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.

## GAES

GAES Entzumen zentroa  
Otalora 18 | Arrasate  
Zurradero 10 | Bergara  
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

## gahir fisioterapia osteopatia

GAHIR Fisioterapia / Osteopatia  
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza  
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.

## GUZTIZ EDER Estetika zentroa

GUZTIZ EDER Estetika zentroa  
Kalebarria 29 | Oñati  
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).  
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajean.

## kuttuna ESTETIKA ZENTROA

KUTTUNA Estetika  
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza  
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).

## lastai

LASTAI  
Koltxoak eta umeentzako artikuluak  
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz  
%5eko deskontua gehigarria helduentzako atsedenen arloan.  
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileren segurtasun - aukietan.  
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileren segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.  
%10eko deskontua denboraldiko hau-arropan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).

## LILURA EDERTZE INSTITUTUA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA  
Estetika zentroa  
Bidekurutzeta 7 | Bergara  
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondo (besapekoak opari).  
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.  
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.  
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

## MAGDALENA GASOLINDEGIA

MAGDALENA Gasolindegia  
Santxolopetegi auzoa | Oñati  
% 2ko deskontua gasolindegian erregaia erositako.

## MULTIÓPTICAS

MULTIÓPTICAS Optika  
Juan Carlos Guerra, 1 behe | Arrasate  
Ibargarai, 16 | Bergara  
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun beturrekoetan)..

## NAREN

NAREN  
Fisioterapia eta osteopatia zentroa  
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta  
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).

## NINIKA LORADENDA

NINIKA Loradenda  
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara  
%10eko deskontua artikulu guztietan.

## OÑATI GARAJEA

OÑATI GARAJEA  
Autoen garaje. Konponketak.  
Goribar Auzoa 9 | Oñati  
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.

## TXURI-URDIN

TXURI URDIN Itzotz jauregia  
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia  
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubi edo opporraldia).  
% 10eko deskontua zubi eta opporraldietan.

### GOIENA KLABEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean. **Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



## GURE MUSIKA TALDEAK

# Wacken jaialdian jotzeko txartel bila Dark Code taldea

## Bergarrek hirugarregoz jokatu dute finala

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Dark Code bergararrak, beste behin, Wacken jaialdi mitikoan parte hartzeko atarian daude. Alemanian, 25. urtez opatuko da aurten Wacken jaialdia, eta, azken urteotan egin duten moduan, taldeen arteko lehiaketa antolatu dute. Irabazleek jaialdian jotzeko txartela lortuko dute, eta, esan bezala, hirugarregoz Dark Code Espainiako finalera heldu da.

Duela bi asteburu, Irungo Tunk! aretoan, egubakoitzean eta zapatuan, hamabi taldek jo zuten. Bada, bailarako metal taldea onenetakoa izan zen eta finalean jotzeko aukera izango du. Bergararrekin batera, Irunen jo zuten Allowance eta Dredd sailkatu dira Bartzelonan jokatu den finalerako.

Lehiaketako finalaurrekoetarako 36 talde sailkatu ziren; 12 Espainiako iparraldean, 12 ekialdean eta beste horrenbeste erdialdean. Horietatik bederatzik apirilaren 5ean Bartzelonako Liverpool aretoan daukaten onena eman beharko dute Wacken jaialdian parte hartu ahal izateko. Talde hauek izango dira han: Dark Code, Allowance eta Dredd, iparraldeko onenak; Enrage, In Mute eta Toxic Army, ekialdeko onenak; eta SPAM, VIL eta Brutal Slaughter, erdialdeko irabazleak. Eta gaua borobiltzeko, joan den urteko irabazleek joko dute: Trallery taldeak.

### Hogei minutuko emanaldia

Mikelek, Dark Codeko bateria jotzaileak, finalean parte hartuko duten talde batzuekin zuzenean



Dark Code, Irungo Tunk! aretoan. | DARK CODE

jo dutela esan du, eta, irabazle izateko, hogei minutuan kontzertu indartsu eta borobila egin beharko dutela gaineratu. Argi dago, gogotsu eta indarrez joango dira Bartzelonara, finalean hirugarregoz hartuko dute parte; beraz, esperientzia euren aldeko izango dute. Hala ere, Mikelek azpimarratu du garrantzitsuena ez dela

finaleko emaitza izango, egunero egiten duten lana baizik.

Finaleko onenak izanez gero, Dark Codek uztailearen 31tik abuztuaren 2ra bitartean, Hatebreed, Motörhead, Saxon, Skid Row eta Megadeth taldeekin jotzeko aukera izango dute.

### Hurrengo diskoan lanean

Horrez gain, baina, Dark Codek beste erronka bat du esku artean; izan ere, estudioko bigarren lanean dabilta buru-belarri. Oraingo, disko berriaren izena sekretuan gorde nahi duten arren, bederatzik kantu izango dituela aurreratu dute.

Erandioko Sound of Apocalypse estudioan grabatu dute diskoa, Unbreath taldeko gitarra jotzailea teknikari lanetan izan dutela. Dagoeneko amaitu dituzte grabazio gehienak; ahotsen azken detaileekin dabilta orain, eta horren ostean nahasketak eta masterizazioa egingo dituzte.

### ESANAK

**"Garrantzitsuena egunero egiten dugun lana da; edozelan ere, polita litzateke Wackenen jotzea"**

MIKEL | BATERIA JOTZAILEA

## Arkada Social eta Los Galerna Berlinerera doaz

Los Galerna boskotea martxo bukaeran joango da eta Arkada Social, ordea, maiatzean

J.D. | ARRASATE

Datozen hilabeteetan, Arrasateko bi taldek Berlinerako bidea hartuko dute, Clash tabernarako bidea, hain zuzen.

Rock-and-roll instrumentala ikur daraman taldea martxoaren 29an egongo da Berlingo Kreuzberg auzoan dagoen tabernako oholtzan. Eta Arkada Social maiatzaren 24an igoko da Clasheko taula gainera.



Los Galerna. | I.S.

### Hot Gold Rollin' Circle

Martxoaren 29an, Hot Gol Rollin' Circle Berlin jaialdian joko du Los Galerna taldeak. Bertan, beste hiru taldeekin batera eskainiko dute kontzertua, Bella Wreck, Grey City Passengers eta Tilidin taldeekin.

Arrasatearrak lehenengoz joango dira Berlinerara udan kaleratu zuten *Akelarre* diskoa aurkeztera, eta taldekideak gogotsu daude Alemaniako hiriburura joateko. Izan ere, aspalditik bertara joateko gogoia izan dutela aitortu digute; hala ere, orain arte ez dute aukerarik izan. Egubakoitzerako beste kontzertu bat lortzeko lanetan dabilzan arren, oraingo baka-

rra emango dutela esan digute. Hala ere, behin Berlinerara joanda beste bat eskaintzea gustatuko litzaiekeela esan dute taldekideek.

### Arkada Social, maiatzean

Maiatzean, berriz, Arkada Social joango da Clash tabernara *Hil orduko bizi* diskoa aurkeztera. Krumbums taldearekin joko du Arkada Socialek.

Krum Bums Texasko taldearekin batera eskainiko dute kontzertua arrasatearrek. Estatuatuarrak European barrena biran egongo dira eta Berlinen bat egingo dute biek.

## Oier Bernal aretxabaletarrak Azkena Rock jaialdian kontzertua eskainiko du 13 Left to Die taldearekin

Gasteizko 13 Left to Die taldeko bateria jotzailea da Oier Bernal aretxabaletarra, eta aurtengo Azkena Rock jaialdiaren parte izateko deia jaso zuten. Metal musika ikur daraman taldea ekainaren 20an eta 21ean Gasteizko Mendizabalan egingo den jaialdiaren parte izango da; eta besteak beste, Blondie, Wolfmother, Joe Bonamassa, Seasick Steve eta Violent Femmes taldeekin batera egongo da oholtzan. Horrez gain, 13 Left to Die disko berriaren grabaketan dago murgilduta.



Oñatiko gaztelekuan. | SHOW BUSINESS

## 'Show Business-en eskuidatziak': azken birako testigantza

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Show Business oñatiarrek, taldeari agur txukuna emateko asmoz, azken birako testigantza izango den liburua argitaratu dute apirilean.

Liburuak, argazki eta kontzertuetako bizipenak batzeaz gain, taldeak kaleratutako bi diskoak batuko ditu; *Show Business* eta *El éter del demonio*. Aste honetan bidaliko dute *Show Business-en esku-idatziak* liburua inprentara eta apirilean salgai jarriko dute. Igor Agirre abeslariaren arabera, "liburua txukun geratzen ari da, taldearen azken testigantza".



Verdury Hall-ean zuzenean. | SHOW BUSINESS



## ETXEKO SUKALDERAINO

## Iñaki Uribe-Etxebarria | Mendi lasterkaria

- ▶ Saltseroa da eta etxea gutxi zapaltzen duena, jan eta lo egiteko bakarrik
- ▶ Lasterketen kontura lagun onak egin ditu eta paraje zoragarriak ezagutu

## "Lagunekin Gabez Takarraran proba gertatzen hasi, probatu, eta adios!"

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Informatikaria da Iñaki Uribe-Etxebarria (Eskoriatza, 1987) baina gehienek mendi lasterkaria delako ezagutzen dute. Gernikako taldean dabil eta orain euskal selekzioa hautatzaile ardura ere badu: euskal korrikalari onenak hautatu, txapelketetara joan eurenkin, babesleak bilatu... Makinatxo bat lan du aurrez aurre.

**Zelakoa da Iñaki Uribe-Etxebarria?** Saltseroa eta etxean egotea gustatzen ez zaiona; etxean, jan eta lo.

**Zein harreman daukazu sukaldearekin?**

Sarri sartzen naiz sukaldean baina amak gertatutakoa jateko.

**Zein da zure espezialitatea?**

Ez daukat. Neuretako zerbait gertatu behar dudanean entsaladaren bat jartzen dut, bizkor eta samur egiten den zerbait.

**Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena?**

Bokadilo bat hartu eta mendian edozein bazterretara jatera. Jan beharrekoa baino garrantzitsua goa dela lekua uste dut.

**Eta etsirik handiena?**

Ilar platerkada batera.

**Zeinekin gustatuko litzazuke mahaiaren bueltan eseri?**

Neure antzera berriketazaleak direnekin, neurekin saltsan gus-

tura egongo direnekin.

**Zergatik mendi lasterkari?**

Orain urte batzuk lagunak Gabez Takarraran proba gertatzen hasi, laguntzeko eskatu, eta ordutik adios! Hura egin nuen probatzearen, bete-bete harrapatu eta orain barruraino sartuta nago.

**Hortaz, gazte-gaztetako afizioa ez da?**

Ez; mendian ibili bai, zeharkaldiko eskia egin ere bai, baina

lasterketarik ez.

**Zergatik mendian?**

Asfaltoa aspergarriagoa iruditzen zait eta kaltegarriagoa ere bai.

**Euskal Herriko mendirik gustokiena korrikan egiteko?**

Deguria ingurua.

**Eta kanpoko mendi bat?**

Zermatt ingurua, Suitzan; abuztuan egon nintzen eta paraje zoragarriak ditu.

**Mendi lasterkarien artean miresten duzun inor?**

Lasterketetan egin dudan edozein lagun. Izan ere, horixe da onena, halakoetan egiten diren lagunak eta ezagutzen diren parajeak. Giro benetan polita sortzen da eta lagun onak egin.

**Lasterkaria ez bazina...**

Zeharkaldiko eskian jardungo nukeela uste dut.

**Zer ematen dizu mendian korrikan jarduteak?**

Belaunetako mina! Eta egunerokotasunetik deskonektatzeko aukera.

**Korrikan egiteko zer gurago, uda edo negua?**

Uda, duda barik. Aurtengo neguan gutxi egin dut korrikan; euriarrekin sufritu egiten dut eta sufritzeko ez noa.

**Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.**



**Lehen platera:** Entsalada, osagai askorekin.

**Bigarrena:** Patata tortilla, amak egindakoa.

**Postrea:** Txokolatea duen edozein.

**Edatekoa:** Ura.



Iñaki Uribe-Etxebarria mendian korrikan. | ARITZ GORDO

## "Izabaraino joan eta gauean konturatu nintzen maleta etxean utzi nuela"

Adiskidetasuna, askatasuna eta orain arte bezala jarraitzea.

**Zure bizitzako anekdota bat.**

Behin Izabaraino joan nintzen lasterketa nuelako, San Pedro jaiak galduta, gainera. Oherakoan, arropak gertatzen hastekotan nintzela, zer eta maleta etxean ahaztu! Aita eta biok etxera itzuli, maleta hartu eta Izabara bueltatu ginen goizeko ordu txikitik. Sanpedroak galdu nituen baina

lasterketa behintzat egin nuen.

**Mendi lasterkarien bizimodu horretan zer da ezinbestekoa?**

Gustura egitea.

**Damu zara...**

Honetan lehenago ez hasi izana.

**Zer errepikatuko zenuke?**

Orain arte egindako guztia.

**Zerk beldurtzen zaitu?**

Min hartu eta lasterketarik gehiago ezin egin ahal izatea. Baina hori ere iritsiko da noizbait.

**Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...**

Zapatilak jantzi eta takarran egitera.

**Nora ospa egingo zenuke gustura?** Islandiara.

**Ze esaldi konpartituko zenuke?** Ametsak bete behar dira betetzeko daudelako.

## PATRIZIAREN GUTIZIA

Patrizia Vitelli

## HARAGI-BOLAK

**A**mak egiten dituen haragi-boleak ez dute osagai berezirik, eta hortaz, ez dakit oso ondo arrakasta nondik datorren, baina zoragarri daude. Belaunaldiz belaualdi egin izan dira etxean ezer aldatu barik, sukaldea etengabe eraberritzen dabilzanendako pentsaezina dena. Aitak, tradizionalarren aldekoa, osagai berririk ez sartzeko ohartarazi dit behin eta berriro: masari mostazarik ez eta azenario bat baino ez botatzeko. "Zure amak egiten dituenak ditut gustuko", esan zuen. Eta kitto. Horrelaxe egin behar izan nituen, eta egiten ditut.

**Arabiar jatorria**

Haragi-boleak arabiar jatorria badute ere, mundu osoan dira gaur egun ezagunak. Hainbat herrialdetan lehen plater moduan aurkezten dira; Euskal Herrian, ostera, bigarren jaten ditugu.



Masa nahastuta dagoela, bolak egin eta irineztatu. | PATRIZIA VITELLI



Haragi-bolak jateko moduan. | PATRIZIA VITELLI

## Fitxa

- ▶ Denbora: Ordu eta laurden.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

### OSAGAIAK

- ▶ Kilo bat haragi xehatu
- ▶ Esne edalontzi erdi
- ▶ Azal bariko Bimbo ogi-xerra bi
- ▶ Perrexil apur bat
- ▶ Arrautza bi
- ▶ Iriña
- ▶ Haragi-salda edo bestela ura haragi-salda egiteko pastilla batekin nahastuta
- ▶ Ardo beltza botila erdi (edangarria den ardoa)
- ▶ Tipula erdi
- ▶ Azenario bat
- ▶ Olio
- ▶ Gatza eta piperbeltza

## Prestaketa

1. Lehendabizi okela xehatua, Bimbo ogi-xerrak esnean bustita, arrautzak, gatza eta piperbeltza eskuekin nahastuko ditugu. Dena ondo nahastuta dagoenean bolatxoak egingo ditugu eta irinatik pasa.
2. Zartaginean olio bota eta bero dagoenean bolak gorrituko ditugu, alde bietatik. Plater batean utziko ditugu.
3. Lapikoa hartu eta zatitutako tipula erdi eta azenarioa frijitu, eta gorrituta daudenean, irin apur bat bota eta ondo nahastu, erre barik. Haragi-salda apur bat ere bota.
4. Haragi-bolak lapikora sartu eta jarraian, haragi-salda eta ardo beltza bota, eta estalkia jarri. Ordu laurden izan irakiten, eta gero, su motelean, beste ordu erdi eduki. Noizean behin eragin.
4. Perrexila bota eta aurkeztu.



Wikipediaren logoa. | PLAYING FUTURES

## Wikipedia deskarga daiteke orain, 40 GBko tamaina duen artxiboan

Interneteko konexioaren beharrik gabe entziklopedia eskura izatea da asmoa

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Interneteko entziklopedia ezagunena dohainik deskargatzeko aukera dago orain. Ingeleseko bertsioa bakarrik eskuratu ahal izango da, 40 GBko tamaina izango duen ZIM artxibo batean. Artxiboak 4,5 milioi artikulua eta 3,5 milioi irudi izango dituen ZIM artxibo batean. Android, Windows, OSX, Linux eta Symbian gailuetan erabili ahal izango da.

Kiwix izeneko aplikazioa erabili dute artxiboko artikulua konexiorik gabe irakurri ahal izateko. Erabiltzaileak, informazio baten beharra izanez gero, ez du izango konexioa galtzeko beldurrik.

Bi aste baino gutxiago eman zituen Wikipediak bertsio hori sortzen, komunikatu ofizial baten bidez aditzera eman duenez. Hala

ere, oinarriko entziklopediak dituen irudietako asko artxiboan ez sartzea erabaki dute, 100 GB inguruko tamaina izango bailuke kasu horretan. Gainontzeko informazio guztia errespetatu dute, baita formula matematiko, taula eta aipuak ere.

### Erabiltzaileen inguruan beti

Wikipedia sareko entziklopedia ezagunena bihurtu da, 2001ean sareratu zutenetik. Mundu osoan 400 milioi erabiltzailetik gora ditu plataformak. Ez dago lantaldetan artikulua idazteaz arduratzen den inor eta kolaboratzaileek idatzi dituzte gaur egun dituen 20 milioi artikulua.

Erabiltzaileek sustengatzen dute webgunea, bai edukiei dagokienez eta baita ekonomikoki ere, haien dohaintzen bidez.

Hain zuzen ere, plataformaren politika ireki horrek aldeko eta aurkako iritziak sortu ditu. Jendearen parte-hartzea sustatzen duen arren, bertan idatzitakoa fidagarria den edo ez zalantzan jarri izan da.

### Euskaraz nola elikatu?

Bestalde, Wikipediaren funtzionamendua ulertu eta hura euskaraz nola elika dezakegun ikas-teko lan-tailer bat antolatu du Ikaskidetza Sareak. Martxoaren 27an izango da, 16:00etatik 20:00etara.

Bi zati izango ditu: lehenengo ordu eta erdian, Wikipedia euskaraz nola idazten eta berrikusten den azalduko da; eta kafea hartzeko atsedenaldiaren ondoren, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera egongo da.

## Teleskopio handienaren euskarria egin dute bi euskal enpresak

J.A. | ARRASATE

Munduko eguzki teleskopio handiena babesteko duen estruktura Hawaiiira (AEB) bidaltzeko prestatzen ari dira Gometegui eta Hilfa enpresa bizkaitarrak. *Advanced Technology Solar Telescope* (ATST) izeneko teleskopioa inguratuko du domoak eta 2015. urte bukaerarako Hawaiiiko Maui irlan instalatzea espero da, 3.000 metroko altueran dagoen Haleakala astronomia-behatokian.

3,5 milioi euroko kostua izan duen proiektu hori Idom inženiaritza zentroak jarri zuen martxan, Ameriketako Estatu Batuetako eguzki-behatoki nazionalak eskatuta.

Euskarri horrek gainontzekoekin alderatuta berezitasun nabarmen bat izango duela adierazi du Gaizka Murgak, Idomeko astronomia inženiarriak: "Ohiko teleskopio domoak ez bezala, hau mugitu egiten da teleskopioarekin batera, igartzea ia ezinezkoa den mugimenduak eginda".

### Prozesu luzea oraindik

Estruktura Hawaiiira eramateak bere denbora hartuko duela

jakinarazi du Murgak. Kupula desegiteak bizpahiru hilabete hartuko ditu. Behin hori egin da, Ameriketako Estatu Batuetara bidaliko dituzte pieza guztiak itsasontzi batean. Urriari hasiko dira muntatzen eta urtebete inguru iraungo dulakoan daude. Teleskopioa martxan jarri arte beste urte bat itxaron beharko dute, ordea.

### Ez da azkena izango

Euskal inženiarri talde horrek Europan eraikiko duten *E-ELT* teleskopioaren domoaren aurre-diseinua ere egin du, besteak beste. Eraiki berri dutena baino hiru aldiz handiagoa izango litzateke hori.

Idom zentroak lanean jarraitzeko asmoa du. Murgaren arabera, "munduko osoko entitateekin" dituzte harremanak eta "gisa horretako proiektuetan" parte hartzeko asmoa dute.

Arantza Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburua, berriz, "Euskal Herriko industria sektorearen berrikuntza prozesuan" jarraitzea animatu ditu enpresak, "merkatua internazionalizatzeko".



IDOM inženiaritza zentroaren Bilboko eraikina. | IREKIA

## Bluetootha mila aldiz azkarragoa izan daiteke teknika berri batekin

Urrea, zilarra eta halako materialak erabili dituzte

J.A. | ARRASATE

Ezagutzen duguna baino mila aldiz azkarragoa izango den informazioa bidaltzeko modu bat aurkitu du Utahko unibertsitateko inženiarri talde batek, tintaren kostua txikia duen inprimagailu berezi bat erabilia.

Metalen argia erabiliz artxiboak garraiatzea ahalbidetzen duten estrukturak asmatu dituzte. Teknika hori gailu elektronikoetara eramatea posible ikusten dute. Horrek haririk gabeko teknologia azkarrago egingo luke, eta material magnetikoak inprimatzeko aukera emanda.

### Leku txikiagoan datu gehiago

Abiadura azkarreko Internet zuntz optikoen bidez garraiatutako argian oinarritzen da, datuen transferentziarako erabiltzen diren beste teknika guztiak bezala. Zuntz horiek txikiagoak eragiten du espazio txikian datu asko pilotzea. Hori lortu dute teknika horren bidez.

Erabilitako mineralen artean urrea eta zilarra daude. Argia ondo islatzen duten materialak dira eta datuak frekuentzia altuetan bidal daitezke. Frekuentzia igozteak zuzenean abiadura igozteak dakar.

## Ukrainako gatazka aurrekusi zuten, bideojoko batean

J.A. | ARRASATE

2003ko bideojoko batean, gaur egun guztion ahotan den Ukrainako gatazka aurrekusi zuten. *LockOn: Modern Air Combat* da jokoaren izena eta jokalaria Ukrainako armadaren azalean jartzen da. Errusiarekin batera borroka egin edo haien aurkari izan daiteke.

Bada, bideojoko hori kaleratu zen garaian polemika handia eragin zuen; izan ere, Errusiaren eta Txetxeniarren arteko borroka hildakoak eragin zituen. Ukraina, aldiz, edozein borrokatik urruti ikusten zen orduan.

## Europako Parlamentuak mugikor guztientzat balioko duen kargagailua eskatu die telefono konpainiei

Joan den egunean onartu zuten neurria. Eurodiputatuek uste dute kontsumitzaileen gastuak txikitu egingo liratekeela, ez baitute erabiltzen duten mugikor bakoitzerako kargagailu berri bat erosi beharrik izango. Ez da hori, hala ere, erabakiaren atzean dagoen arrazoi bakarra. Telefono mugikorrek eta haririk gabeko produktuen aukera zabala dela eta sortu diren interferentziak ere eragotzi nahi dira. Ekologista taldeek aditzera eman dutenez, 54 mugikor saltzen dira segundoro munduan.

## 'Candy Crush Saga' joko ezagunak burtsan 384 milioi euro inguruko irabaziak izatea espero du

Smartphoneetan eta Facebooken hain ezagun egin den jokoaren egile den King Digital enpresak eman du Ameriketako Estatu Batuetako burtsan sartzeko erabakiaren berri. 7.560 milioi dolarretan (5.500 milioi euro) baloratua izan da. 15,5 milioi akzio jarriko dira inbertitzaileen eskura, eta haien hasierako prezioa 15-17 euro izango da. 2012an eskuragarri jarri zutenetik, 500 milioi deskarga baino gehiago izan ditu aplikazioak. Kolore bereko hiru goxoki elkarren alboan jarriz puntuak lortzean datza.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Irailaren heriotza

Horrelakoa da bizitza, egin ezazu behar duzuna. Horixe zioen Negu Gorriak talde mitikoaren kantu batek. Eta hori da Telecinco-ko *La Voz Kids* saioan gertatu dena. Udan grabatu zen saioa egunotan ari dira emititzen, bertan, Iraila izeneko Valentziako neskato bat ageri da eta bere ametsa betetzeko bidea hartu zuen: abeslaria izatea.

Haur batek horrenbeste kameran aurrean sentitzen dituen urduritasunak agerian utziz, ezin izan zuen lehen aldian bere abestia bukatu eta saioko epaimahaikideek lasaitu zuten bere ahots liluragarriaz kantatzen jarrai zezan. Baina istorio horrek ez du amaiera zoriontsurik izan. Iraila min-biziak jota zendu baitzen aurreko astean. Familiak hala eskatuta, Telecinco-k saio osoa eman du, Irailaren emanaldia barne. Ondorioz, lehiaketak orain arte izan duen audientzia mailarik altuena lortu zuen. Eta nire buruari galdera hauxe egiten diot: Guztiok neskaren heriotzarekin hunkituta gauden ala morbosoa, gaixo, giza-galdu, likits eta haragikoi hutsak ote gara?

Gizakiok ez dugu erremediorik. Horrelako da bizitza. Bide batez, nola ez, doluminak familiari.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 17	MARTITZENA, 18	EGUAZTENA, 19	EGUENA, 20	EGUBAKOITZA, 21
<b>'Berriak'</b> Asteburuan eta egunetan bertan izan diren albiste garrantzitsuen errepaso egingo dizuegu.   14:30	<b>'Auzorik auzo'</b> Aste honetan Eskoriatzako Mendiola auzoa ezagutuko dugu Mireia Bikuña kazetariaren eskutik.   20:00	<b>Sare sozilak</b> <i>Debagoiena Zuzenean</i> saioan Amaia Pavon MUko ikasleak sare sozialei buruz hitz egingo digu.   20:00	<b>'Amaia DJ'</b> Gazteen artean gehien entzuten diren kantuen bideoklipak eskainiko ditugu saioan.   19:30	<b>'Tertulia'</b> <i>Gu jatorri anitz herri bat</i> izeneko ikus-entzunezkoari buruz hitz egingo dugu solaskideekin batera.   19:00
12:00 Debagoiena zuzenean 13:00 Ikusmira: gernikako lekuek 13:20 Zorion agurrak 13:30 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Tertulia 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Kantari 17:30 Rallysprinta 18:00 Ikusmira: Astra 18:20 Zorion agurrak 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 19:30 Harmailatik 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harmailatik 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gurean gaur 23:50 Debagoiena zuzenean 00:20 Harmailatik	12:00 Ikusi irratia: Makulu Ken 12:50 Tripa-zorri 13:20 Amaia DJ 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik 15:30 Onein 15:55 Zorion agurrak 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Aho bizarrrik gabe 18:20 Zorion agurrak 18:30 Berriak 19:00 Pedalka 19:30 Kantari 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 21:30 Berriak 22:00 Harira 23:00 Berriak 23:30 Gurean gaur 23:50 Debagoiena zuzenean 00:20 Harira	12:00 Tripa-zorri 12:30 Klaketa 13:15 Ikusmira: gernikako lekuek 13:30 Kantari 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harira 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Kantari 17:30 Klaketa 18:15 Ikusmira: gernikako lekuek 18:30 Berriak 19:00 Harira 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Pedalka 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gurean gaur 23:50 Debagoiena zuzenean 00:20 Pedalka	12:00 Ikusmira: Astra 12:40 Aho bizarrrik gabe 13:55 Zorion agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Pedalka 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Ur eta lur 17:30 Tertulia 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Amaia DJ 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gurean gaur 23:50 Debagoiena zuzenean 00:20 Amaia DJ	12:00 Aho bizarrrik gabe 13:15 Zorion agurrak 13:30 Kantari 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Amaia DJ 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Klaketa 17:45 Rallysprinta 18:30 Berriak 19:00 Tertulia 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Tertulia 23:00 Berriak 23:30 Gurean gaur 00:20 Tertulia

ARRASATE IRRATIA

Arrasate Irratiko emisioa etenda dago obregatik

Otalora lizentziaduna 31 erai-kinean kokatuta dago Arrasate Irratia eta bertan egiten ari diren obrak direla-eta, 107.7ko uhinetako emisioa etenda dago. Lanak bukatu bezain laster ekingo diogu berriro irratiko emisioari normaltasun osoz.

TELEBISTA LABURRA

'Harmailatik' saioan, Oñatiko duatloia eta Aloñaren partidua

Zapatuan duatloia egin zen Oñatin eta domekan, berriz, futbol partidua izan zuen Aloñak Azkoagainen Tolosaren aurka. Bi kirol kontu horiek izango ditugu berbaigai, besteak beste, gaur, astelehena *Harmailatik* saioan Goiena telebistan 19:30ean, 22:00ean eta 00:20an.



Iazko duatloieko une bat. | GOIENA

TELE-ALBISTEAK

'Debagoiena Zuzenean' saioa gai ugarirekin dator beste aste batez Goiena telebistara

Zapatuan Arrasaten egin zen babarrun txapelketa ikusgai, gaur, astelehena

**AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE**  
Astelohenetik egubakoitzera bitartean eskaintzen dugu *Debagoiena Zuzenean* saioa 20:00etan, 21:00etan, 22:30ean eta 23:50ean. Aste honetan ere hainbat kontu izango ditugu berbaigai.

Gaur, astelehena, gai hauek izango ditugu: zapatuan Arrasaten egin zen babarrun txapelketa, Bergarako tailagileek nola lan egiten duten ere ikusiko dugu, eta azkenik, Arrasateko Amaia antzokian zapatuan egon zen *Kamaleoia* dantza ikuskizuna ere izango dugu berbaigai.

Bihar, martitzena, berriz, Amaia antzokian izango den *Madama Butterfly* Pucciniren opera lirikoari buruzko erreportajea eskainiko dizuegu, eta martitzeneko egiten dugun moduan,



Txomin Madina, saioa aurkezlea. | GOIENA

Debagoieneko beste auzo bat eza-gutzeko aukera ere izango dugu: Eskoriatzako Mendiola auzoa ezagutuko dugu, hain zuzen.

Hurrengo egunetan, azaleko ipuinak egitasmoa edota bolo txapelketari buruzko kontuak landuko ditugu, besteak beste.


Ana Bolinaga Aretxabaletako alkatea izango dugu 'Harira' saioan

Herrian puri-purian dauden gaiei buruzko azalpenak emango ditu martitzeneko saioan

**A.T. | ARRASATE**

Arrasate, Bergara eta Oñatiko alkatea izan dira dagoeneko Goiena telebistaren *Harira* saioan. Aste honetan Aretxabaletako Ana Bolinaga alkatearen txanda izango da eta bihar, martitzena, Eneko Azkaratek aurkeztutako saioan izango da herriko kontuei buruz berbetan. Kanean herritarrei jasotako galderak edota Mirari Altube eta Imanol Gallego kazetariak grabatutako erantzungo die.

**Egin galderak alkateari**  
Herritarrok aukera izango dugu alkateari zuek daukazuen galdera horiek egiteko eta saioan erantzungo dizue Bolinagak. Bide hauek erabili galderak egiteko: idatzi *harira@goiena*.



Ana Bolinaga alkatea. | GOIENA

com helbidera, Twitterren *#harira* traola erabilia idatzi edo bestela bidali Whatsapp edo Telegram erabilia mezua 688 69 00 17 telefono zenbakira. Animatu eta bidali zuen galderak alkateari.

## ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA**  
**Iker Gorosabel Velez**  
Martxoak 22an, 4 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxekuen partetik



**BERGARA**  
**Kenar Da Silva Moreno**  
Martxoaren 23an, 3 urte.  
Egun politxa pasatzia espero dogu eta opari asko jasotzia, merezi ditxuzu-eta! Muxu handi bat etxekuen, Uxueren eta, bereziki, Alainen partetik!



**OÑATI**  
**Enara Guridi Murua**  
Martxoaren 22an, 5 urte. Zorionak, marisorgintxo!  
Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



**BERGARA**  
**Aiara Agirre Igarza**  
Martxoaren 21ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat eta zorionak beti... etxeko danon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Oxel Urteaga Larrea**  
Martxoaren 20an, 4 urte. Zorionak, Oxel! Bi tirakada belarri bakoitzetik eta milioika patxo handi!



**BERGARA**  
**Elene Perez Zabaleta**  
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, prexioxa! Egun polita pasatu eta belarritik hiru tirakada familia guztiaren eta, bereziki, Noraren, Eriken, Jurgiren eta Aneren partetik.



**ARRASATE**  
**Hodei Idigoras Amado**  
Martxoaren 19an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo potolo bat familia guztiaren eta, bereziki, Juleneren izenean! Eta besarkada bat Uxuek.



**BERGARA**  
**Sare Larrañaga Barrenetxea**  
Martxoaren 19an, 3 urte. Zorionak! Jaso patxo potolo bat danongaitzik eta handi-handixa Peruren partetik!  
Ondo-ondo pasatu zure eguna!



**BERGARA**  
**Maitane Agiriano Larrion**  
Martxoaren 18an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Ionon partetik.



**ARETXABALETA**  
**Unai Arias Axpe**  
Martxoaren 18an, 12 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat familia guztiaren eta, bereziki, zure anai-arreba Ikerren eta Eiderren partetik.



**OÑATI**  
**Miren Bikuña**  
Martxoaren 17an, 49 urte. Zorionak eta urte askotarako etxekoen eta, batez ere, Carlosen, Urtziren, Naroaren eta Sandraren partetik. Muxu handi bat eta ondo pasatu eguna.



**ANTZUOLA**  
**Jone Garitano Ruiz**  
Martxoaren 17an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Besarkakada eta musu handi bat etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Alaitz Isasti Arkauz**  
Martxoaren 17an, urtebete. Zorionak eta muxu pila bat zure anaia Ikerren, amatxoren eta aittaxoren partetik, eta egun ona pasatu. Jarraitu holako potxola izaten.



**ARETXABALETA**  
**Iker Seijo Fernandez**  
Martxoaren 16an, 10 urte. Zorionak, Iker, familiaren partetik. Txapeldun!



**ELGETA**  
**Amets Agirre Osa**  
Martxoaren 15ian gure zaperotxuak bi urte! Mila kilo zorion familia danaren partetik! Patxo mordo bat! Ask maitxe zaitxugu!



**ARRASATE**  
**Markel Bereziartua Zabala**  
Martxoaren 15ean, urtebete. Zorionak, Markel! Txapela buruan baduzu, orain munduan ibiltzea falta zaizu! Segi irribare horrekin gure bihotzak alaitzen... Brum! Brum!



**BERGARA**  
**Noa Lezeta Iturralde**  
Martxoaren 14an, 5 urte. Zorionak, printzesa. Dagoeneko bost urte beteta. Belarritatik tirakadak etxeko guztien partetik. Aiur, Maren, aita eta amatxo. Ask maite zaitugu!



**OÑATI**  
**Beñat Irizar Aramburu**  
Martxoaren 14an, urtebete. Urtebete poztazuna oparitzen! Zorionak, txiki.



**ARRASATE**  
**Maider Olabarria Iturbe**  
Martxoaren 14an, 8 urte. Zorionak, edertasun, eta urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



**OÑATI**  
**Marta Leturia**  
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Urteak hartutako ardo onarena jakina da, eta zure kasuan ere halaxe gertatzen da. Zorionak, guapa! Karapaixo.



**OÑATI**  
**Uxue Azkarate Unamuno**  
Martxoak 12an, 10 urte. Etxeko guztien partetik, urte askotarako eta muxu handi bat; bereziki ahizpa Aneren partetik.



**ARRASATE**  
**Gartzot Elortondo Moraza**  
Martxoaren 11n, urtebete. Zorionak, Gartzot! Dagoeneko urtetxo bat egin duzu. Zorionak etxekoen partetik.



**ARETXABALETA**  
**Mikel Oscoz**  
Martxoaren 10ean, 48 urte. Zorionak, aita! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Mila muxu amatxoren, Ekaitzen eta Iratiren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Unai Urrutia Vazquez**  
Martxoaren 10ean, 12 urte. Zorionak, Unaitxo. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta opari asko jaso. Muxu handi bat familiako danen baina, bereziki, Itxaso eta Eider Markaideren partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

### Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurra  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK




**Maddi Acosta Segurola**

Antzuola 3,580 Kilo. Martxoaren 9a. Gurasoak: Miren eta Jabi. Argazkian, Maddi jaioberria gurasoekin.



**Intza Balanzategi Urra**

Arrasate 3,130 Kilo. Martxoaren 14a. Gurasoak: Nerea eta Josu. Argazkian, Intza aitaren besoetan.



**Garazi Lazpita Garcia**

Berriz 3,560 Kilo. Martxoaren 11. Gurasoak: Javi eta Beatriz. Argazkian, Garazi jaioberria aitarekin.



**Ander Luri Vazquez**

Aretxabaleta 3,400 Kilo. Martxoaren 5a. Gurasoak: Zuriñe eta David. Argazkian, Ander, Paula arrebaren besoetan.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

**zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA\*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30



\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

**Jaio da!**



Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari bat.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Buztana	Duela 24 ordu	Miraria
	Jazarri, eraso	* Aramaioko elizatea	Salaketa egile
	Esna		
	Moztua		
Dardarak	Borda		
Hutsa	Euskal lurraldea		
		Nor atzizkia	
		Lohiaren erdian	
Gehitu, emendatu			
Asiako estatua			
		Gerriko	
		501	
Monasterio-ko buru			Rutenioa
Bizkaiko ibaia			Kontso-nantea
		Asiako estatu handia	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

A	I	D	N	I	A	K	O
R	■	E	D	V	■	■	■
U	■	■	■	■	■	■	■
L	A	H	■	N	V	■	■
U	■	O	G	■	A	R	■
A	■	K	A	T	S	A	■
L	■	A	■	■	■	■	■
A	■	T	X	O	L	A	■
R	■	A	T	Z	A	R	■
■	■	■	■	■	■	■	■
M	■	A	■	■	■	■	■

T	E	R	N	U	A	V	E	O
B	U	M	A	D	E	I	R	A
O	A	E	Z	E	T	U	P	I
I	E	R	U	X	O	N	E	D
K	U	B	A	O	V	E	I	A
T	E	U	D	S	A	J	R	L
L	G	E	I	E	O	K	E	S
G	A	L	A	P	A	G	O	S
E	I	W	U	E	S	T	O	I

6	8	9	2	7	1	5	3	4
1	4	2	5	3	8	7	9	6
3	7	5	6	9	4	1	2	8
9	3	4	1	5	2	8	6	7
2	5	7	8	6	3	4	1	9
8	6	1	9	4	7	2	5	3
7	9	8	3	2	5	6	4	1
5	1	6	4	8	9	3	7	2
4	2	3	7	1	6	9	8	5



Ezetz igarri: 1:20 eta 80 minutu berdín dira.

SUDOKUA

	2	7						
		4			3	7	2	
7	9				6			
8	6				2	5		
		7	8	6	3	4		9
				5		8		
3				9	4		2	
			5	3				
6	8			7	1			

HIZKI SALDA

Topa itzazu Ozeano Atlantikoko bost uharte

G	A	L	A	P	A	G	O	S
E	I	W	U	E	S	T	O	I
L	G	E	I	E	O	K	E	S
T	E	U	D	S	A	J	R	L
K	U	B	A	O	V	E	I	A
I	E	R	U	X	O	N	E	D
O	A	E	Z	E	T	U	P	I
B	U	M	A	D	E	I	R	A
T	E	R	N	U	A	V	E	O

EZETZ IGARRI!

Zientzialari batek 80 minutu behar izan zituen amantal gorriarekin, esperimentu bat egiteko. Gero esperimentu berdina egin zuen amantal berde batekin. Azkenengo horretan 1:20 minutu behar izan zituen. Zergatik behar izan ditu 1:20 minutu amantal berdearekin?

## AI, ENE!

### Ea nor ausartzen den eskailerak jaisten...

Eraikin horretatik irteteko modu bakarra putzua igerian gurutzatzea bada, eskaileretan eseri eta laguntzari itxarotea onena.

[www.facebookfails.es](http://www.facebookfails.es)



## AHOBERO


### "Bihozberatasun ekintza izango litzateke Del Nidorendako indultua"

F. PEREZ | REAL MADRILEKO PRESIDENTEA

Sevillako presidente ohia kartzelan da fondo publikoaren bidegabeko erabilera eta prebarikazioaren elkarlanean aritzeagatik. Florentino Perezentzat, Del Nido damututa dago eta birgizarteratu da. Gauza bera esango luke delituak bere enpresetan izan balira?

La Sexta

## EGURALDIA



Max. 15°

Min. 2°

Zerua oso hodeitsu geratuko da. Egunaren amaieran baliteke zirimirri apur bat egitea.

[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2014-03-17

## HAMARREKOA

**Karra Elejalde** Ostiralean estreinatu zuten haurtzaroan Leintz Gatzagan bizi izandako aktorearen azken pelikula, 'Ocho apellidos vascos'; Galizian harrapatu dugu, bere hurrengo lana filmatzen | TXOMIN MADINA

## "Nire kasuan, Goya sariak txano bat eusteko balio dit"

**1. Ocho apellidos vascos-en Koldo zara. Aurkeztu iezaguzu.**  
Arrantzalea da, patroia, EAJkoa, eta emazteak Sevillako batengatik utzi zuen. Hamar urte dira bere alaba ez duela ikusten, eta berreskuratu gura du.

**2. Ez zen zaila izango pertsonaia eraikitzeke ereduak topatzea...**  
Ez. Leintz Gatzagan jaio nintzen eta aitak-eta errazago egiten zuten euskaraz gazteleraz baino. Eman diodan azentua aitari eta Debagoienekoei omenaldia izan da.

**3. Zer izan zen erabakigarria pelikulari baietz esateko?**  
Betiko galdera da: "Nor da zuzendaria?". Borja Cobeagaren gidioa oso ondo zegoen eta Carmen Machi, Dani Rovira eta Clara Lagorekin lan egitea interesgarria zen. Gainera, euskaldunak imitatzeke ohiko erak gogaitzen nau, eta beste modu baten egiten saiatu naiz.

**4. Nori ematen zaio egur gehiago pelikulan: euskalduneri ala andaluziarrei?**  
Kontua ez da hori: gidoilariak anaitzen, sendatzen saiatu dira. Topikoak topiko dira; beraietaz barre egiten jakitea da interesgarriena.

**5. Nola pasatu zenuen hobeto: gidoia irakurtzen, filmatzen edo pelikula ikusten?**  
Ez dut ikusterik izan. Filmatzen oso ondo pasatu nuen: zuzendariak giro bikaina sortu zuen. Ezohikoa da bosgarren hartzean ere lantaldeak barre egitea; seinale ona da.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Almikia alderantziz egingo nuke: urrea kaka bihurtu. Horrela, urre gehien duenak, kaka gehien izango luke"

AGM

**6. Nolako irten da aktore betaranoen eta gazteagoen konbinazioa?**  
Mahai batentzat hanka onak gara: Carmen Machi eta ni betaranoagoak; Clara Lago, ederra izateaz gain, oso aktore ona eta azkarra; eta Dani Rovira, aurpegi berezia eta sekulako talentua duena. Zuzendariak jakin du denekin jolasten.

**7. Bajo Ulloa, Medem, De la Iglesia, Calparsoro, Uribe... Badirudi zuzendari euskaldunentzat ezinbestekoa dela noizbait zurekin lan egitea.**  
Zortea izan dut. Ustea da Euskadin zinemak Gobernuaren babes handia duela, eta ez: kontua da jende gogotsu asko egon dela. Baina non bizi dira denak? Madrilen.

**8. Zuk zeuk ez duzu berriz ere zuzendari izateko gogorik?**  
Ez. Azken aldiz ez nuen ekoizleen babesa sentitu, sabotajea baizik. Ekonomikoki ere ez du merezi: aktore nagusi zortzi aste, zuzendari moduan bi urte baino hobekak dira. Aktore eta gidoilari hobeto ikusten dut neure burua.

**9. Zertarako balio du Goya sariak?**  
Nire kasuan, txano bat eusteko. Askori gertatu zaio irabazi eta gero lan barik egotea, gehiago kobratuko dutela uste delako. Nik urte-txo bat eman nuen lehorrean.

**10. Haurtzaroa Leintz Gatzagan: oroitzapen batekin gertatzen... Haurtzaroak beti dira zoragarriak. Adibidez, frontoiko zoruan gurina jartzen genuen, eta gero patinatu. Sekulakoak hartzen genituen!**

## BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



### Gastu sozialak

Ez dira hainbeste egun pasa baina ia ahaztuak genituen izan ditugun itsasaldeko ekaitz bortitzak; eta hara non, orain "Ekaitza" euskal basamortuan ari den gertatzen egunotan; Nafarroako Bardeetan, hain zuzen ere; baina ez naturak sortutako ekaitza, Espainiar Harmadak baizik; bai; "Ekaitza" bezala bataiatu dute, egiten ari diren maniobra militarren operazioa; eta inolako susmo txarrik izan ez dezagun, Espainiako Defentsa Ministroak, argitu digu, "beste gastu sozial" bat gehiago bezala kontsideratu behar dela "ekaitz" hau. Bapatean ulertu dut! Nafar Gobernuak presidentea Barcina eta enparauak zergatik diren errugabe? egin dituzten iruzur, lapurreta eta xahuketa guztiak ere, gastu sozial kontsideratu behar ditugulako!. Eta sakua betetzeko, Madrilgo Audiencia Nacionaleko horma artean gertatu dena; Han 34 euskaldun "epaitu" dituzte, makrosumario horietako baten baitan; Ondorioz, ekaitz juridiko eta mediatiko horren zurrumbiloan, hasera batetan ETako kide izatearen akusaziopean eta azkenean (garaian legezkoa zen) Herri Batasunako kide izateagatik, kartzelaratuak izan daitezke horietako hainbat eta ehundaka Herriko Tabernaren jabegoa gal dezake ezker abertzaleak, tartean, Debagoieneko hainbat;

Ekaitz giro dugu Euskal Herrian, baina gauden lasai; "gastu sozialak" dira.

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

ZURE BIGARREN

# VARILUX®

LEIAR PROGRESIBOAK

# OPARI\*

\* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA  
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95

**ARRASATE**

---

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75

**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**

lehena zerbitzu optikoetan